



KARDABERAZ-5

1976

Nun zet:

I.—KARDABERAZ BAZKUNA	1
Bazkunaren kondairarako	3-14
II.—GIZONAK	15
Akesolo'tar Lino aita	17-23
III.—EUSKERA	25
Batasuna ta hatxea	27-28
Euskera batuaren kondairea	29-57
¿Asko etorri dira ala asko etorri da?	58-62
Reflexivum-reciprocum	63-64
Corominas'en iritzi bati buruz	65-68
IV.—EUSKALERRIA	69
Aralar'ko aizeak	71-73
Joxe Mari Arizmendiarrjeta.	74-75
V.—SASKI-NASKI	77
Kardaberaz'ek, Katekesi-Batizordeari	79
"Kardaberaz Bazkuna'ko" nere lagunei	80-81
Liburu argitaratzeaz..	82-85
Diru sarrerak-irteerak	86
Ebreo izkuntzaren pizkundea	87-109

KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º **KARDABERAZ AITARI OMENALDIA**
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akesolo, Onaindia eta abar).
- 2.º **NEURRIZTIA**
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
- 3.º **SUGE GORRI**
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.
- 4.º **ESPALAK**
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
- 5.º **AITONAREN IPUIAK**
(Ramon Murua).
- 6.º **ERREKA-ZULOAN eta...**
(Anastasio Albisu Ayerdi).
- 7.º **1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE**
(Larrakoetxea, Bedita).
- 8.º **LANDARE-JAKINTZA**
(Larrañaga, Gillermo).
- 9.º **GARTZI-XIMENO eta...**
(A. Albisu Ayerdi).
- 10.º **EUSKALERRIA ETA ERIOTZA**
(Anastasio Arrinda Albisu).
- 11.º 2 - KOMEDIAK
- 12.º 3 - DRAMAK
- 13.º 4 - DRAMAK
- 14.º 5 - TRAJEDIAK
- 15.º 6 - TRAJEDIAK
- 16.º **1.—GRAMATICA VASCA "UMANDI"**
Método para aprender y enseñar el idioma vasco.
- 17.º **2.—GRAMATICA VASCA "UMANDI"**
Modismos - Vocabularios - Clave de temas.
- 18.º **TXIRULIRUKA**
(Loidi'tar Paben).
- 19.º **I.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA**
- 20.º **II.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA**
- 21.º **III.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA**
(Colaboraciones).

I

Kardaberaz - Bazkuna

BAZKUNAREN KONDAIRARAKO

Billeraetako agiriak esaten digute ondoen, bazkun batek daraman bizitza ona ala txarra dan. Eta auetxek dituzu KARDABERAZ gure BAZKUNAREN urteko agiriak.

Zuk erabaki orain bada, nolakoa ote dan gure BAZKUNAREN bizitza... Ona...? Txarra...? Obetu-bearrekoa...?

Pozik jasoko genduke zure iritzia. Zergatik ez diguzu idazten...?

* * *

Azkoiti'n giñan 1975'go Irailla'ren 3'an Arrinda'tar Anastasio, Garmendia'tar Juan Jose, Garmendia'tar Martin eta laurok.

Bi auek ziran gure asmoak: KARDABERAZ-4 eta BATZAR NAGUSIA.

Bi auek ordea, BATZORDE NAGUSIKOEN baiezkua eskatzen zuten, eta orduan sortu zan BATZORDE NAGUSIKOEKIN, Euskaltzaindiko kardaberaztarrai Loiola'ra dei-egiteko asmoa.

Eta onela zion deiak:

Bazkide zaitugun orri, agur biotzez:

Azkoiti'n bildu giñan Irailla'ren 3'an, Arrinda'tar Anastasio, Garmendia'tar Juan José, Garmendia'tar Martin eta Albisu'tar Anastasio. KARDABERAZ-4 gertatzea zan lauron asmoa, Batzorde Nagusikoeri agertzeko gero, eta auekin Batzar Nagusia eratzeko.

Ortan ari giñala, beste au esan zuan norbaitek: eta zergatik Batzorde Nagusikoekin batera, Kardaberaz Bazkunean dauden euskaltzaindikoak bildu ez...?

Eta alaxe egitea erabaki genduan. Orregatik, eta Irailla'ren 13'an, larunbata, Loiola'n bilduko gera, Jainkoa lagun, goizeko amaiketari Batzorde Nagusikoak eta Euskaltzaindiko kardaberaztararak.

Eta au izango da billeran ibilli dezakegun gaia: kardaberaztarrok zer egin dezakegu euskeraren batasunaren alde...? Eta nola egin dezakegu lan ori...?

Egokia iruditzen bait-zaigu gai au, Batzar Nagusirako ere.

Orra zergatik deitzen dizugun, eta al-izatera beintzat ez zaiguzu utsik egin.

Iraila'ren 13 arte bada.

Zure laguna eta idazkari.

Eta eskutitz au egin nien bazkide guztiei, Iraila'ren 13'an, Loiola'n izan genduan billeraren berri-emanaz:

Bazkide ta lagun zaitudan orri, agur:

Billera bat izan genduan Loiola'n, Iraila'ren 13'an, BATZORDE NAGU-SIKOAK, eta Euskaltzaindiko zenbait kardaberaztarrak. Ez baitzuten beste batzuek etortzerik izan.

Eta ona-emen, etorritakoen izen-abizenak:

Lekuona'tar On Manuel
Garmendia'tar Juan Jose
Elosegi'tar Jesus
Berrondo'tar Pedro
Goikoetxea'tar Iñaki
Otamendi'tar Jose Mari
Labayen'dar Andoni
Arrinda'tar Anastasio
Albisu'tar Anastasio

Akesolo'tar Lino
Garmendia'tar Martin
Zatarain'darr Anbrosio
Gaztañaga'tar Jesus
Oñatibia'tar Yon
Etxaniz'tar Nemesio
Ayerbe'tar Inozenzio
Olazar'tar Martin

Gurekin izan genduan Pedro Irizar jauna ere, euskaltzaindikoa ta aditz-jokoetan maixua oso.

Madrid'en bizi danez, etzuan arutz itzuli nai, kardaberaztarrak agurtzeke, ta gurekin bota zuan egun osoa.

Idazkari bezela, Albisu'tar Anastasio'k eman zion billerari asiera, ta KARDABERAZ-4'ean agertuko diran lan guztiak aipatu zituan lenen. Ontzat eman zituzten danak.

Eta On Manuel'ek idazkariari orduan:

—Eta gaurko billera onen gaia...?

Eta idazkariak:

—Deiak dionez, Tolosa'ko BATZAR NAGUSIAN aztertu bear genduan gaia, ta batzarrik izan ez gendualako, aztertzeke gelditu zan gaia: KARDABERAZTARROK ZER EGIN DEZAKEGU EUSKERAREN BATASUNAREN ALDE...? ETA NOLA EGIN DEZAKEGU LAN ORI...?

Gai oni-buruz ba'zuan idazkariak, KARDABERAZ-4'ean argitaratzeko Akesolo'tar Lino'ren lan bat, eta lan auxe irakurri-erazi zion Akesolo berari.

Gaztañaga'tar Jesus'ek orduan, gai oni-buruz ari ziran lan bat aipatu zuan, eta, idazleen iritzia jaso nairik, egin izan zituan eskutitzak. Etziztuztela, ala ere, erantzun-geiegi jaso, ta Kardaberaz Bazkuneko idazleen laguntza nai lukeala ortarako. Eta au izan zan, eman zitzaion erantzuna: gure aldetik etzegoala eragozpenik, eta atsegin izango zitzaigula Abenduko Batzar Nagusian gai au aipatuko ba'lu berak. Eta izen-buru au ipiñi

zion Gaztañaga jaunak Batzar Nagusi ortan irakurriko duan bere lanari: IDAZKERARI-BURUZ AZTERTU-BEARRAK.

Eta onelako-gaietan Euskaltzaindiaren izena sarritan aipatzen dalako-edo, gai au artu zigun Berrondo'tar Pedro'k Batzar Nagusi bertarako: EZER UKATU AL'DIO ORAINGO EUSKALTZAINDIK, LEENGO EUSKALTZAINDIARI...?

Ala ere, etzan On Manuel orrenbestez ase, ta euskera-batasunaren lan sakon bat nai zuan: asiera-asieratik asia, ta orain-arterañokoa alegia: adar oiek eman dituan enborra, agirian ipiñiko dun lan bat.

Nork egin ordea...? Aipatu ere egin ziran gizon ospatsu batzuen izenak, baiñan lanpetuak zeudelako batzuek eta nekatuak beste batzuek, Olazar'tar Martin'ek, (Gamiz'ek), artu bear izan zuan azkenean lan au. Ta arrigarria...! Txaloka artu genduan danok bere erabakia. Ta ona, bere lan onek eramango duan izena: BATASUNARI BURUZKO KONDAIREA.

Elosegi'tar Jesus'ek bere iritzi bat irakurri zigun gero, ta Henri Gavel'en aitamen bat Zatarain'darr Anbrosio'k.

Berri guzti auek emango dizute, Gure BATZAR NAGUSIAK izango duan giroa, eta Abenduaren 27, larunbata, aukeratu genduan BATZAR NAGUSI ontarako langilleak-eta gogoan izanik. Eta Loiola'n izango degu goizeko amar t'erdietan.

Eta II BATIKANOKO euskerazleeri eskari bat: ekarri ditzatela, arren, Batzar Nagusi Ontara beren lanak, aurretik Azkoiti'ra bialtzen ez ba'dituzte noski.

Dana-dala, Abenduaren lenengotan egingo zaizu berriro BATZAR NAGUSI ONTARAKO beste dei bat.

Ordu-arte bada, bioz-biotzez...

* * *

1975'go Abenduaren 27'an bildu giñan kardaberaztarrok Loiola'n, urteko Batzar Nagusian. 54 bazkide bildu giñan.

Sei auek gaztigatu ziguten ezin-etorria.

Intza'ko Damaso aitak
Zatarain'darr Anbrosio'k
Oñatibia'tar Yon'ek

Zugazti'tar Anizeto'k
Errezola'tar Marzelino'k
Agirre'tar Zezilio'k

Idazkari bezela, Albisu'tar Anastasio'k eman zion asiera billerari, ta iru auek ikutu zituan bere jardun motzean, 1) KARDABERAZ BAZKUNA ez dala argitaraldi uts bakarrik; 2) II BATIKANOKO itzulpena zertan zegoan eta 3) Maiatzeko BATZAR NAGUSIA GERTATZEKO, on legokeala, BATZORDE NAGUSIKOAK eskualde bakoitzeko kardaberaztarrekin billera bat izatea aurretik.

Gure lendakari On Manuel Lekuona'k bere lantxoetako bat irakurri

zigan gero. Eta ona-emen bere lenengo itzak: BATASUNA TA HATXEA. "Kardaberaztarrok: Beste-batek emango digu, oso-osorik, batasunaren historia gure artean. Nik, bi pentsamen xume-xume bakarrik eskeiñiko dizkitzuet gai orri buruz".

Gaztañaga'tar Jesus'ek idazkeraren batasuna sortzeko, idazle askoen iritziak azaldu zizkigun lenegotik, eta kardaberaztarren iritzia eskatu gero.

Izen-buru au zuan Gaztañaga jaunaren lanak: IDAZKERARI BURUZ, AZTERTU-BEARREKOAK.

Berrondo'tar Pedro'k itzez esan zigan zerbait bere gaiari-buruz. Ez bait-zuan, tamalez, idazteko astirik izan, gaiak merezi ba'zuan ere...

Eta auxe zan Berrondo jaunaren gaia: EZER UKATU AL'DIO ORAINGO EUSKALTZAINDIAK, LEENGO EUSKALTZAINDIARI...?

Lan sakona ta luzea Olazar'tar Martin'ek ekarri zigan lana. 28 orrialdekoa.

On Manuel Lekuona'ren eskabideari jarraituaz ordea, bigarren zatia besterik etzigan irakurri Gamiz jaunak. Eta onela dio lan onen izen-buruak: EUSKERA BATUAREN KONDAIREA.

Elosegi'tar Jesus'ek "GOIZ-ARGI"n berak idatzitako zerbait irakurri zigan gero.

Garmendia'tar Martin'ek eman zizkigun diru gora-berak, eta Garmendia'tar Juan Jose'k beste argitaraldi batzuekin asiak zituan artu-emanak.

Eta besterik-gabe bukatu zan billera au.

Eta ona, billera ontara etorri etorri ziranak:

Manuel Lekuona
Jesus Garmendia
Anastasio Albisu
Garmendia'tar Martin
Arrinda Anes
Garmendia, Juan José
Jose Maria Otamendi
Jose Maria de Suquia
Larrañaga'tar Luis
Yurre'tar Iulen A.
Lino Akesolo
Antonio Maria Labayen
Gaztelumendi Kauldi
Miguel María Azpiroz
Rafael Artola
Fernando Artola
Fabian Loidi
Toledo'tar Nekane
Lete'tar Balbifé
Paula Alber
Asunción Iriondo

Francisco Lazkano
Larrakoetxea'tar B'k
E. Urruzola
J. de Mugica
Juan Peñagaricano
Juan Ayerbe
Alberto Begiriztain
Manuel Beraza
Jose Maria Elorza
Jesus Elosegi
Peña Xabier
Manterola'tar Gabirel
Atutxa'tar Pedro
Arteaga'tar Yon
Aita Txanton Goiria, karmeldarra
Pedro Berrondo
Goikoetxea'tar Iñaki S. I.
Joaquin Recarte
P. Jose A. Garate
Luis Maria Galarraga
Vicente Latiegui

Andoni Azkue
Martin Olazar
Juan Añibarro
Ayerbe Y.
José Antonio Retolaza
Jose Maria Baztarrica

Juan D. Eceizabarrena
Aita Onaindia
Garde'tar M.
Bakarne Erbiti
Enrike Ayerbe
Martin Arteche

* * *

1976'go Garagarrilla'ren 21'ean bildu giñan Azkoiti'n, Arrinda'tar Anastasio, Garmendia'tar Juan Jose, eta ni.

Loiola'n, 1975'go Abenduaren 27'an izan genduan Batzar Nagusiaren agiria irakurri nuan lenegotik.

Iru gauza adierazi nituan nik Batzar Nagusi artan, 1) Kardaberaz Bazkuna etzala argitaraldi uts bakarrik, ba'zala beste "zerbait" ere. 2) Zertan zegoan II BATIKANOKO itzulpena, eta 3) Batzar Nagusi bat gertatzeko, egokia litzakeala oso, BATZORDE NAGUSIKOAK eskualde bakoitzeko kardaberaztarrekin billeraren-bat edo beste izatea aurretik.

Kardaberaztarrok ordea ez genduala, Abendu'tik Maiatza'ra artu-eman txikienik izan, eta ez nuala orregatik, Maiatzeko Batzar Nagusi ortarako deirik egin.

II BATIKANOKO itzulpenari-buruz au esan nien: nere esku nituala lau edo bost lan ez, beste lan guztiak. Eta zer esan zidan ezezko-oietako batek: "superatua zegoala II Batikanoa, alegia".

Eta KARDABERAZ 5'erako ez neuzkala, aukeran, lan auek beste: Loiola'ko Batzar Nagusian nik-neronek irakurri nuan lantxoia, On Manuel Lekuona'k irakurri zuan BATASUNA TA HATXEA, eta Olazar'tar Martin'ek irakurri zuan lan eder eta sakona: EUSKERA BATUAREN KONDAIREA.

Ba'nituala, auetzaz-gaiñera, beste bi lan ere, On Manuel'ena bata REFLEXIVUM-RECIPROCIUM, eta Berrondo'tar Pedro'rena bestea ORTOGRAFIKURRAK.

Juan Jose Garmendia mintzatu zitzaigun gero, On Manuel Lekuona'ri zor diogun omenaldia dala-ta.

Garmendia jaunak zionez, lau izango dira, argitaratuko ditugun On Manuel'en liburuak:

Aozko lituraturari buruzkoa lenengoa
Etnologiari buruzkoa bigarrena
Kondairari buruzkoa irugarrena
Olerkiak laugarrena.

Oiezaz-gaiñera, beste liburu aundi bat ere gertatzen ari dala gertatzen Juan Jose bera, On Manuel'en omenaldirako. Liburu au, ordea, ez

dala On Manuel-berak idatzia izango, beste batzuek idatzia baizik. Eta ba'dituala 20 lan dagonerako.

Eta auek izango zirala, esan zigun azkenik, KARDABERAZ BILDUMAREN izenean laister argitaratuko diran liburuak, On Manuel'enaz gaiñera:

Loidi'tar Paben'en OLERKIAK
Aita Justo Mokoroa'ren ESAKERAK
Umandi'ren ELEZTIA

SIADKO'k egiten zizkigun galdera batzueri erantzun, eta BATZORDE NAGUSIKOAK Donosti'n, Uzta'ren 5'ean, billera bat egiteko asmoa artu genduan gero.

Idazkariak emango zien BATZORDE NAGUSIKOERI billera onen berri.

* * *

Azkoiti'tik, 1976'go San Juan bezperan.

Agur: Azkoiti'n bildu giñan Garagarrillaren, (Ekainaren), 21'ean, Arrinda'tar Anastasio, Garmendia'tar Juan Jose, ta irurok.

Bazkunaren egoerari aztertu bat eman ondoren, erabaki au artu genduan: Baer-bearrezkoa zala-ta, BATZORDE NAGUSIKOAK alkartu egin bear genduala Donosti'n, Uzta'ren 5'ean, astelena.

Billera au, goizeko amaika t'erdietan UHAIN aretoan izango da.

Areto au San Martin kalean dago, ta Donosti'ko Palacio de Justicia'ren aurrez-aurre.

Eta bateon-batez zionez, bat eta bakarra izango da billera ontarako gaia: Kardaberaz Bazkunak zer bide artu dezake gaur...? Ez ote litzake bide egokia "gaurko galdera guztieri" Lege Zaarretik erantzutea...? Zigorakadak dirala, sozialismoa dala, Eliza ta Laterri-arteke artu-emanak dirala, aberastasunen bakoitzaren-jabetasuna dala ta abar.

Gaiak merezi baldin ba'du, gure Bazkunaren bizitza indartsuago batek ez du gutxiago merezi, ta Uzta'ren 5 arte.

Lagunen batekin etorri naiko ba'zenduke, ez legoke inungo eragozpenik.

Biotzez.

* * *

Donosti'ko Uhain-aretoan bildu giñan 1976 - Uztailla'ren 5'ean:

On Manuel Lekuona
Akesolo'tar Lino aita
Arrinda'tar Anastasio

Zatarain'darr Ambrosio
Berrondo'tar Pedro
Garmendia'tar Juan Jose

Garmendia'tar Martin

Etzaniz'tar Nemesio

Ayerbe'tar Enrike (ETOR'ekoa au)

Artetxe'tar Martin (ETOR'ekoa au ere)

Albisu'tar Anastasio.

Etziran agertu Araba, Bizkaia ta Naparroa'ko lendakari jaunak.

Azkoiti'n, Garagarrilla'ren 21'ean, izan zuten billeraren-berri eman zigun Albisu'tar Anastasio'k. Eta antxe artu zutela BARZORDE NAGUSIKOAK, Uztailla'ren 5'ean Donosti'n bildu-erazteko erabakia ere.

SIADKO'ko galderai, Azkoiti'ko billera ortan emandako erantzunak irakurri zituan gero Garmendia'tar Juan Jose'k.

Aurtengo BATZAR NAGUSIA, noiz, nun eta nola egin bear zan, galde-tu zuan ondoren Arrinda'tar Anastasio'k. Eta erabaki au artu zan:

Urrilla'ren 25'ean egingo zala BATZAR NAGUSI ori Loiola'n, eta LEGE-ZAAR'ari-buruz gaiñera. Orregatik aukeratzen zala ere, Urrilla'ren 25.

Berrondo jaunak zionez, LEGE ZAARRAK edota FUEROAK aipatzen zirala gaurko egunean ortzetik-ortzera, ta ondo legokeala, fuero edo lege zaar oiek ondo aztertu, ta gure "gaurko kezka ematen dieten erantzunak", ikusi.

Ondo iruditu zitzaion On Manuel'eri ere, Berrondo jaunak esana, ta aurreko-egunean LA VOZ DE ESPAÑA'n, fueroeri-buruz, agertu izan ziran zerbait iritzi-oker azaldu zizkigun argi ta garbi.

LEGE ZAARRA sakonki aztertuko zuan BATZORDE ON BAT bear genduala ortarako, ta ba'zegoala, gure artean, Batzorde ori osatzeko-aña gizon prestu.

Berrondo jaunak artu zuan Batzorde ori eratzeko agindua, eta baita Batzorde ortako batek, BATZAR NAGUSIKO itzaldia egiteko agindua ere.

Liburu-gaietan asi zan gero Garmendia'tar Juan Jose. Eta liburuak-argitazeari-buruz garrantzi aundiko jardun bat izan zuan, gu guztion aurrean, ETOR'eko bi gazteekin.

Eta Garmendia'tar Martin'ek itzezin zuan azkenik. Etzeukan gauza aundirik esateko, zabalduak bait-zeuzkan ordurako, urtean zabaldu-bearreko liburuak, eta jasoak ere, urtean jaso-bearreko diru-ordainketak.

OARRA: Uztailla'ren 17'an bialdu nien agiri au Araba, Bizkaia ta Naparroa'ko lendakarieri... Baiñan...

* * *

Azkoiti'tik - 1976 - Urrilla'ren 12'an.

Agur:

Uztailla'ren 17'an egin nizun eskutitzan, Donosti'n izan genduan billera baten berri ematen nizun: billera au Uhain-aretoan izan genduan, Uzta'ren 5'ean, eta amaika lagun bildu giñan bertan.

Billera artan artutako erabakietan, au izan zan bat: Urrilla'ren 25'ean izango genduala gure BATZAR NAGUSIA Loiola'n, eta gure LEGE ZAARRA, (gure Fueroa), aztertuko genduala bertan sakon-sakon, gure gaurko Euskal-erria'ri begira.

Berrondo jaunarena izan zan asmo au, ta bere-gain artu zuan ere, gai ori ikasiko zuan batzorde bat sortzea.

Deia egiteko ordua eltzen ari zala-ta, urrutizkiñez dei-egin nion Urrilla'ren 7'an, eta Urrilla'ren amaikan bildu giñan Donosti'n. Gukin zan On Manuel ere.

Bai batek, eta bai besteak ziotenez, LEGE-ZAARRARI-buruz itz-egingo zuten izlariak, lanpetuak zeuden danak, eta etzuten egiteko ori beregain artu nai.

Oiek-danak orrela zirala, BATZAR NAGUSIA atzeratzea erabaki zan, eta billera batzuek Donosti'n sortzea bitartean. Urrilla'ren 20'ean izango da billera auetako lenengoa, Uhain-aretoan, eta goizeko amaiketean. Berrondo jaunak artu zuan billera au eratzeko agindua.

Ez dezagun aaztu ere, igazko BATZAR NAGUSIA, Abendua'ren 27'an izan genduala.

Eta besterik-gabe, biotz-biotzez.

* * *

Donosti'ko Uhain-aretoan bildu giñan Urrilla'ren 20'ean:

Lekuona'tar On Manuel	Loidi'tar Paben
Ayerbe'tar Inozenzio	Zatarain'darr Anbrozio
Berrondo'tar Pedro	Garmendia'tar Martin
Batzarrika'tar Joxe Mari	Goñi'tar Joseba
Eloseg'i'tar Jesus	Garagorri'tar Diego
Etxaniz'tar Nemesio	Otamendi'tar Joxe Mari
Errezola'tar Marzelino	Albisu'tar Anastasio
Garmendia'tar Juan "Zeleta"	

Billera au, berez, etzan elkartze bat besterik izan: beste billera bazuen asiera, alegia.

LEGE ZAARRA edo FUEROA aztertu ta sakontzea da, izan ere, Berrondo'tar Pedro'ren oraingo asmoetako bat, eta Fuero ori, Euskal-erri'ko gaurko arazoein aurrez-aurre ipintzea.

Goñi'tar Joseba'ri eman zitzaion ikasketa aukeratzeko agindua. Eta gaiari zegokion bibliografi bat eskatu zuan onek aurrenik.

LEGE-ZAARRARI-buruzko argibide batzuek irakurri zituan gero On Manuel'ek: Fueroa aztertzean, gogoan euki-bearreko gauza batzuek, ale-

gia. Jakingarriak eta bearrezkoak benetan, On Manuel'en gauza guztiak bezela.

Eloseg'i'tar Jesus mintza zan gero, ta au esan zuan gutxi gora-bera: Sebastian Insausti'k lan mamitsua zeukala egiña Gipuzkoako Fueroari buruz, eta oso-bearrezkoa iruditzen zitzaioala aren iritzia.

Eta berari eman zitzaion Sebastian'en iritzia jasotzeko agindua.

Argitaratu-berri zan "Kristau Ikasbide" bat aipatu zuan azkenik Errezola jaunak, eta euskera-aldeetik arkitzen zizkion zenbait akats azaldu.

Gaitzespen bat merezi zuala Kristau-Ikasbide-Idazkaritzakoen jokabide orrek, eta On Manuel eta Berrondo Jaunak artu zuen, kardaberaztar gutien izenean, orrelako idazki bat egiteko agindua.

Donosti'ko billera aukeratzeko Berrondo jaunak esan zigunez, illean bi aldiz izango ziran: lenengo ta irugarrengo asteazkenetan, alegia.

* * *

Azkoiti'tik. Urrilla'k, 28

Lekuona'tar On Manuel'i
Akesolo'tar Lino Aita'ri
Olazar'tar Martin'i
Ayerbe'tar Inozenzio'ri
Tolosa'tar Felipe'ri

Arrinda'tar Anastasio'ri
Garmendia'tar Juan Jose'ri
Berrondo'tar Pedro'ri
Eloseg'i'tar Jesus'i
Garmendia'tar Martin'i

Agur:

Nere eginkizuna au dala-ta, emen natorkizu berriro.

Azkoiti'n bildu giñan, Urrilla'ren 25'ean, Arrinda'tar Anastasio, Garmendia'tar Juan Jose, Eloseg'i'tar Jesus, eta ni.

Gure Bazkunaren gaurko-egoera zala-ta, asi giñan lanean. Apalki asieran eta eztabaida bizian gero, gaiak, berk, eskatzen zuanez:

- 1) Aldizkaria...
- 2) BILLERA NAGUSIA...
- 3) Idazle eskola...
- 4) Urteko ordainketak...
- 5) Diru-laguntza berri bat sortu, billatu...
- 6) Bazkideen eskubideak, biltokian gelditzen diran liburuetan eta abar...

Gai sokonegiak noski, guk, laurok, bakarrik erabakitzeko, ta aregeiago gure iritzia ez-berdina ziraneraz gero.

Bear-bearrezkoa iruditu zitzaigun bada, BATZORDE NAGUSIKOEKIN bi-

llera bat egitea, ta larunbata-goiza aukeratu genduan billera ontarako, Gamiz'entzat egunik-egokiena izango zala-ta.

Beraz, eta Jainkoa lagun, Loiola'n ikusiko gera Azaroaren 13'an, eta goizeko 11'eta.

Ordurarte, biotzez.

* * *

Loiola'n bildu giñan, Azaroak 13, BATZORDE NAGUSIKOAK. Eta auek izan giñan:

Lekuona'tar On Manuel
Garmendia'tar Juan Jose
Ayerbe'tar Inozenzio
Garmendia'tar Martin
Arrinda'tar Anastasio
Albisu'tar Anastasio

Olazar'tar Martin
Akesolo'tar Lino
Otamendi'tar Joxe Mari
Berrondo'tar Pedro
Elosegi'tar Jesus

Aldizkaria zan, (KARDABERAZ-5, alegia), ikusi-bearreko gaietako bat. Batzordeko idazkari dan Albisu'tar Anastasio'k artu zuan itza, ta KARDABERAZ-5'erako bilduak zeuzkan lanak aurkeztu, eta Arteaga'tar Lon Aita'k agindu zion beste lan baten zai-zegoala, esan zuan.

Akesolo'tar Lino'k eskeiñi zuan orduan bere lanetako bat, eta baita Naparroa'ko lendakaria dan Ayerbe'tar Inozenzio'k ere.

Eta osatu-xamarra gelditu zan orrela KARDABERAZ-5.

BATZAR NAGUSIA zan erabaki-bearreko beste gai bat: noiz, eta nun egin bear zan, alegia.

LOIOLA aukeratu zan BILLERA NAGUSI ori egiteko toki bezela, eta Abendua'ren 27, (astelena), egunik-egokiena bezela.

Eta billera ontarako gaiak aukeratzean, onela esan zigun On Manuel'ek: nai-ta-naiezkoa al'da, gure billera nagusi auetan, euskerari-buruzko gai bat erabiltzea...? Nai-ta-naiezkoa ez baldin ba'da, zergatik ez degu gure FUEROA argi ta garbi azalduko digun gizon bat ekartzen...?

Eta onela erantzun zion Arrinda'tar Anastasio'k: oraindik egun gutxi Mañarikua'rekin egoteko zoria izan nuan, eta orrelako zerbait esan nion, eta etorriko litzakeala, uste det.

Zure gain ba, erantzun zion On Manuel'ek, ortarako eman bear diran urratsak ematea.

IDAZLE ESKOLA ere aitatu zan, billerako deiak zionez. Eta au esan zuan Albisu'tar Anastasio'k: zergatik ez degu, gure artean, illean-bein bildu, ta billera ortara bakoitzak bere lantxoia eramango duan talde bat sortzen...? Ez ote genduke orrela, gure elburua obekiago beteko...?

Etzuten ordea, aurrera-bide aundirik arkitzen Albisu jaunaren esan auek, eta bertan-bera gelditu zan auzia.

Gai batek ordea, bestea dakar, eta KISTAU IKASBIDEAREN argitaldira jo genduan.

Berrondo jaunak esan zigunez, ber-bera egon zan Kristau Ikasbide Idazkaritzan, eta eskuz-esku eman zion, bertako zuzendariari, Donosti'ko azken billeran erabaki zan gaitzespen-eskutitza. Ez bait-zitzaigun egokia iruditzen euskerarekin artu zuten jokabidea.

Eta orrelakoetan aurrea-artzea obeagoa izaten zala-ta, beste au erabaki genduan orduan: zergatik ez ditugu gure buruak eskeintzen, orain gazetxoentzat, (preadolescentes), argitaratu dan KRISTAU IKASBIDEA euskeratutzeko...?

Eta bertan esan zanez, alkar-izketa oneretsu baterako gai egokia litzake au ere, Batzar Nagusian.

Eta gaiakin-bat zetorrelako-edo, au esan zigun orduan Berrondo jaunak: bukatua zuala Dorronsoro'tar Joakin'ek II BATIKANOKO AGIRI GUZTIEN EUSKERATZEA, eta, teologo baten laguntzaz, ari zala dana berriro azterkatzen.

"Batuaren" ixtori bat ere, egokia litzakeala-ta, Akesolo'tar Lino'ri eman zitzaion ixtori ori egiteko agindua.

Bi Garmendia'k itz egin zuten gero: diru-kontuak, liburu-kontuak eta abar. Eta au esan zitzaion Juan Jose'ri: an esaten ari zan guzti ura, ekarri zezela idatzirik Batzar Nagusira, bazkide guztiek jakin zezaten, gauzak merezi zuala-ta.

Elosegi'tar Jesus'ek, On Manuel'en omenaldirako bilduta zeuzkan lan askoen berri eman zigun azkenik, eta bere burua eskeiñi Bazkuna'k agindu nai zion edozer lenarako.

Eta Abendua'ren lenengo egunetan zabaldu nuan BATZAR NAGUSIRAKO DEIA.

Azkoitia'n 1976'go Abendua'n

Agur, Kardaberaz'tar maite:

BATZORDE NAGUSIKOAK, Azaroaren 13'an Loiola'n egin genduan billera batean, erabaki au artu genduan besteak-beste:

Abendua'ren 27'an izango genduala, Loiola'n bertan, urteroko BATZAR NAGUSIA. Bazkide guztien billera alegia.

Okerrik gertatzen ez dala, izen-aundiko ANDRES MAÑARIKUA izango degu billera ontako izlari, eta EUSKAL ERRIKO FUEROA izango du bere itzaldi gai.

Akesolo'tar Linok ere zerbait esango digu.

Kardaberaz Bazkunaren liburu argitaratzeaz, (adibidez On Manuel Lekuona Jauna'ren Omenaldia eta abar). Elosegitar Jesus'ek.

Kardaberaz Bazkunaren ofizinan eta bazkideen berri Garmendia'tar M. k.

Kardaberaz Bazkunaren urteko sari eta diruaren gora-berak Garmendia'tar Juan Josek.

Loiola'ko "Esclavas de Cristo Rey" etxean izango degu batzar au, ta goizeko 10'tan emango zaio asiera.

Etxe au, dakizutenez, Loiola'ko Santutegi ondoan dago, eta bertan izango degu gure bazkaria ere, arratsaldeko 2'etan.

Ez zaiguzu utsik egin, eta lagunen-bat ekarriko ba-zenduke, obe...!

Abendua'ren 27'rarte, bada.

Zuen idazkari

ALBISU'TAR ANASTASIO'K.

II

Gizonak

AKESOLO'TAR LINO AITA

Lantxo bat eskatu daust Albisu'tar Anastasio Jaunak gure Akesolo'ri buruz. Lantxoaren gaia be, andi-andika beintzat, berak aukeratu ta emon daust, zein eta zelakoa izan daiteken adierazoz. Ona emen: *Aita Akesolo'ren bizitza-gora-beerak eta beronen idaztortz-frutuak*. Lan errez samarra, asti pizkat artu al izan ezkeru. Ez daukat, ba, ezetan sakon jo bearrik, azal-azaletik ibiltea baiño. Izan be, iñoren azal-gaiña urratu ta barnerantza sartzea ez da erreza ta edonoren esku dagona; are gitxiago gure Dimostar onen kolko-barrua aztertzea. Kolko nasai orretan beti dago berak bakarrrik dakian zerbait.

Beraz, Albisu Jaunak emondako gatari lotuko naiako soil-soilik eta oso-osoan.

AITA AKESOLO'REN BIZITZA-GORA-BEERAK

1911-21.—Bizkaia'n, Arratia'ko Dima'n jaiu zan Aita Akesolo 1911-IV-7'an. Oba deritxon auzunean, ain zuzen be Akesolo baserrian. Egun berean izan zan bateatua Lino izenagaz. Gurasoak: Antonio Akesolo Bikarregi, eta Praxedes Olibares Intxaurbe. Urte bi ebazala artu eban Sendotzako sakramentua (1913-VIII-26), eta zazpi urte doi-doigaz ospatu Lenengo Jaunartzea (1918-V-15).

Eskola bat egoan garai atan Oba'n auzuneak bere kontura, bere lan eta txindiz jaso ta bere ardurapean eukana. Aretu eder bat eban neska-mutikoentzat eta bizi-toki egokiak maisuarentzat. Gaur egun auzuneko taberna biurtuta dago, uda ta mendi zaleak oso maite dabela. Ortze egin ebazan Lino mutikoak lenengo ikasketak, lau urtetik bederatzi urte bitartean. *OtamOtza* ez-izenez ezagutzen eben maisuaren zigorpean. Beste urte betean eskola bereizia izan eban Donato Emaldi'koaren ardurapean. Donato au Argentina'n il zan, erbestetuta, maisutzan ospe ta izen ederra utzirik.

1921-26.—Amar urtegar Zornotza'ko Larrea'ra doa, karmeldarrak an eben ikastetxera, bera be karmeldar izateko asmoz. Ikastetxe ori *Larrea* abizeneko jauntxoan jauregia izandakoa zan, jauregi zabal, eder ta bikaiña, goitik beera zeato arlanduz egiña. Larrea'ko eleiza txukun dotorea, au be arlanduzkoa ta iñoiz, panparroikeriz, *Bizkaiko Escorial* deituraz ezagutua, jauregi orren kapilla zan. Gaur egun jauregiaren lorratz batzuk baiño ez dira agiri; 1936 garrengo gerratean erre zan. An dagoz oraindiño armari ederra ta baratzeko burdiña-esiak. Jauregi-ikastetxe aretan egin ebazan

Akesolo'k Bigarren Maillako ikasketak. Antxe asi zan euskerea landuten be. Biotz-barruan daroa arrezkero orduan sortutako zaletasun beroa.

1926-27.—Larrea'n bertan, eleizeari dautsola, aurkitzen dan lekaretxean karmeldar soñekoa jantzi (1926-VIII-10) ta nobiziadua egin eban. Eta urrengo urtean Profesa-txikia Karmen'go Amaren oiñetan (1927-VIII-14). Orduan, gazte-loratan emondako itzari ez dautso ukorik egin; uko egiteko tentaziñorik izan dauanik be ez dot uste, arraiña uretan lez aurkitzen dala emoten dau beti-ta; ez txoria kaiolan lez.

1927-35.—Larrea'tik Markiña'ra doa, Bigarren Maillako ikasketak sakanogotu ta Filosofiarako gertatzen. Urte beteko zeregin errez eta gozoa. Emen asi zan gure klasiku zarrak autsak astintzen. Markiña'tik Gazteiz'era. Ango karmeldarren lekaretxe-ikastetxean ikasten dauz Filosofia ta onen inguruko beste gaiak, Eleiz-araudiak aginduta eukazanak. Eta gero Begoña'ko karmeldarren ikastetxera, Teologia ta onen inguruko gaien jabe egitera. Bitartean Profesa-nagusia (1933-IX-21); eta Teologiako irugarren ikastaroa amaitu ondoren, orduko oitureari jarraituz, Mezako egiten da Plazido A. Rey Lemos, Pelusia'ko Gongotzai prantziskotarraren eskuetan (1934-VII-8). Akesolo'gaz batera beste amaika euskal-karmeldar gazte izan ziran Mezakotuak, bere ikaslagunak Larrea'n asita; euron artean Aita Santi Onaindia. Mezdun dirala amaitzen dabe, beraz, Teologiaren laugarren urtea. Eta or bukatzen dira Aita Akesolo'ren ikaste *ofizialak*.

Ikusten danez, Aita Akesolo ez da emengo ta angoo Unibersidadeak zear ibilli. Dakiana, asko edo gitxi, beste edozein eleiz-gizonek jakin dagikena da Eskerrak adimen argi zorrotzez eta oroimen arrigarritz ornidu ebalu Jaunak, eta berak oparo erantzun dautsela doai orrei. Mutiko-mutikotatik izan dau ikasteko gogo ta leia bizia. Beti ikusiko dozu, edo liburu artean, edo libururen bat eskuetan dauala ta beste bat edo bi kolkoan. Eten gabe irakurten eta ikasten, berak beretzat, urteak zear, asmatu-riko metodoakaz. Bere bide ta bide-txiorrak ditu orretan be.

Beste geienontzat ikusgarri ta interesgarri diran gauza askoren ondoritik jaramon andirik egin gabe jcango da aurrera, baiña ez ondo konturatu gabe. Iñongo bazterren baten, barriz, liburu edo antzekoren bat jaus-ten ba'jako begipean, ezin aurrera egin. Bertan geldituko da, begiak liburu-ruan josita; eta, al dala, ez da aldenduko zirritxoren batzuk egin barik, atz lodiari txu egiñaz.

1935-36.—Ikasketak bukatu ta bereala Zornotza'ko Ikastetxerako izen-datzen dabe Nagusiak, Ordenarako gertatzen ari diran mutikoen irakasle; ta laster KARMEN'go ARGIA'ren zuzendari. Geroago Bilbo'ko epaitegian arri-tuta ta irri-barreka entzungo ebanek "hasta el mismo título tiene separa-tista" aldizkari orrek. Bai pekatu larria! Ez eban luzaro iraun aldizkari begiko aren zuzendaritzan, laster sortu bait-zan zorigaitzoko gudate kal-tegarria.

1936-37.—Eusko gudarien Teniente Kapellau *Ixtasalde* batalloian, *Matxin* taldean. Bide luze, garratz eta kezatsua Otxandio'n *aitiarenka* asi ta Legutiano, Orduña, Lekeitio, Matxitxako ta Lezama-Baranbio zear ekin ta ekin, su-ta-ke, azken baten Santo Domingo'n *amen* esan bitartekoa.

1937-40.—Iru urteko atsedenaldiruz luze luze kerizpetan Lenengo Begoña'ko Karmelo'n, espetxe biurtuan, eta gero, Nanclares'en eta Venta de Baños'en egotaldiruz luze luze laburtxoak egin ondoren, Andaluzia'ko Carmona'n. An bildu ebezan gure Cruzada Españolako katoliku garbiak praille-abade mor-do aundi bat, Besteiro jauna taldeko ebela. Aita Akesolo'k ez eban atsedenaldiruz luze luze alperrik galdu; leenago ikasitako prantzera sakonduaz gaiñera, inglanderaren eta alemaneraren jabe egin zan.

1940-41.—Carmona'ri agur egiñik, karmeldarrak Hoz de Anero'n (Santander) daben Eremu Santura baztartzan da urte beterako; otoi-tza, lana ta ixiltasuna nagusi diran lekaretxe bakarti ta baketsura.

1941-48.—Zazpi urtean, kabitik utxatutako txoria lez, ara-onaka dabil Iruña, Zornotza, Corella ta El Soto Iruz (Santander) aldetik. Emen Puente Viesgo'ko txauburu izendatzen dabe ta lan orretan diardu 1945'-etik 1948'ra.

1948-69.—Azken baten, Gazteiz'en egotaldiruz luze luze labur bat egiñik, Begoña'ko Karmelo'ra doa. Auxe dau, antza, txori onek bere kabia. Teologia-ikasleen irakasle izendatu dabe. Gogoko ra atsegin jakon lan orretan irau-ngo dau urrengo ogetabat urtean, 1969'garrengo ikastaroa amaitu arte. Gien-bat irakatsi ebezan gaiak: Eleiz-kondaira, Karmeldar-kondaira, Patrologia ta Misiologia. Bitartean, 1966'an, Karmeldarren Euskal Probintziako Aol-kulari izan zan aukeratua, Begoña'ko irakasletza utzi gabe.

1969-75.—Donostia'ko karmeldarren Nagusi, ta gero Markiña'koena. Iruna urte konbentu bakotxean.

Markiña'ko Nagusitza amaitu ondoren, bere kabira jotzen dau barriro, Begoña'ra, bertako lekaretxe barrian Euskal Liburutegi eder bat osotzeko asmoz. Orretan diardu jo-ta-ke, beste zeregin eta lan askoren artean. Aspalditik, gaztetatik ekin dautso erdi-galduta ta baztertuta aurkitzen ebezan liburu, liburuxka tabar bildu ta maitekiro gorde ta zaintzen. Orra liburu-tegi orren oiñarri baliotsu bat.

Euskaltzaindiko dogu aspalditik. Euskaltzain Oso egin eben 1963'gar-renean. Baiña gure izkuntza zainduta beartuta dagon erakunde nagusi orren jokabidea ez eban argi ta begi onez ikusten, eta Euskaltzain Oso iza-teari uko egiñik, urrengo maillara jatzi zan, urgazle izatera. Euskal-Liturgi Batzordekoa be ba-da. Batzorde ori 1964'an sortu zanetik ona. Askoo zor-dutso Euskal-erriko Eleizeak Batzorde oni.

AITA AKESOLO'REN IDAZ-LANAK

Berez ugaritasun zale izan ez arren, asko idatzi dau Aita Akesolo'k, bai euskeraz eta bai gazteleraz. Geiagoko barik ez dau ezer idatziko; jakingarri ta esan bearreko zerbait daukanean baiño. Naiago dau, bestela, ixilik egon eta besteai entzun eta besteakandik ikasi. Sarritan, zoritxarrez, berak dakiana, besteak be ba-dakiela uste izan oi dau, ta or dago untzea!

Albisu Jaunak eskatutakoari jaramon egiñik, aitatu bakarrik egingo dodaz Akesolo'ren idaztortzak emon dauskuzan idazlan jakingarrienak, erderazkoak eta euskerazkoak.

GAZTELERAZKOAK

1.—MISAL PROPIO DE LA ORDEN PARA LAS MISIONERAS CARMELITAS DESCALZAS. Lan onek argitaldi bi izan ditu: lenengoa Iruña'n, 1944'garreanean, eta bestea urte batzuk geroago Barcelona'n.

2.—LA IGLESIA Y EL PECADOR. LA PENITENCIA. Prantzeraz alkar-lanean egindakoaren itzulpena, 1953.

Au ta urrengo zazpi itzulpenak Donostia'ko Editorial Dinor, Colección Prisma'n atera ziran.

3.—EL MAESTRO LLAMA. EXPLICACION DE LA MORAL CATOLICA PARA LAICOS. Alemaneratik itzulia. Egillea, Fritz Tillmann. 1956.

4.—EL SECRETO DE LOS MONJES. Alemaneratik itzulia. Egillea, Walter Nigg. 1956.

5.—HISTORIA DE LA IGLESIA DE CRISTO NARRADA AL PUEBLO CATOLICO. Alemaneratik itzulia. Egillea, J. Shuk. 1957.

6.—LA CIENCIA DE LA CRUZ. ESTUDIO SOBRE SAN JUAN DE LA CRUZ. Alemaneratik itzulia. Egillea, Edith Stein. 1959.

7.—ELEMENTOS DE LA MORAL CATOLICA. Alemaneratik itzulia. Egillea, Fritz Tillmann 1959.

8.—YO ESCOGI EL CLAUSTRO. Ingländeratik alkar-lanean itzulia. Egillea, Rosemary Howard-Bennet.

9.—CRITERIOS CATOLICOS. Alemaneratik itzulia. Egillea, Erich Przywara, S. J. 1962.

Onez gaiñera, Akesolo'ren izena edo ez-izenen bat sarri agertu da urrengo aldizkari oneitan: El Carmen (Iruña), Revista de Espiritualidad (Madrid), Egan (Donostia), Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País (Donostia), Sancho El Sabio (Gazteiz)...

EUSKAL KLASIKUAK

Esan dogunez, oso gazte, amazapi urte ebazala asi zan Markiña'n gure klasiku zarrak irakurten eta oarrak jasoten. Arrezkero ez ditu baztertu. Gitxi izango dira, beraz, gaur-egun Akesolo'k aiña ezagutzen dituenak. Ba-dau gai onetan lan jakingarri ta baliotsurik. Ona emen batzuk:

1.—Bernat D'Echepare'ren LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE gaztelera-ira itzulia. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1966.

2.—Bernat D'Echepare'ren olerkien argitalpen barria, gaztelerazko itzulpenaz eta idazkerea gaurkoturik. Ediciones Edili. San Sebastián, 1968.

3.—Joannes Etcheberri'ren NOELAK ETA KANTA ESPIRITUAL BERRIAK. Testu zarra berrikusia, sarrera ta oarrak. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia, 1970.

4.—Duvoisin'en BIBLE SAINDUA'ri sarrera. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1969.

5.—Azkue Jaunaren DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES'AREN GEI-GARRIA edo SUPLEMENTO. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1969.

Aipagarriak doguz erderaz idatzitako beste lanok be:

A.—BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS'en: 1) José Pablo de Ulibarri Galindez (1962); 2) Algo más sobre el escritor Ulibarri (1962); 3) Una obra vasca ignorada: "Erle gobernatzaileen guidariya" (1964); 4) Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas (1965); 5) Pedro de Madariaga, calígrafo y vascófilo (1966); 6) Azkue y Barrutia (1966); 7) Un diccionario vasco en "Mémoires de la Langue Celtique" de Bullet (1967); 8) Aclarando: la H aspirada en Oiñenart (1968); 9) Fr. Bartolomé de Sta. Teresa y su PLAUTO BASCONGADO (1968); 10) La versión musical del GERNIKAKO ARBOLA es la primitiva? (1969)...

B.—BOLETIN DE LA INSTITUCION "SANCHO EL SABIO"n: 1) Escritor vasco y gran campeón en la lucha por su lengua vernácula: El alavés José Pablo de Ulibarri y Galindez (1969); 2) El Padre Cardaveraz en Alava (1972)...

EUSKERAZ

Gazteleraz txairo ta giartsu jokatzen ba'daki, are geiago ama-min-tzoan, ariman eta odolean daroa-ta. Orretan maisu dogula autortu bear, maisukeri bako maisua. Euskereak ez dau zoko ezkuturik Aita Akesolo'rentzat. Idazten dauana xalo ta errez, biurrikeri barik, argi ta garbi idatziko dau, gaurko ainbaten moda ta mordillokeria jaramonik egin gabe,

euskera jatorrean, ango ta emengo erdereak premiña barik kutsutu ba-koan. Onetan gure klasikuak eurak be pekatari dira, ta ez ditu oso-osoan ontzat eta eredutzat artuko. Euskera jator eta errezean esan al dana, ez dago erdal-kutsuz esan bearrik. Obe erri-bidea, populu-bidea baiño.

Ona emen Aita Akesolo'ren euskerazko lan batzuk:

- 1.—TERESA DEUNAREN CAMINO DE PERFECCION euskerara ON-BIDEA izenagaz itzulia. Gráficas Ellacuria. Bilbao, 1963. Aita Onaindia'gaz alkar-lanean itzulitako liburu au, naiz ta 1963'garrenean argitaratua izan, itzulia euken Begoña'n Teologia-ikasle ziranetik Geigarritz, Teresa'ren BIOTZ-OIUAU, OLERKIAK eta ESANAK dakarz.
- 2.—IPIÑA TA IPIÑA'TARREN BARRI. Arratia'ko bizkaieraz. Verdes-Atxirika. Bilbao, 1958.
- 3.—JOSE PAULO ULIBARRI, EUSKAL-ESNATZAILLE TA EUSKAL-IDAZLE. Olerti, 1962.
- 4.—SALMOAK. Iratzeder'en lana bizkaieraz eta bertsoan. Gráficas Bilbao, 1964.
- 5.—JO! EUSKERAZ NOLA IKASI. Mikel Arrutza'gaz alkar-lanean egin-dako liburutxo. Bruño idaztiak. Bilbao, 1966.
- 6.—BERTSOLARITZA PERNANDO AMEZKETARREN GARAIAN. Egan. 1969.
- 7.—AZKUE EUSKALTZALE. Lekeitio'n Azkue zanaren omenaldian irakurrirako itzaldia, 1964.VIII-8. Egan, 1969.
- 8.—JOANNES LEIZARRAGA, TESTAMENTU BERRIAREN LENENGO EUSKERATZAILLEA. Jaunaren Deia, 1970.
- 9.—PROTESTANTEEN EUSKERAZKO BIBLI-ITZULPENAK. Jaunaren Deia, 1971.
- 10.—KATOLIKUEN EUSKERAZKO BIBLI-LTZULPENAK. Jaunaren Deia, 1971.
- 11.—MENDE ONTAKO GURE BIBLI-ITZULPENAK. Jaunaren Deia, 1972.
- 12.—ANDRA MARIA EUSKAL-LITERATURAN. Jaunaren Deia, 1973.
- 13.—OTOITZA EUSKAL-LITERATURAN. Jaunaren Deia, 1975.
- 14.—DICCIONARIO DE AUTORIDADES. Izen onegaz Retana jaunak ba-teatu ta La Gran Enciclopedia Vasca argitaltzen ari dan idazti mardula, gutziz amar bat tomo izango dituana. Liburu eder au Manuel de la Sota Aburto'gaz alkar-lanean egiña da. Iztegi onek itz bakotxa euskal-idazleen esaceretan oiñarriturik dakar. Beronek irabazi eban "IV PREMIO BASAURI DE ESTUDIOS VASCOS" saria, 100.000 lko.

Basauri'ko sari onek, Akesolo'k irabazitako beste saritxo bat dakarsku gogora, Gazteiz'en Filosofia-ikasle zala irabazitakoa. EUSKAL-ESNALEA al-dizkariak urtero egiten ebazan sariketak. 1930'garren urtean antolatuta-koaren gai bat auxe zan: *Cervantes'en irakurgairen bat euskeratu*. Beste askotxoren artean Akesolo eta Onaindia gazteak aurkeztu ziran, bakotxa bere itzulpenagaz; Akesolo *El viejo celoso = Agure kezkatia* gaz, eta Onain-

dia *La gitanilla = Neskatx ijitoa* gaz. Biak jaso eben saria, sari bardiña: 100 lko. Sari polita emeretzi urteko mutikoarentzat.

Esku-artu eban Akesolo'k idaz-itzaldi bategaz Joannes Leizarraga'ri Beskoitze'n egindako omenaldian. Baita Gazteiz'en Araba'ko Euskal-idaz-leai egindakoan be, ta geroago, 1975'ean Okendo'n Ulibarri'ren omenez ospatutakoan.

Aitatutako idaz-lanez gaiñera, beste asko daukoz, batez be aldizka-riotan: Jesus'en Biotzaren Deia, Karmen'go Argia, Euzko-gogoa, El Dia-rio Vasco, Zeruko Argia, Anaitasuna, Goiz-Argi, Agur, Kardaberaz... Lan askotan ez dau benetako izenik erabilten, ez-izenen bat baiño. Ona geien erabilitakoak: Axmutil, Basabil, Amuxalde, Non-zebarri, Berrikari, Al-bistari, Andoni Zubero, Ugarios'ko Txoria...

Akesolo'ren lana iru itzez epaitzekotan, oneixek aukeratuko neukez nik: sakona, zorrotza, argia.

* * *

Albisu Jaunaren aginduz egin dodan lantxo au bukatu baiño len, zillegi bekit anekdota antzeko jazoera baten barri emotea. Akesolo ta biok, alkar ezagutu baiño ogetaka urte leenago, alkarri lotuta gagoz; ain zuzen be *txakur-izenez* lotuta. Biok daroagu *txakur-izena*, bata-besteari bestearen amak ezarrita Dimostarrak ziran ama biok, auzune berekoak eta txiki-txiki-tatik adizkide miñak. Ezkonduta laster Mañari'ra aldatu zan nirea, ta an berotu ta jaso eban bere kabitxo, gaiñezka egin arte. Zortzigarren ume au jao ta egun gitxi buru, Durango'rako azoka-bidean topo egin eben ama biak, aspalditik oiturea ebenez. Eta:

—“Zorionak, Erramona! Beste seme bat izan dozula entzun dot. Egia da?” —“Bai”. —“Eta ze izen ifini dausozu?”. —“Lon”. —“Lon? Txakur-izena”. Ori gora-beera, betiko adizkidetasun ederrean jarraitu eben mer-katuraiño, barriketan. Baiña egundo txakur-zale izan ez zan Erramona'k egun berean tototxu bat etxera ekarri ta izena Praxedes'en sei urteko mu-tikoarena ezarri eutson: *Lino*.

Egia esan, Akesolo'k ba-daki zaunka ederrik egiten, premiña danean.

ARTEAGA'TAR LON.

Markiña, 1976.

III

Euskera

BATASUNA ETA HATXEA

Kardaberaztarrok:

Beste batek emango digu gaur, oso-osorik, batasunaren Historia gure artean.

Nik, bi pentsamen xume-xume bakarrik eskeiñiko dizkitzutet, gai orri buruz.

* * *

Lenengo-lenengo, batasuna Euskera errexteko asmatu zala; asmo ori genduala, arazo ortan sartu giñanok: Euskera ikasi nai duanari, lana errexte.

Orra bada: errexte bearrean, zaildu egin digutela batzuren-batzuek; asma diteken zailtasunik aundiena asmatu digutela ortarako: mundu guztian, erderatan ere nazkarik aundienetako bat ematen duana: H.

* * *

Bigarren: Euskera ez dala, bere baitan datzan gauaz bat; Euskera euskaldunen baita datzala, euskaldunen aotan; eta ez dala iñor Euskera-rekin, berak nai duana egin dezakeanik, Euskerarekin agintzen duanik: ez iñor-iñortxorik, ez iñungo Batzarrik. Ederki esan bait zuan, bere orduan, Mitxelena Jaunak, Euskaltzaindia bera ere ez dala iñor, H Euskerari ezartzeko, H'aren txalma, naita-ez, *derrior* euskaldunai ezartzeko; (kontseillatu, bai; ezarri, ez).

Ala ere, ba dakigu zer gertatu dan H'rekin. Txalma ori norbaitzuek euskaldun guztiei, *derriorrean*, "dogmatice", bizkarrean ipiñi nai digutela.

Pasadizu onek, Antziñako Testamentuko pasadizu gogoangarri bat dakarkit neri gaur gogora.

* * *

Salomon Erregearen egunetan, Ixrael dana bat zan, ba zuan batasun. Bañan il zan Salomon, eta, munduan beste askotan bezela bere bizkarrean zergarik asko zeramakian erriak, ildako Erregearen semearengana joan, eta, aitaren egunetako zerga astunak arintzeko eskatu zioten. Roboan semeak —zer erantzungo? ta ba dakizute zer erantzun zien, bere gazte-lagunen kontseilluz, ain zuzen: aitak uztarri astuna ezarri bazien-ta, berak

astunagoa ezarriko ziela. Leengo zama arindu bearrean, astunagotu— besteak esan zuana: "Iru mando izan, eta lau karga".

* * *

Guri ere, zenbaiten egitez, gauza bera gertatu zaigu —eta gazteen kontzeilluz gertatu ere—: leen Euskerak bere baitan naiko karga izan, eta karga arindu bearrean, leen baño geiago kargatu. Gipuzkoa'ko ta Bizkaï'ko Euskera ikasteko naiko zail eta gaitz izan, eta, zailtasuna kendu bearrean, zailtasun berriak ezarri... Zertarako, ordea? ta batasuna egiteko. Bañan —eta ain zuzen— zer gertatu da? Gertatu bear zuana: "Batasuna" egin bearrean, "Bitasuna" egin zaigula... Salomon'en Erreinuan gertatu zan gauza bera: leen Erreinu bat zan lekuan, bi Erreinu egin: Ixrael eta Juda; eta nolako elkarrentzako aserre ta etsaigoz mozkortuak biak?

* * *

Izan ere, gauzak ola gerta oi dira. "Iru mando izan, eta lau karga? Artutako lekuan bertan deskarga". Leen batasun zerbait izan, eta, nik ez dakit zer geiago nai? Bitasuna orain... Salomon'en egunetan bezela.

* * *

Bañan galdera bat: —Noren erruz? noren kulpaz? zein izan da emen, erria geiegi zamatu duan Roboan? Zein, mandoa geiegi kargatu duana? zein, gure artean bitasuna —bitasun asarrea— ekarri duana?

Erantzuna ez bait det uste, duda-mudakoa danik.

LEKUONA ZAARRAK.

EUSKERA BATUAREN KONDAIREA

I.—BATURANTZA BEREZ

1.1. *Euskaldunak, enda-bidez eta izkuntza-legez, banatuak.*

Geure begien aurrean daukagun gauzea da, iñork ezin legeke ukatu: Euskaldunak beti egon gara banatuta eta gaur be banatuta gagoz.

Enda-bidez lenengo. Zustrai-zustraiian enda edo erraza bat gara eta gaurko munduan enda bakarra izan be. Ori ondo ta errez baiezten dabe enda-iztizaleak eta UNESCO berak be. argi ta garbi esan dau.

Bañia enda bakar onek ba ditu bere barruan adar bereziak. Gogoratu dagiguzan autrigoiak sartaldean, karistioak Nerbion-ibaitik Deba ibaira bitartean, barduloak Deba-ibaitik Urumea'ra, baskoiak, erdi zelta ziran Errioxa-aldeko beroiak. Euskaldunak izan arren eta enda bakar bat osotu arren, ba eukezan euren berezitasunak.

Eta izkuntzan be bai. Gaur bertan be, orduan karistioak ziran tokietan bizkaiera egiten da; naiz ta Bergara'n, Arrasate'n, Aramaiona'n eta olako tokietan gipuzkoerea sartu izan, goitiko indarrez. Eta orduan barduloak ziran tokietan gipuzkoerea ta Baskoiak ziran lekuan, naparrera.

Nondik sortu ete da euskereak daukan banatze au? Lenengo euskerea, bakarra izan ete zan eta gero euskalkiak alkarrengandik urrindu? Ala lenengo euskerak bat baño geiago ete ziran eta gero alkarrengana urreratu?

Gauza gaitxa, itaun onei erantzutea. Bañia esan dagigun zerbait.

Euskerea, gaur lez izkuntza dala, amar bat milla urte dirala esan geinke. Olako zerbait diñoe izkuntzalariak izkuntzai buruz Gizonak leizetatik urten eta artzaintzea asi zan aldi ingurukoa da ba, euskera egiña edo osotua.

Bañia ordurako, beste ogei ta amar edo berrogei bat milla urtean, gitxienez, gizonak ba ekian itz batzuk esaten. Millak urte askotan egosia da gure izkuntzearen edertasuna.

Gure Jose Migel Barandiaran'ek esaten dauana kontuan arturik, euskaldunak bertan egiñak garala, ez iñondik etorriak, uste dogu. Eta ori orrelan izanik, eta Euskalerrri osoan leiza asko eta alkarrengandik urrin izan dirala aitzu barik, euskerak sor-leku asko izan dituala eta jaiotzatik gaur arte batasun bidean aurrera doala uste dot.

Lenengo, itzen izenak asmau zituan Cro-magnon gizonak, eta alkarragaz zituen artu-emonetan, izen orreik alkarrari emon eutsoezan. Geroago aditza asmau eban eta alkarragazko artu-emonetan, aditz ori alkarrari erakutsi ta irakutsi. Aditzagaz batera, joskerea be alkarrari irakatsiko

eutsoen. Eta, jakiña, alkarragaz artu-emonik geien euken taldeak, batasun aundiagoa egiten eben. Orra or euskalkiak. Orra or, euskalkiak banatzen dituanak, ibaiak zergaitik diran. Eta menditzar aundiak be bai. Eritxi au, oso-osoan baiezuko dala uste dot, euskalkien lur-irudi edo mapa jator bat egiten danean.

Nire ustez ba, euskerea, asieratik banatua, bere kondaira guztian baturantza joan da.

1.2. *Alkar ezagutzea, euskera baturako bide luzea.—Gaurko erreztasunak.*

Euskaldunak ez dira iñoz bat izan, esan dogu. Izan be euskaldunak bakoitxaren nortasuna dau lenengo gauzea. Sendia urrengoa. Ibarra urrengoa. Eskualdea urrengoa. Eta ortik gorako batasunera ez dau iñoz jo. Naparroa'ko Santso III'aren aldiaren genduan euskaldunak, eta orduantxe baiño ez, agintari bakar bat. Eta orduko batasuna be ez zan errikoa, noriki batengan sortua baiño. Gaiñera beste erri batzuk ziran gugaz alkartuta.

Eta zein da euskaldunentzat, bai izkuntzan, baita politikan be, batasunerako bidea?

Neure ustez, izkuntzan beintzat, antxiñako asaba zarrak artu ebena bera: alkar ezagutzea, alkarragaz doguzan artu-emonak.

Bide au luzea dala eta orrelan euskerea batu baiño lenago il egingo dala esaten dabe gaur batzuk.

Baiña ez dagigun aitzu kondairearen ariñeketea zelan izaten dan: Gizonak, azkenengo 50 urtetan lortu dauan aurrerapena, lenagoko eundak milla urteetan lortu zana baiño askoz aundiagoa da.

Batasun-bide onetan be, orain arte astiro ibilli ba'gara, gaur ariñeketa izugarri bat sortu da.

Zergaitik?

Ez iru edo lau gizonak arin egin bear dogula esan dabelako, euskaldunen arteko artu-emonak orretara beartu gaituelako baiño.

Gaur alkar ezagutzeko daukaguzan erreztasunak eta alkarragaz doguzan artuemonak, sinistu eziñeko bestean ugaritu dira, batez be antxiñako aldiakaz bardintzen ba'doguz.

Konturatu dagiguzan batzuk, izenez baiño ez ba'da be: lanak dauken alkarren bear-izana, saldu-erosien zabaltasuna, ibiltaritzza edo turismoaren indarra, liburuen zabalketa, aldizkarien izkuntza batzea, urrutizkiña edo telefonoa, egazkiñak, trenak, berebillak, eskutitzak bialtzeko erreztasuna, ainbeste ugaritu diran batzarrak... Baiña azkenengoa, ondo pozgarria, goratzearren, urrutikuskiñak (RTVE) euskeraz egiten dauan ekiñaldia.

Ba daukaguz ba zioak, eta ondo indartsuak, gure eritxia oiñarritzeko: Euskeraren batasuna, mendi gaillurretik bera zetorren edur-billa lakoa da: urteetan, mendi-gaillurretik ur, txikia ta astiro etorrena, baiña gaur aundia egin jaku edur-bil ori eta abiada izugarrian dator goitik bera. Gero,

beste edur-moltsoak urtu edo zuloetan gelditu egingo dira, eta Erriak kondaira luzean sortu dauan euskera bakarra izango da euskera batua.

1.3. *Euskera idatzia, euskera baturako bidea: Etxepare ta Leizarraga'ren euskerea baturantza doa.*

Gizonak izkuntzea asmatu ebanean, asmapen aundia egin eban. Esan dogun lez, eundak milla urteak bear izan zituan orretarako.

Baiña asmabide orretan, bigarren urratsa edo oinkadea be, ez zan makala izan: idazten ikastea.

Izkuntzea ondo beragatu ebanean, naikoa laster ikasi ei eban gizonak idazten: lenengo, irudiakaz edo jeroglifikoak egiñaz, gero irudi orreik abstraktoago edo utsagoak egiñaz, eta azkenez, ikurren bidez itzak ezarriaz idazkera ideografikoa lortu eban.

Fenizioak izan ziran Europa guztiari idazten irakatsi eutsoenak. Eurak be nondik edo andik ikasia izango eben trebetasun ori.

Baiña zori txarrez, euskaldunak ez eben artu-emonik izan gizon zur orreikaz, edo izan ba'ebezan be, oso laburrak.

Gaur arte dakigunez, euskaldunak ez gendun ikasi idazten oso berandura arte eta beranduan be, besteen idazkerea artu genduan: Erroma'tarrena eta Grezia'tarrena, guk baiño lenago inguruko erdeldunak artu ebena bera.

Baiña, berandu baiño ez ba'da be, ikasi genduan. Ez aitzu Naparroa'ko erregeak, Gaztela ta Aragoe'koak baiño lenago ikasi ebela euren edestiak erromantzez idazten. Euskeraz idazterik ez jaken bururatu.

Urrin gengozan trebetasun au geuganatzeko. Baiña, egun zoragarri baten, euskaldun azkar bateri, liburu bat euskeraz idaztea bururatu jakon. Etxepare zan gizon jator au, eta "Linguae Vasconum Primitiae" bere liburu.

1545'garren urtea zan liburu ori idatzi zanean.

Orduan liburuak oso gitxi zabaltzen ziran, baiña, geroago ta zabalago izango dan batasunerako bide eder bat zabaldu euskun gure Etxepare trebeak.

Leizarraga izan zan urrengo idazlea. Protestantea berau. Eta, protestanteen Biblia-zaletasuna ain aundia zan ezkeru, Itun Barria euskeratu euskun, erregiñearen aginduz.

Idazleak ez dau geienetan erriko izkuntzea errikoa dan lez artzen, beti alegintzen da, garbiago, apaiñago, jatorrago itz egiten. Eta ori bai ba dala baturantza jotea.

Gaiñera idazten dauanak, askontzat idazten dau, ez talde txiki barentzat. Orregaitik bere erriko ta inguruetako esakerak eta itzak batzen alegintzen da. Idazteak baturantza bultzatuten gaitu.

Eta ez antxiña bakarrik, gaur be bai. Zer egin dabe "Kosmos" en itzultzaileak? Euskerea osotu. Zer egin dau Aita Santi Onaindia'k bere

Euskal Literatura'n? Euskera zabal eta euskalerrri guztirako balio al dauan euskera jatorra erabili. Ezin ukatu: idazteak baturantza bultzatu gaitu kondaira guztian eta bide orretara garoaz gaur be. Etxepare ta Leizarraga doguz ba batuaren bultzagiñak gai onetan, eta euren urratsai jarraitzen dautsegu idazten alegintzen garanok; guztiok diardugu batua egiten.

1.4. *Axular'en euskereak jo eban baturantza, baiña gaurko batua izateko bera ez da gai.*

Idazle zarren artean garrantzirik geien daukana eta geien irakurria izan dana bear ba'da, axular'en GERO dogu. x

GERO baturantza emon zan oinkada aundi bat izan zan.

Axular'ek be beste idazleak izaten eben arazoa bera izan eban: Zein euskalkitan idatzi? Zelan geienak irakurriko dabe liburua?

Berak, gaiñerà, bere jaioterria dauan lekuan daualako, euskalki bat baiño geiago ezagutzeko erea izan eban, eta, jakifia, bere liburuan baturantza jo eban.

Gaur, baten batzuk ba diño axe euskerea artu bear litzakela eredu lez eta aregan batasuna egin Italia'tarrak Dante'gan egin eben lez eta Lutero'n izkuntzea alemanak artu eben antzera.

Baiña, gure izkuntzearen kondaireari begiratu ezker, atzerakuntza bat izango litzake ori. Axular'ek egin ebana baiño asko batu ohea egiteko giroan gagoz gaur, esango doguzanak argituko daben lez.

1.5. *Inguruko izkuntzen indar banatzailea.*

Izkuntzak alkarren artean asko nastatuten dirala, ez dau inok ukatzen. Eta nastatze au berbaz eta idatziz egiten da.

Eta orrelan, euskereak batzeko daukan bidea bera, sakabanatzeko bide burtzen da. Euskaldunak dituen alkar artu-emonak, batzeko bide dira, baiña erdeldunak dituenak sakabanatzerako erreztasuna dakarre.

Euskereak artu zituan zeltakandik berba batzuk, baiña oso gitxi ziran eta ortik ez zan sortu banakuntzarik. Esaterako: landa, praka, t. a.

Gero Erroma'tarrakandik izen asko artu zituan eta euskalki bakoitxak bere erara: esaterako denpora/ denborà, bakea/ pakea, parkatu/ barkatu. Banakuntza pizka bat sortu zan, baiña gauza aundirik ez.

Arabia'tarrak be emon euskuezan itz batzuk, baiña kalte aundirik egin barik: esaterako; albaitera, alkondara, alkate...

Erromantzearen indarra onetan aundiagoa izan da. Batez be Naparroa'tik eta Aragoe'tik berba asko sartu ziran eta euren aldi ta izkelkiaren urratsa daroe: izpillu, akullu, maillu...

Erromantze zarrak ez eban izan ainbeste indar sakabanatze orretan, baiña gero, gizaldietan eta gaur arte, erromantzeak inguratzen dau euske-

rea eta ortik banatze-bide zabal bat sortzen da. Iparraldeko euskaldunak Frantzia'ko erromantzetik artzen ditue ainbeste izen eta joskerea; Egoaldekoak, osterà, gaur gaztelaratik artzen dabez joskerea ta itzak; eta izen ezbaridiñak eta joskera ezbaridiña izateak alkar ulertzeko gaiztasuna sortzen dau. Eta fonemak edo abotsak kontuan artzen ba'doguz, Iparraldekoak euren ingurutik artua dabe ainbeste naste gaur sortzen dauskuzan atxea edo ezarriko abots iguzi ta dunduribakoa.

Bizkaï'ko ta Gipuzkoa-zati on baten jazoten dan s/z ez berezitzea be, gaztelerearen indarrez egiña ete dan nago.

Eta beste jakingarri asko aztertu geinkez gai oneri buruz.

Zer egin inguruko izkuntzen indar au kaltegarri izan ez dakigun? Zer egin arlo onetan baturantza joteko?

Euskera jatorra ta garbia erabili, bai izenetan, baita joskeran be. Jatortasunak alkartasuna ekarriko, dau, erdelkeriak osterà, banakuntzea.

Itz zarrak, esaterako milla urtetik gora gure izkuntzeak erabili dituanak, naiz ta euskalki baten izan, kontuan artzekoak dira; baiña oraintsu Frantzia'tik edo gastelaratik artuak diran itzakaz kontuz jardun bearko dogu euskera batzea gura ba'dodu. Ori ta guzti, be, erdeldunen pentzakerak eta izkerak ugari sartuko jakuz.

1.6. *Batua egiteko eliztia bearrezkoa da. Larramendiren "El imposible vencido" edo "Eziña egiña" aurrerapen aundi bat izan zan.*

Euskera batzeko. arautu edo normalizatu egin bear da. Ori beste izkuntza guztiak egin dabe eta gureak be bearrezkoa eban.

Euskerea arautu eziñekoa zala esaten eben, ezelako araurik ez daukan izkuntza basatia edo olako zerbait esan eban Mariana kondaira-idazle ospetsuak. Loiola'n egona zan bera, erdelduna izan arren, eta an entzun eban gure izkuntza eta an izango zituan eztabaidaren batzuk be.

Arautu ezin ori, euskerearen izen txarra zan eta aldezkari edo apolojisten giroan, kontuan artzen zan. zor jakon lako erantzuna emoteko.

Eta erantzunik ederrena Larramendi'k emon eutsan; ez berbaz, egitez baiño. Lenengo eliztia, gramatika, idatzi eban eta izenburu au ezarri eutsan: "El imposible vencido".

Bear ba'da, Larramendi'ren asmoa ez zan izango euskerea batzea, baiña bere lan ori euskerearen batasunerako aurrerapen aundia izan zan: Euskalki bakoitxak bere eliztia izan ezker, errezagotze ikusten dira alkartzeko bideak eta alkar ezagutzeko erak asko ugaritzen dira. Elizti ori ikastoletan euskaldun guztiai irakasteko aukerak izan ba'genduzan; antxiña batua izango zan gure euskerea. Baiña orretan be gure izkuntzea zori txarrekoa izan da.

Elizti asko. era askotakoak eta euskalki ezbaridiñetan egin dira ordurik ona. Egin dira, baita elizti orreik alkartzen alegiñak be. Or egin bear dogu lan asko oraindiño be. Euskalki guztiak eliztiko jatortasunean zuste-

rrak billatzen alegintzen ba'dira, geuk ez dakigula, konturatu barik, batasuna eskuratuko dogu.

1.7. *Iztegi-egilleen edo leksikografoen lana, bearrezkoa zan eta onetan Larramendi'ren "Diccionario trilingüe" balio aundiko lana zan. Geroago Azkue'k lan ederra egin eban bere iztegiatz.*

Euskereak iztegian aberastasun ikaragarria dauka. Euskaldun bakoitzak, edo gitxienez alkarre txiki bakoitzak, bere izenak eta itzak asmau ta erabilli dituala esan lei. Aberastasun onek ugaritasuna emoten dau, baiña baita alkarragaz errez ulertzeko gaiztasuna ta izkuntzearen edo euskalkien banantzea be.

Zer egin bear ete zan gai onetan batasunera joteko?

Euskalerrri guztiko izak batu eta alkarren ondoan iztegi baten ezarri.

Orixe da, ain zuzen be, Larramendi'k bere iztegiatz billatu ebana, orixe beste iztegi-zale askok euren idazti txalogarriakaz lortu gura ebana.

Gai onetan Azkue dogu gizandia. Euskalerrri guztiko itzak batzen alegindu zan eta bere iztegian gauza bakoitzak zein izen daukan agertu eban, erderaz, gaztelaraz eta frantzeraz azalpenak dituala. Au bai benetan batasunerako bidean lan txalogarria ta illeziña! Onek ez dauka zer-ikusid aundirik arin-arinka ta zuster gitxigaz egindako "Batasunaren kutxa" gaz.

Lenago ta geroago, iztegi asko egin dira. Muxika'tar Plazido'k be onetan lan ederra egin dau eta idazle asko eta asko dira, guztiak ez ba dira be, iturri onetara euren ezbaietan jotzen dabenak, naiz ta gero, lotsatuta lez, euren iturria zein izan dan esan gura ez.

Iztegi oneik aurrean doguzela idazten dogunak asko ta asko gara euskalki guztietan. Asmau ete leike batasunerako bide ederragorik?

1.8. *Euskalki bi edo geiago erabilli ta ondo ezagutu dituen idazleak baturantzaz urreratu gaitue, Kardaberaz bera eredu dogula. Geroago Txomin Agirre ta beste asko.*

Euskaldunak batasunerako gaiztasun bereziak daukaguz. Geureari eusten zaleak egin gaitu izadiak eta bere Egilleak, eta orrexegaitik irau dogu bizirik, "gure eskuma-aldean milla eta ezker-aldean amar milla il diran artean", baiña geureari eusteko daukagun zaletasun onek batasunerako oztopo asko ezarri deuskuz. Geure euskalkia ondo ezagutu arren, beste bat eskuratzeko alegin gitxi egiten dogu, eta naikoa ondo eskuratu arren be, ez dogu erabilten.

Onetan ba dago ezbardintasun bat gizpuzkoarren eta bizkaitarren artean. Bizkaitarrak errez urreratzen gara gizpuzkoerara eta erabili be egiten dogu, baiña gizpuzkoarrai oso gaitx egiten jake bizkaieraz itz egitea eta orretarako nekez alegintzen dira.

Gipuzkoerea dala euskera baturako aukeratu bear dan oiñarria, esan gura ete dau jazoera orrek? Ba leiteke. Baiña gai au gero aztertuko dogu.

Izan dira, orregaitiño, euskalki bi edo geiago eskuratu ta erabilli dituen idazleak, eta oneik batasunera oinkada aundiak emon dabez.

Norberaren euskalkia beti erabilten da obeto, jakiña. Baiña beste euskalki bat eskuratzenean, alkarre pozgarri bat egiten da bien artean.

Ori lortu eban Kardaberaz gure ereduak, bizkaiera ta Gipuzkoerea erabiliaz. Olako zerbaite egiteko asmoa eukan Mogel'ek bere Peru Abarka idotzi ebanean: Onek be bizi eukan bere barruan batasunaren arazoa. Eta Txomin Agirre'ren *Garoa* irakurten dauan zein idazlek ez dau argi ikusten euskalki biren alkarreaz daukazala ondoren ederrak batasunerako?

1.9. *Erdelkeriak kendu, eta euskerea garbitzen alegindu diranak, batzela egin dabe. Onetan Altube'tar Seber izan dogu maixu bere "Erderrismos" liburua gaz, eta Arana'tar Sabin eragillerik indartsuen.*

Len esan dot (1.5.), inguruko erderak euskerea batzeko kalte egin dauskuela. Baiña ori adierazoten lan egin daben gizon ospetsuak be gogoratu bear doguz batasunaren kondairea eginkeran.

Altube'tar Seber izan da onetan bereziarena. Erdelkerien usaiña artzeko zentzun berezia eukan gizon onek eta bere liburua dala ta, sakabanatzailliz izan diran esakun, joskera ta itz asko eta asko baztertu dira.

Ez da izan bakarria gure Altube lan onetan.

Gai au oso-osoan, bideratu ebana Arana'tar Sabin izan gendun. Lar garbi-zalea zala? Ba leiteke, baiña ba egoan bear-izana ta ez makala. Gero larkeriak kendu bearko dira maixuari zor jakon itzaltasuna zapaldu barik.

Azkue'k lan aundia egin eban onetan, eta Menendez Pidal'ek egin cutsan salakuntzea be entzun bear izan eban: Lar garbi-zalea zala eta euskereak antxiñatik beretu zituan itzak, artu bear zirala iztegian. Ba leiteke izkuntzalari erdeldunak errazoi apurren bat eukitea. Baiña euskerea batzeko bearrezkoa zan lan ederra egin eban garbi-zale txalogarri oneik.

Emen Batu-Berri zaleai be ikututxu bat egin bear dauset, bear dan itzaltasunez: Ez da egia aspaldian lengo mordollokeriak pizka bat itzi, ta jatortasunera jo dabela? Antxiñako euren idazkerea eta garkoa ez dira bardiñak neure ustez; gaur asko garbiago ta jatorrigo idazten dabe. Orixe da alkarreaz bidea, jatortasunarena.

1.10. *Mixiolariak, erriak baiño euskera garbiagoa erabiliaz, baturantzaz jo dabe, esaterako Añibarro'k eta Frai Bartolome'k eta beste askok gaur arte.*

Une guztietan, zori onean eta zori txarrean, euskerearen alde jokatu

dau eleizeak, edo, obeto esanda, jokatu dogu euskaldun kristiñauak naiz ta ukatu eziñeko geure utsak izan.

Kristiñauak astero antxiñatik alkartzen gara Jaunaren Egunean gure eleizetan eta an, geiago edo gitxiago, beti egin dogu euskera.

Eta jakingarri onek be ba dauka bere garrantzia euskera batuaren kondairan.

Mixiolariak erririk erri ibiltzen ziran eta erri batetik bestera euskerearen bitxiak zabaltzen ebezan. Eurak erabilten dabeneuskereta batuagoa ta garbiagoa izaten da beti. Idazleai buruz esan doguna esan bear onei buruz be (1.3.).

Egia esan, erria bere izkuntzea aldatzen ez da zalea eta iñongo erritan ez da aldatu erri-izkuntza ainbeste bider euskera garbiagoa entzun arren. Baiña esakera ta itz asko artu ditu erriak eleizetako itz-tokitik eta katekesis-liburuetatik. Kristiñau ikasbidea antxiña oso mordoilloa zan, baiña Eleiz-Batzar nagusiaren aurrean Euskalerrri guztian zabaldu zana ondo jatorra ta baturako aurrerapen aundi ekarri duana izan da.

Mixiolariak antxiñatik izan dira. Bi gogoratzearren (Kardaberaz len gogoratu dogu) *Añibarro ta Frai Bartolome: aitatuکو doguz*. Baiña onein maillan eta onei jarraituez egiten dabe euren lana gaurko izlariak be. Erriaren belarriak euskera garbirako eta baturako gertatuta dagoz gizon ospetsu onei entzun ondoren.

1.11. *Euskalki-zaleak (dialectólogos vascos), euskalkiak alkarren parean ipiñiaz, lanik ederrena egin dabe euskera baturako.*

Euskera batua egiteko zer gauza ederragorik eta bearragorik euskalkiak alkarren parean ipiñi ta konparatzea baiño?

Arlo edo sailla onetan mundu zabalean lan aundiak, sakonak eta billaketa zeatzekoak egin dira aspaldion. Ez, ostera, euskaldunen artean: guk lan au, sakontasunez beintzat egiteko daukagu oraindiño.

Izan dira bai onetan be euren saiotxuak egin dituenak. Eta guztien buru, erbesteko bat: Bonaparte'tar Louis Lucien errege-semea edo printzea. Izkuntza guztiai eta batez be euskereari benetko maitetasuna eutsan Bonaparte'k. Gure izkuntzea naikoa ondo ikasi eban eta laguntzaille euskaldunak billatu ondoren, aita Uriarte esaterako, lan politik egin zituan eta orretan dirutza aundiak eralgi zituan, aberatsa be ba zan eta.

Berak itzi euskun orduan euskera egiten zan lurraldeak agertzeko lur-irudi edo mapa zoragarri bat, margo ezbaridiñakaz erriaren izkerak eta izkelkiak berezituaz, berak egin euskun euskal-aditzaren laburpena euskalki guztiak alkarren ondoan ipiñiaz eta berak, baita, euskalki guztietako izkerak konparatzeko esaldiak alkarren parean ipiñi be.

Ez da ori baturantzta joteko lanik bearrana? Zelako onurea atera dauzagu berak argitu euskun bide jator orreri? Gauza aundirik ez.

Azkue Aundiak be artu eban bide ori eta zeozertxu egin be bai,

baiña lan kazkarra ta sokontasun aundi bakoa. Egia esan, berari esker dakiguz galdu diran euskalkietako esaera ta izen batzuk eta aboskeri edo fonetismo batzuk.

Ba ditue Bonaparte'k eta Azkue'k gaur be jarraitzaille batzuk. Pedro Irizar'ek, esaterako, lan ederra ta sakona egiten dau onetan: bere liburuxkak ikusgarriak, eredugarriak eta irakurgarriak doguz. Ba dakigu oraindiño be onetan lan ta lan diarduana, eta laguntzailleak ugari billatzen eta aurkitzen dituan.

Ba dira beste batzuk be euren lantxuak egiten dituenak, esaterako Uribarri, Pujana, lan au idazten dauana, ta abar. Arratetikoen Izkerea idatzi eban Toribio Etxebarria ez dogu aiztu bearke.

Euskera batua egiteko, erria kontuan artu bear dogu eta erria kontuan artzeko bide bakarra, bere izkerak ondo ezagutzea da. Lan au bear dan lez eginda ba'geunka, oso erreza litzake euskera batu jatorra ta erri-tarra egitea.

Batuaren kondairan irabazi aundiak ditue erriaren aurrean olako lanak egin dituenak, eta guk be, txaloak jo ta geldi egon barik, onetan lan egin bear dogu. Orretara beartzen gaitu erriak.

1.12. *Bertsolariak eta abeslariak, euren bertsoak eta abestiak beste euskalki batzuetara zabalduaz, erria baturantzta indartu dabe.*

Bertsolarien eta abeslarien sariketak antxiñakoak eta ugariak doguz Euskalerrrian. Beste euskalki baten abestia edo bertsoak entzuten doguzanean, lenengoz ba'da, ulertzea gaitz egiten jaku, baiña sarritan entzun ezkerro, naikoa errez aditzen doguz. Zer jazo da oraintsu Donostia'n Xalbador'en bertsoakaz? Erriak ulertu ez eta txaloak ukatu, baiña laster bere trebetasuna ta adimen zorroztasuna agertu zituan eta Erriari ulertu-azo eta erriak azkenean onartu eban bere bertso zerrendea.

Naikoa argi ikusten dala uste dot, jozoera ori baturako bidean aurkitzen dala.

Abestiakaz gauza bakan batzuk jazoten jakuz. Iñoz beste euskalki baten idatziak, itzuli egiten doguz eta ez da iñoz jazo bakoa bitan itzuliak izatea be: Bizkaiera'tik gipuzkoerara eta geroago gipuzkoeratik barriro bizkaierara. Ori jazo dala uste dot gabonetako *Mesias sarritan agindu zana ta Belengo porialian* abestiagaz.

Euskalki bakoitzeko abestiak, diran lez abestu bear litzakez toki guztietan, itzuli barik, eta orretara batura-bidean laguntza izango litzakez: Txikia, baiña zer-edo-zer beintzat.

Eta abeslari-sariketak be ugaritu, gero izkiak eta itzak erriari azalduaz, erriaren belarriak beste euskalkietara oitu daitezcan.

1.13. *Antzerki-gilleak, erriaren aurrean eta sarritan euskalki baten baiño geiagoan antzerkiak egiñaz, baturantza jo dabe.*

Erriaren eziketara oso bide egokia doguz antzerkiak, ez oiturak zuzentzeko ta bideratzeko edo erri-kontzientzia izartzeko beste barik, baita izkuntzea bideratzeko be.

Antxiñakoa dogu gure Errian antzerkigilleen lana be. Iparraldeko pastoralak ziran iturburu, baiña areik erritarrak eta itxiak ziran, eta baturantza edozein liburu lez jo ba'eben be, erritik gitxi urten ziran.

Gaurko antzerkiak onetan lan ohea egin dabe. Esaterako Toliosa'ko antzerki sariketan euskalki askotan idatzitako antzerkiak agertu ta antzeztu ziran. Argi ikusten da lan orrek euskerea batzerako egiten dauana eta lan au be ugaritu ta zabaldu egin bearko dogu euskalkiak alkartzeta gura dogunok eta txalogarriak dira egiten diardugun kondaira onetan antzerkigilleak, Barrutia buru dala eta Labayen eta beste asko eta asko jarraitzaile dirala.

1.14. *Euskerea sakonetik aztertu dabenak eta izkuntza onen kondairea arakatu dabenak be orrantza ekin dabe.*

Euskera batura iñoz eltzekotan, eta ainbat lasterren gura geunke egun zoragari ori, izkuntzea bera obeto ezagutzearen ondorena izango da. Eta izkuntza batek ainbeste gizaldi ta millaka urteetan artu dauan sakontasuna ez da makala izaten.

Sakontze au asi eta lan orretan ekin dabenak, baturako bearra dan lana egin dabela argi ikusten dan gauza da ba.

Antxiñako gramatikalarri edo eliztizaleakandik asita, ugariak izan dira gure izkuntzearen aztertzaileak, baiña onetan atzerritar batzuen izenak agertu bearko doguz.

Euskerea bear dan lez ezagutu eben ezkerro, mundu guztiko izkuntzariak izan dira bere maitale ta ikasle. Ain izkuntza bakartia izanik, iñon aurkitzen ez ebezan izkuntza-legeak aurkitzen ebezan baragan, eta sarritan lege edo arau aldatu-eziñak euskeran be beteten zirala arrituta oartzen ziran. Tamala da, eta ez txikia, euskaldunen artean izkuntzalaritzarako jokera gitxi izan bearra. Geiago izan ba'zan, maixu aundiai laguntza aundi bat emongo geuntsen eta geuretzat onurak, makalak ez diranak, atera.

Schuchard'ek bere maixu-lan nagusia euskereari buruz egin eban eta izkuntza guztien arauak euskeran be beteten zirala erakusten eta gure izkuntzeak beste batzukaz izan dituan artu-emonak adierazoten maixua izan zan.

Menéndez Pidal'ek euskera ikasten alegiñak egin zituan naiz ta oso-osoan eskuratu ez. Irakasle aundi onen eritxiak, euskera batuari buruz, kontuan artzekoak dira. Gai oneri buruz idaz-lantxu bat agertu neban

AGUR aldizkarian urte batzuk dirala eta iturrian bertan artu gura dituanak irakurri begiz "En torno a la lengua vasca" deritxon liburuan argitaratu diran bere berbaldiak, batez be Gernika'n izandakoa.

Kanpion'en lan aundiak be gogoratu bearko doguz eta euskaldunen artean lenen.—Mitxelena. Mitxelena jakintsua da eta euskal— izkuntzalaritzan maixu edo doktor bakarra uste dot, naizta geure izkuntzan iñor ezin izan maixu, titulo edo agiri ori emoteko Ikastetxe Nagusirik ez daukagun ezkerro. Mitxelena'ren eritxi guztiak ontzat artu eziñak, min emoten dausku eta bera be bere pentzakera guztietan ziur-ziur ez dagola uste dogu. Euskera batuari buruz diñogu au, jakiña. Edozelan be, bere lan asko dira batura bidean txalogarriak, eta ez gitxien bere Maixu-lana eda tesisa izan zan "Fonética histórica vasca".

Beste aztertzaile asko dira ezagunak, esaterako Azkue, Elizalde, Orixe, t. a., baiña gai oneri buruz naikoa dala uste dogu. Gaiñera baturako daukan garrantzia argi dago.

1.15. *Elertiarren kondairea agertu dabenak, batez be idazleak alkarren parean jarriez, lan ederra egin dabe.*

Aspalditxuan egiten da euskera baturako bear dan beste lan bat be: elerti edo literaturaren kondairea, batez be ikastoletarako eta idazkiak alkarren parean ezarriaz egiten dana.

Lentxuago idatzi ziran elerti-kondairak, erderaz idatzi ziran. Beste alde batetik balio aundiko diran Michelena ta Villasante'renak uts aundi au dauke. Geroago gure Etxenagusia'k atera eban lorategi interesgarri bat. Urrengo Zarat'ek, Bizka'i'ko elertiarren kondaira eder eta jator bat. Onek, artu dogun gai onetan daukan utsa, Bizka'i'ko idazleena baiño ez izatea da, baiña irakurgai ederrak eta asko dakaraz eta bizkaiera baturako onurakorra da.

Aita Santi Onaindia dogu bide onetan maixu eta berak aspaldion ateraten ditun aleak oso goragarriak dira. Batu-antzeko euskera bat darabil: garbia ta ederra. Eta liburu aundi onetan edo oneitan ez dago idatz-zatiak alkarren parean ipinterik, baiña beste lan eder bat ezagutzen dot, oraindiño argitaratu bakoa, ikastoletarako labur-labur eta jardunkizunakaz egiña. Antxiñatik irakolara eroana da liburu au, baiña urteak igarota be, ez da argitaratzen. Zergaitik? Santi'k bere ardurapean ateratzen ditun liburuak azkar eta bizkor ateraten ditú, baiña au beste batzuen esku itzi dau eta or dago akatza.

Oso interesgarria ta erria baturantza bultzatuteko bearrezkoa da esku-liburu au. Emetxe agertzen dira eskualde ta aldi guztietako euskerak aztertuta eta alkarragaz konparauta: zetan diran bardiñak eta zetan ezbardiñak argi ikusten da, euskalki bakoitxaren berezitasunak errez konturatzen dira. Iru urte dira liburu ori eskuan dogula irakasten diardugula eta ikas-

leen aurrerapena agiria ta ugaria da. Oneik dira oneik, benetako batura-ko bideak...!

1.16. *Gaur ikastoletako irakasleak be lan aundia egin legikee.*

Batura bidean gaur arte ain astiro joan ba'gara, ikastolak indar gutxi izan dabelako ta eskoletan erderaz irakatsi dalako izan da zalantza barik. Oraindiño be orretan atzera gagoz, baiña itxaropen barri batzuk sortu jakuz: España'tarrak eskoletan euskerea irakasteko baimena emoten dauan lege berezi bat argitu dabe. Ez euskeraz irakasteko, euskerea bera irakasteko baiño.

Or daukagu ba zelai, landa edo kanpo eder bat lanerako.

Baiña zelako irakasleak izango doguz? eta zenbat? Or dago untzea.

Batzuk eskoletan batu barria irakatsi bear dala esan eta esan diardue. Eziketa-arauak eta euskerari zor dauzsagun itzaltasunak beste zerbait eskatzen dabela uste dogu. Eziketa-arauak, ikasleak dakian euskeratik asi ta zabaltzen ekiteko eskatzen dabe, eta euskerari zor dauzsagun itzaltasunak, erriaren euskerea oiñarrizat artzeko eta ez gitxi batzuk euren kontura oretu daben euskera baragarria.

Orrelan batasuna luzatu egiten dala? Bai baiña bestera ilteko arrisku aundi baten euskerea jarri: Iñork ez iñon egiten ez dan batu orrek euskera bera gorrotatu-azoko dauku. Beste alde batetik, len esanda daukagu epe luze orren oztupoai emon bear jakon erantzuna.

Zelan edo alan, irakasleak batura bidean lan aundi bat egingo dabe, batez be euskalki guztiak ezagutu-azo ta esaldirik eta joskerarik jatorrenak zeintzuk diran eta kendu bear diran erdelkeriak zeintzuk diran argi ta garbi azaltzen ba'dabe. Eta euskera goi-maillako ikastetxetara sartzen dabe, egun pozak etorriko jakoz gure izkuntzeari. Deustu'koan egin genduan zerbait onetan, eta benetan pozgarria izan zan. An bai, euskera-zaleak zabaltzen diranean, baturako benetako bideak urratuko dirala! Ikastetxe Nagusietan esan gura dot.

1.17. *Euskal-jaiak eta sariketak baturantza bidean*

Gaur ugaritu egin dira, baiña antxiñako oiturea da Euskalerrian euskal-jaiak eta sariketak egiteko oiturea.

Antxiñakoen artean, Abbadie d'Arrast, Asociación euskara navarra ta Jose Manterola gogoratu bear dira. Gaurkoen artean; eleberri-sariketak, olerkienak (Aita Santi'rena, esaterako), errietako euskal-jaiak... Gaur erri guztia da ekintzaille, esan geinke: ikastoletako gurasoak, errietako gaztediak, jakintza-taldeak eta beste askok lan au egiten dabe ta.

Erria batzeko ta alkar ezagutzeko, euskalki ezbardiniak alkarregana

urreratzeke ta izkuntzea batzeko indar aundi bat-dagola or ez dogu ukatuko, baieztu baiño.

1.18. *Eleizan, liturjiaren bidez eta kristiñau-ikasbide lanean egin dogun lana*

Gaurko izlari batzuk, eta ez gitxien batu-berri orretan diarduenetari-koak, eleizeari botaten daukuez erru guztiak edo asko.

Eleizan egin dogun lana, euskerearen alde eta batua egiteko bidean, aundia ta antxiñakoa da, gaur be ez lenago baiño txikiagoa.

Antxiña, kristiñau-ikasbidea zan. Bere sasoiñ siñistu eziñeko mordolokeriz betea zan, baiña euskerea. Gero iztegi ta joskera baragarri ori alde batera itzi eta euskerarik ederrena sartu zan orretarako erabilten ziran liburuxketara: Guk ikasi genduana, euskera ederrean eta garbian egiña izan da. Eta euskera ori, ederra ta garbia zan bestean zan baturako bidea: Euskalki guztietarako itz asko sartu ziran, joskera bardiña euskalki guztietan, eta jatortasuna agirian. Utsik izatekoatan, iparraldera sartu eziña zan, baiña ori ez zan eleizakoen errua. Naparra'n be asko ez zan sartu, egia esan.

Jainkozale-bazkuna txalotu bearko dogu au esandakoan eta bertan lan egin eben euskaldun jatorral eskerrik beroenak emon.

Liturjia be izan da eleizan baturako bidea. Eleiz-Batzar Nagusiaren aurrean izlariari buruz len esan doguna da balioko, eta ostean atera diran irakurgai-liburuetan eta meza-liburuan orretarako dan batzordeak lan ika-ragarria egin dau. Aditza ta itz batzuk aldatu ezker, euskalki guztiak bardin-samarrak dira. Alkarrengandik urrin ez gagozela ikuste au ondo pozgarria da. Baiña ba dago oraindik egitekorik.

Batu-berri taldeak ez dau begi onez ikusten lan eder au: eurak egindako batua entzun gura legikee eleizan, asko eleizetara urreratzen ez diranak izanda be. Eta eskariak be egin ditue ori lortzeko. Ez al da olakorik jazoko, euskera jatorra ta erri-bidekoa maite dogunok, ori jazo ez daiten beti alegindu bearko dogu.

1.19. *Aldizkariak, euskalki guztietara zabaldunaz, baturako bideak egiten dabez.*

Aldizkarien aldia dala gurea Euskalerrian esan geinke bildur barik. Lenago Erri guztian aldizkari bat edo bi, geienez iru, izaten ziran batera, eta gaur, zelakoak edo alakoak, euskera utsean edo izkuntza bitan agertzen diranak konturatu ezker, amabost edo ogei zenbatu gainkez batera.

Aldizkari bat aterateak arazo bildurgarriak ditu gaur, eta diru aldetik datozenak ez dira txikiak izaten. Egun oneitan gure AGUR'en eriotzea izan ete dan gagoz.

Baiña, era batera edo bestera dirua aterata, aldizkariak urtetan dabe, batzuk batu-berrian eta geienak erri-euskeran.

Eta, ain aundia da gaur gure Erriaren eta izkuntzearen bizi-gurea! Eguneroko bat aterateko asmoetan diardue gure lankideak. Amets zora-garria benetan eta dirudianez, ez amets utsa!

Aldizkariak euskerea batzeko onak dira. AGUR Gipuzkoa'n artzen zan, irakurri ta ulertu be bai. Goiz-Argi Bizkaia'n artzen da eta oraindiño pizka bat gaitx agiten jake ulertzea baiña oituko dira. Iparraldeko aldizkariak oso uler-gaitxak dira gutzat eta urri etorri be egiten dira, baiña, ori be baturako bearrezkoa dogu.

Baiña baturantza emongo dan pausurik ederrena egunkariarena izango da: Idazle bakoitzak, iparraldekoa naiz egoaldekoa izan, bere euskalki garbi ta jatorrean idatziko dau, iparraldekoak atxea erabilteko be eskubidedun dirala. Orra or baturako bide jatorra ta naikoa azkarra. Lagundu dagiogun adore guztiz egunkari oneri.

II. URRERATZEA. TA ILLUNALDIA

2.1. *Aranat'ar Sabin'ek, euskerea bere iztegian, joskeran eta idazkeran erdelkerietatik urrinduaz, bultzakada aundi bat emon eutsan euskerearen batasunari. Ez gixiango Azkue'k.*

Euskerearen benetako barrizkundera, Arana ta Azkue'ren aldikoa izan zan. Gizon aundi bi oneik dira, zalantza barik, gaur arte euskerearen alde geien egin dabenak.

Sabin'en lana, politika aldetiko bultzakada nagusia alde batera itzita, gai oneri dagokiona be ez da ta, iru arlotan agertzen da: iztegia garbitzean, joskerea zuzentzean, eta idazkerea edo ortografia zuzentzean, eta iruretatik garrantzitsuenak iztegi ta idazkerearenak.

Iztegi-arloa len aztertu dogu. Arakatu dagigun orain idazkerea.

Sabin bere aldiaren ondorena zan eta ez egoan bakarrik, baiña bera izan zan ausartiena. Bere asmakizunik aundiena, abots bakoitxari ikur bat ezartea izan zan. Orrelan atxearentzat ez egoan tokirik, abotsa ez dalako. Iparraldean eta Napparroa-aldean ba dira 30.000 inguru euskaldun, atxea agozkatuten dabenak, baiñ ez era bardiñean edo itz bardiñetan eta Sabin'ek, euskaldunik geienen oiturak artuaz, ondo egin eban atxea baztertzea. Ba dira bere idaztjetan, iparraldeko atxearen antzera esan diran j'dun itzari buruz ezbai batzuk.

Sabin'en idazkerea guztiz onartua izan da Euskalerrian eta batu-barri-zaleak be asko zor dautsoe berari. Ba dagoz, orregatiño, ontzat artu ez diran eta artuko ez diran arau batzuk.

Azkue be ez egoan Sabin'egaz pentzakera bardiñean idazkereari buruz.

Beronen iztegi ederra ikustea naikoa da berezitasun ugariak aurkitzeko. Eta ez eukan errazoi faltarik. Esaterako, zergaitik Tx, Tz ta ts idazteko abots batentzat ikur bi? Baiña Azkue'k, batasuna egitearren eta bakegaitik, Sabin'en idazkerea ontzat artu eban. Gizon aundi ta euskaltzale jatorreran bidea au be.

Eliztarian, alkartuta lez, biak lan egin eben, baiña Azkue da balicetsua-goa. Eta Itz-osotze edo morfologian, Azkue'ren lana oso ederra da. Sabin'ek onetan, Bizkaia'ko euskerea geiago kontuan artzen ebalako edo, ba ditu batura-bidean onartu ezin legikezan fonetismo edo aboskeri batzuk.

Azkue'k ardura aundiaz artu eban euskera batuaren arazoa eta urten-bide lez gipuzkoera osotua jarri eban. Gaur be kontuan artu bearreko bidea, geroago esango dogun lez.

Gizon bi onein eta euren inguruan lan egin ebenena da gaur arte euskera baturako egin dan lanik aundiena, goragarriena ta jatorrena.

2.2. *Euskaltzaindia sortzea itxaropen aundi bat izan zan batua egiteko bidean. Erakunde onen gauko jokabidea oso illuna ta nastatua da, argi-aldia itxaroten gagoz.*

Azkue ta bere inguruko euskaltzale jatorrak izan ziran Euskaltzaindia sortu ebenak eta Azkue bera izan zan bizitza guztian erakunde onen lendakari, zuzendari edo buru.

Euskerea batzea, Euskaltzaindi jaiio-barriaren arazorik gogokoena izan zan eta euskaltzainiak gai oneri buruz aztertze ta lan sakonak egin zituen. Baiña artu dagigun kondairearen aria.

1918'ko urterillaren 18'an, Elgezabal'dar Kosme'k, Alderdi'ren ize-nean Bizkaia'n Aldundiko zanak, Landaburu'tar Felix'egaz batera izenpetuta, euskeraz idatzitako idazki bat irakurri eban Aldundian eta Euskalerrri osokoak kideko dirala, euskerearen alde lan egin eban erakunde bat eskatu eban. Bizkaia'ko Aldundiak errez onartu eban eskari au eta beste Aldundiai agertu eutsen. Aldundiak Oñate'ko batzarrera, 1918'ko urrilaren 8'an, agertu eben burutapen eder au eta antxe aztertu eben euskaltzalerik ospetsuenak, eta gero, 1919'ko irailaren 21'ean, Gipuzkoa'ko Aldundi'etxean, irasi zan Euskaltzaindia, 12 euskaltzain oso zituala, euretatik 9 egoaldekoak eta iru iparraldekoak.

Bereala asi zan euskerea batzearen lana. Lenengotan, sei ikur onartu ziran bokal edo abots bakartiak (a, e, i, o, u, ü) eta 25, konsonanteak edo abots lagundunak idazteko. Arau oneik, eta besteren batzuk, onartzeko eskatu jaken euskal-idazleai, 1920'ko urtarrillaren 7'an eta 8'an egin ziran batzarretan.

Urte onen aprillean, Kanpion eta Broussain'ek, euren lankideen eskariz, INFORME SOBRE LA UNIFICACION DEL EUSKERA ekarri eben. Asko zabaldu zan agiri au eta jendearen eritxiak, berbaz eta idatziz artzeko getu egoala iñoan Euskaltzaindiak.

Erantzunak aztertzeko, Bilbo'n, Donostia'n, Lekaroz'en eta Azparren'en egin zituan batzarrak. Ogeigarren eta ogei ta bat'garren urtean, euskera batuari buruz eta euskaltzale askoren eritxiak kontuan ziralara, 18 lan eldu ziran Euskaltzaindira. Eta, au ez da aitzu bearko, iñork ez eban eskatzen atxe sartu bear zanik.

Baturantz emongo ziran pausuk edo oinkadak ziurtasun geiago izan egien, 1921'ean Euskaltzaindiak itaunketa bat egin eban, erizkizundi irukoitzta edo "triple cuestionario" eritxona. Euskalerriko inguru guztietatik, 287 euskaldun aukeratuk erantzun eben, eta itaunak, abostegi, itz-osotze ta iztegiari buruzkoak, 200 ziran. Erantzunak emoilleen zeatzasun guztiazkaz *Euskera*'n 1925'etik 1930'era agertu ziran. Zuberoa'ko erantzunak Gavel'ek batu zituan eta 1960'ra arte ez ziran agertu Euskera'n.

Euskera aldizkarian egin zan agerpena ez ei da osoa ta ona eta beste agerpen zeatzago bat merezi ei dau lan onek, baiña ez ei dagoz erantzunak Euskaltzaindiaren agiritegian. Tamalgarria.

Gerotxuago, Azkue'ren, GIPUZKERA OSOTUA deritxon liburua agertu zan: Lau zati ditu liburu onek, eta amazortzi azalburu, 184 orrialdetan. Oso interesgarria da, eta batura bidean onu oneik emoten ditu: euskera biziak erakusten dauan bidea, egilleak euskalki guztiak ondo ezagutzen dabezanak, aldakuntzak astiro-astiro sartu, erriak aldakuntza orreik denporaz onartzen dituan ala ez ikusi... Ez dago emen gaurko bide labur-zaleen antzik iñondik be.

Euskera batua egiteko, Euskaltzaindiak iztegi on bat eratzea asmau eban eta lan au egiteko ardurea Azkue, Broussain eta Olabide'k artu eben, 1920'an eta urrengo amar urteetan egiten diran batzar guztiak aitatzen ditue lan oneik, 1934'an iztegia zabaltzeko bideak artu zituan Euskaltzaindiak, baiña ez zan argitaratu. Lanak Euskaltzaindiaren agiritegian egozan 1942'ra arte, baiña gaur irutatik bat galduak dira. Barriro be 15 urteko lana ondatuta. Tamalgarria!

Gero guda samiña etorri zan, eta Euskaltzaindiaren lanak zati baterako gelditu ziran. Guda-aldian, orregaitiño, iru gauza kontuan artu bearrekoak: Euskera, aldi labur baten baiño ez ba'da be, legezkoa edo ofiziala izan zan (ori gaur arterako izan ba'zan, euskera batua antxiña egiña izango zan), Ikastetxe Nagusia edo Euskal-Unibersidadea irasi zan eta euskera utsean egunkari bat agertu zan.

Guda osteko urteetan, euskereak ixilik eta geldi egon bearra izan eban. 1949'an be iltegiatiko idazkiñak, euskeraz ba'ziran, kentzeko aginduak urten eban.

Euskaltzaindia, jakiña, sakabanatu eben, Azkue ta Urkijo bakarrik geratu ziralara, eta oneik España'ko akademikoak ziralako. Azkue'k Euskaltzaindikoko batzar-tokia, liburutegia ta agiritegia salbau zituan. 1941'ean batu zan barriro Erakunde au, sei bazkide batuta. Lau bazkide barri aukeratu zituen, baiña bere senera etorten urteak igaro zituan eta bazkide batzuk askatasun barik artu-azo eutsezenak izan ziran. 1951'n il zan Azkue Andia eta urrengo zuzendariak Etxaide la Lojendio izan ziran, au izenez. 1966'an

sartu zan ardura orretara Lekuona jauna. Gizon jator au beti izan dogu euskera batua bearezkoa dalakoan, eta orretarako iñoz atxe batzuk onartzeko be gertu egoan, izki bakarti biren erdian eta izen-lagun edo izen-orde erakuzleen asieran eta atxedun itz lapurditarretan, baiña argi ikusi dau atxeak eta atxedunak ekarri dituen ondoren bildurgarriak eta gaur euskaltzaindik beti izan dauan bidean sendo dago.

1964'ko dagonillaren 29'an, Euskaltzaindiagaz zer-ikusirik izan ez arren, garrantzi aundia daukan batzar bat egin zan Baiona'n. Batzar aretan asi zan gero obeto aztertu bear dogun ondamendia eta euskera batuaren sakabanatzea dan Batu-berri taldearen lana: Idazkerea, deklinabidea ta aditza aztertu eta atxe non erabilli ebatzi eben. Gero Ermua'n egin eben beste batzar bat eta Letamendi, Salbador Garmendia ta Laspiur izan ziran izlari. Laspiur orduan, berak dionez, ez zan atxe-zale. Baiona'n artutako "erabagiak aurrera" eroateko berbatu ziran.

Kondaira onetan garrantzirik aundiena daukan batzarra, Arantzatzu'koa izan zan, 1968'garren urtean urrillaren 3-4 ta 5'ean. An eztabaida gogorak izan ziran eta euskaltzainiak alkarrari irain mingarriak egin eutsotzean. Lekuona Lendakaria, batuaren alde lan egiteko Ermua'n berbatu ziranen aukerakoa ez zalako edo, lekutik kendu eben eta bere orde, geroago gaur Euskaltzainburu dan Villasante jarri eben.

Euskaltzaindiak sortu zan banaketa, negargarria izan zan eta gaur arte jarraitzen dau. Mitxelena'k agertu eban atxearen arazoa eta aurkalarri asko ta sendoak izan ebazan. Baten biño geiagotan aitatu zituan Baiona'n artutako ebatziak. Eztabaida gogor onek apurtu zituan batasunerako itxaropen guztiak.

Batzar onetarako Mokoroa, Onaindia ta Kerexeta'ren idazkiak artu ziran: ondo aztertuak eta sakonak lan oneik.

Eztabaida garrantz aretan, Laffite'k be berba egin eban eta Egoaldeko euskeran atxerik ez sartzeko eskatzen eban, naiz ta bera Iparraldekoa izan eta an atxea erabilli. Euskereak bizi bear ba'dau, ez dala izango Iparraldean daukan indarragaitik, Egoaldekoagaitik baiño, esan eban.

Batzarra amaitukeran, euskaltzainiak bakarrik batu ziran, erabagia artzeko. Baiña benetako erabagirik ez zan artu, eritxi batzuk agertu baiño, eta eritxi oneik agiri baten argitaratu ziran.

Orduan agertu ziran eretxiak, ez dira ba Euskaltzaindiaren erabagiak. Ikusi onetzaz Lino Akesolo'ren idaz-lana, Zeruko Argian, 1970'eko apirilaren 5'ean.

Erabagiak artu ez ziralako eta, artu ba'ziran be, bear dan lez argitaratu ez ziralako, ez dauke indarririk. Ikusi Euskaltzainburu zan Manuel Lekuona'ren idaz-lana gai oneri buruz 1970'ko martiaren 22'an Zeruko Argian.

An agertu ziran eritxiak, erabagiak ba'lira lez artzeko ez dauka iñork eskubiderik, eta Mitxelena beraren eritxia be dan lez ulertu bear da. Berak ez dau besterik egiten, Euskaltzaindiari, ensaio lez, atxea erabiltea zilegi dala eta begi onez ikusi dagiala eskatu baiño.

Agiri orren aurka Jesus Solaun'ek agertzen ditun errazoiak ontzat artzen doguz: Euskaldunen banakuntza sortu dau ta kaltegarria da, ordu-rako euskera mordoilloagaz atxea erabilten eben gitxi batzun alde baiño ez egoan, euskereak izan dauan bidea, abots bakoitxari ikur bat, apurtzen dau; beteten ez dalako, Euskaltzaindiari bere izen ona kentzen dautso; berandu agertua da, batzarrak amaitu ta urte ta erdi geroago agertu zan eta; alderdikeri baten arrazoa da.

III. ONDORENAK

3.1. *Baturako, urterik urtera ta gizaldirik gizaldira, eginda egozan lanak aundiak ziran, baiña azkenaldi ontako illunaldiak ondoren txarrak ekarri dauskuz.*

Euskera batuaren landarea guri-guri ta mardul etorren, baiña "Batu-berri" taldeak landara txikiegia zala ta astiroegi azten zala uste izan eban, eta azkarrago azi daiten orrietatik tiraka asi zan. Zer gertatu jakon landara mardul areri? Iximurtu, auldu ta gaisotu egin zan eta ara non daukagun betiko igartzeko arrisku larrian. Obeto izango zan lurra ondo atxurtu ta ongarri indartzailleak inguruan ezarri ba'eutsoezan, baiña ez zan olakorik izan. Gaur euskerea batuagoa izan bearrean, iñoz biño sakabana-tuagoa eta batzeko bidetatik urriñago aukitzen dogu.

Aztertu dagiguzan Baiona'tik, Ermua'tik eta Arantzatu'tik etorri jakuzan ekaitz izugarria ta odei-ots, txirgora ta edurtza otzak.

3.2. *Arana'ren antz-artzailleak, beste gai batzutan on aundiak ekarri ba-zituan be, izkuntza saillean ondamendia ekarri euskun.*

Gizon aundiak antz-artzailleak izatea, ez da arritzeko gauzea, sarritan jazoten dana baiño.

Gure Arana'tar Sabin'ek be oraintsu izan dau antz-artzaille bat: Arek politika iraulketa bat egin ebala, onek beste bat egin gura izan dau; arek Alderdi bat irasi ebala, onek beste bat; a sinistedun izan zala, au sinismen bariztu baten irasle ta indartzaille edo ukartzaille izango da; arek izkuntza barritu ta edertu ebala, onek beste barritze ta indartze bat emon gura dautso; arek atxea kendu ebala, onek atxea "Herrian" eta "biho-tzean" eta izkuntza danean zabalduko dau.

Baiña jakiña da antz-artzailleak beti ez dabela bear leukeen antza artzen eta iñoz, eginda egoan lana zapuztu egiten dabela. Olako zerbait jazo dala uste dogu izkuntzearen arloan beintzat. Ondamendia ekarri dau-la uste dogu.

Baiña antz-artzaille onen lankideak gogotsu jokatu dabe, eta berez aurkalariak izan arren oso-osoa Euskaltzaindiaren menpean jarri dira. Zergaitik ori? Lenengo Erakunde au eurakandutea lortu dabelako.

Eta, gero, jakiña, norberaren erako agintari bat jarri ezker, esanak egitea ondo erreza da. Agintaritarik onena diktadurea da, norberaren adis-kideen diktadurea danean, beintzat.

Euskaltzaindiak, ikusi doguncz ez eban erabagi sendorik artu, baiña bere egiteetan, bete-betean alde batera makurtuta dago, "Batu-Berri"ren aldera. Geienak aurka daukaz, eta Erakunde orrentzat mingarria eta Erria-rentzat kaltegarria da egoera larri au.

3.3. *Gaur naste onen buru ta indartzailerik agirienak, neure ustez, Villasante, Mitxelena ta Berriatua dira: Gizon ospetsu onei eskari bat.*

Batu-Berri, jokera bat da eta talde naikoa aundi batek daroa. Bururik agirienak goian aitaturiko irurak dirala uste dot.

Villasante Euskaltzaindiaren buru lez eta talde orretakoak autarkiz eta beste aldeko euskaltzainen gogorik-egaitik atera ebena. Eta Euskaltzaindiak jokera orretakoen artean, ba dauka indarra ta ospea. Goiz Ar-gi'n oraintsu irakurri dogu, bera baiño obeto gertatuta dagozan lankideak dituala.

Mitxelena, guztiok dakigun lez, izkuntza gaietan guztiz jakintsua ta bide barri oneik sortzean oso arduratua izan zan.

Berriatua'k Anaitasuna aldizkariaren zuzenketea egiten dauala entzun dogu. Orrelan izanik, bere esku dauka, zati on bat beintzat, euskerearen bide barri au.

Gizon oneik eta euren lankideak Erriaren aurrean dauken erantzun-bearra, ikarea sartzeko lakoa da.

Lan apal onen bidez, nik dei bai egingo neuskie: Okerrak zuzen-tzeko ta, izkuntza-gaietan beintzat, alkartasuna egiteko gertu egon dai-tezela.

3.4. *Aldizkariarik geienak eta idazle talderik aundienak, lengo bideari jarraitu nai dautsoe eta Euskaltzaindiaren jokera alderdikorraz min artzen dabe.*

Gaurko idazleak jokera bitako taldeetan banatzea, gauza errezegia ta ariñegia litzake, baiña jokera bi orreik aurrean daukaguz eta ezin geinkez ukatu: BATU-BERRI izena jarri dautsagu jokera barri oneri, lan apal onetan eta izan ditugun itzaldi batzutan. Beste jokereari ERRI-BIDE izena ezarri geinkio.

Or daukaguz ba, euskerearen barrutian, talde aurkalari biok. Zein idartsuagoa? Zein lankide geiagoduna?

Gaitxa da galdera onei erantzuna emotea, baiña aurrean daukaguzan agerpenai begiratze bat egin dagiegun.

"Anaitasuna" da alderdi orretako aldizkaririk agiriena. "Zeruko Argia" k be geienetan orrantza jotzen dau. "Jaunaren Deia" be olako bide-tatik dabillega uste dogu. Aldizkari oneik, lenengo biak batez be, asko zabalduta dagoz. Ez dakigu zenbat arpededun daukezan, ezta zenbatek irakurten dituen be. Beste aldizkari batzuk be izango dira orretakoak, baiña guztien izenak aitatzea ez dogu uste bearrezko danik.

"Agur" izan dogu "ERRI-BIDE"koen aldizkari aurrelari bat, baiña ez dakigu aspaldion zetan dagon. Goiz-Argi, ostera, era-barrituta eta dotoretuta agertu jaku. Indartsu diardula dirudi. Bide onetatik jarraitzen dabe "Karmel" e ta "Redención" aldizkariko euskal-atalak be.

Gaur idazten diran libururik geienak zein alderditakoak ete diran be izan da eztabaida bat aldizkarien artean. Gaztañaga'k GOIZ ARGI'n erakutsi dauanez, ERRI-BIDE'koak geaigo dira.

Guk geure idazle-batzarrak egiten doguzenean, esaterako GOIZ ARGI ta AGUR'ekoak edo Kardaberaz'tarrenak, idazleen ugaritasuna pozgarria izaten da. Beste alderdian orrebeste idazle ba-legoz, ondo alaia izango litzake gaurko giroa, baiña ez dogu uste.

3.5. *BATU-BARRI'ren bide onetan atxea ikur bat ez ete da? Ez ete daroa bere aldean politika, erlejiño, gizarte-auzi ta izkuntza-gaietako eretxi berezi bat?*

Galdera edo itaun onei baietz erantzuten dautsoenak asko dira gaur. Erantzun ori errezegia dala uste dogu, alderdi bietan nastean era giztietakoak ikusten doguzelako.

Baiña olako zerbait ba dagola esan leike.

Politikako aurrelariak, erlejiñoaren aurkakoak, komunismoaren aldekoak eta euskera batu barriaren alde diran liburuak atxedunak izaten dira, baiña ortik ezin atera geinke atxedun guztiak pentzakera orreitan sartuta dagozenik.

Alderantziz be esan leike: Politikan aurrekoai jarraitzen dautsenak, lendiko erlejiño-eritxiak eusten dautsoenak, gizarte-arazoetan iraulketa aundirik gura ez dabenak, eta izkuntza-gaietan lengo idazleen bidetik doazena, atxe barik idazten dabe geienak, baiña ortik ez da atera bear atxe barik idazten daben guztiak eritxi orretako diranik.

Atxeak eta atxedun batuak ba dauka ba, beste eritxi orreikaz zelako edo alako zer-ikusia.

3.6. *BATU-BERRI'koen lengo euskera mordoilloa, asko obetu da.*

Euskera batuak lenago erabilten eban euskerea, "euskera mantxatua",

aspaldion asko ondu dala eta jatortasun baterantz jo dabela uste dot. Orain darabilen iztegia, jostekera ta itz-osotzea len baiño jatorragoak eta garbiagoak diralakoan nago.

Aurrerapen onek asko poztuten gaitu eta eurak be ez dabe ukatuko izan dituen aurkariak orretan asko lagundu dautseela. Kritikea, mingarria izanda be, osasungarria izaten jaku, osakai garratzen antzera.

Aukerapen aundirik egin barik, artu dagiguzan irakur-zati bi:

"Erri Gaztediak bere baitan aurrera daroan eginkizuna, hauxe da: "aztertu euskal gazteen egoera, karakteristikak eta aspirazionak, "gero euren alderdi guztiak osorik lantzeko. (194 zenbat. 1970). "Orain dela hogeit ta hamazazpi, hogeit ta hamar, hogeit ta bost urte, "beldurrez izututa omen zegoen euskara, eta euskararekin batera "euskaldunak. Ni ez nintzen hortaz jabetzen, txikiegia bainintzen; "eta nik neuk ez dut gogoan, Araoz'ko elizan inoiz erderazko ser-"moirik garai hartan entzuna dudarik".

Obekuntza ori azterpen sakon batek argiro agertuko leukela uste dot. Eta zuzentzailea, entzun dodanez, beti Berriatua izan dala.

Aurrera jo dagigun guztiok jatortasunean eta or izango da batasunera eltzeko bidea, orretarako biderik ba'dago.

3.7. *Sortu zan eztabaida-giroa gaur bertan be bizirik dago, aunditu egiten da.*

Arantzatu'ko batzar aren ondoren eztabaida-giroa, polemikea, sortu zala esanda dago. Eta giro ori gaurkoz ez da gitxitu, zabaldu baiño.

Giro onen agerpen bizi bat Bilbo'ko lenengo antropoloji edo giza-iriti astean izan zan: An izan ziran Mokoroa, ta Arenaza alde batetik, eta Kintana ta Irigoien bestetik. Mitxelena eratzaille zala, jente-aurreko alkar-izketan. Eta beste batzuk be bai. Argitasun aundirik ez zan atera, eta Mokoroa'ri ixil-azotea mingarri izan jakun. Mitxelena eratzailleak egin eban ori.

Alkar-joterik aundienak, gaur be jarraitzen dabe oraindiño, aldizkarietan izaten dira: AGUR eta GOIZ ARGI alde batetik eta ANAITASUNA ta ZERUKO ARGIA bestetik.

Idazti batzuk be izan dira, batez be ERRI-BIDE'koak idatziak: Labayen'en SASI BATASUNA ta Arenaza'ren TUS HIJOS Y EL EUSKERA (El mito del batua). Biok erderaz idatziak dira.

Labayen'ek Arantzatu'ko batzarra aztertzen dau, gero idazleak emon dautsoen erantzuna. batuaren aurka diran eziketa-errazoiak, kondairearen irakatsia agertzen ditu, Katalandarren bidea ta liturji euskera goratuz.

Arenaza'rena, geienbat ikastoletako umeen guraso erdeldunai idatzia da.

Eztabaida aundia sortu eban, baita, beste alderdian Quintana'k idatzi eban Ukronia ipuiñak be, eta euskaldun asko mindu zituan an agertzen dauan pentzakera baragarriak eta gizon aundiai agertzen dautsen itzaltasunik-ezak.

Ezpatak goian dagoz ba oraindiño, eta ori baiezteko, gaurko edozein adizkari irakurtea naikoa da.

3.8. *Mitxelena'ren bioloji-errazoiak.*

Mitxelena'k, batu-berriaren alde, errazoi baragarri bat agertu eban. Nik ez dakit izkuntzalari ospetsu batek olako errazoirik zelan atera legiken izkuntza gaietan, baiña or dago.

Bioloji-errazoiak, labur-labur esateko auxe da: Gazteak batuaren alde dagoz, eta gazteak indarra dauken lez, batuak (batu berriak) garaitzaille urtengo dau.

Zarrak eta gazteak ez dabe izkuntza bardin-bardiña iñoz be egiten, eta gazteena da geroaren izkuntzea. Ori munduko izkuntza guztietan.

Baiña egin-barri dan batu baten alde ekarri legike errazoi ori?

Nork erakutsi dau gazterik geienak batu barri orren alde dagozela?

Oraindiño iñork be erabilten ez dauan izkera bateri buruz olakorik esan leike?

Izkuntzetan eta izkeran, zarrakandik artu dogunak ez dauka gazteak erabilli gura leikeen beste indar?

Errazoi biologikoak, gazteak darabilrelako olako indarra ba'dauka, gazte oneik zar egiten diranean, urrengo gazteak ez ete dabe izango errazoi biologikorik? Ala beste batu *berriago* bat egin bearko dabe?

Batua izan bear ba'dau, zarrena ta gazteena bat eginda ez da sortuko?

Batuaren errazoiak ori baiño sakonagoak eta jatorragoak ez ba'dira, izkuntzalari asko ez dira izango aldekoak. Eta izkuntzalarien errazoiak ez da izango biologikoa, adimenezkoa baiño.

3.9. *Gipuzkoera osotua'ren bidea gaur.*

Ikusi doguz lan apal onetan gure aurretikoak eta gaurkoak, BATU-BERRI'n sartu barik egiten dituen lanak eta alegiñak.

"Batu-Berri"ko gazteak sarritan esaten dautse "Erri-Bide"koai: zuek ezer be ez dozue egin euskerea batzeko eta euskera batua bearrezkoa da.

Batu-Berri ori asmatzen eta zuzentzen egin diran lanak eta Erri-Bidean egin diranak alkartuta, Azkue'ren Gipuzkera osotua aurreratzen egin ba'ziran, gaur eztabaida-giro gitxiago izango zan eta beste txori batek abestuko eban gure oianetan.

Gipuzkera osoturantzta jotzen dabe gaur ateraten diran, ikastoletarako esku-liburuak, Erri-Bidekoak, jakifia.

Or daukaguz Aita Fermin'en elizti-lan ederrak eta Kosmos Ikas-liburu zoragarria. Eta lan sakonen artean Irala'ren "Bat bitan banatzen da" liburu ederra. Bide orretan aurrera jo bear dala uste dot.

3.10. *Ponpeu Fabra'ren bidea, gaur eta gutzat eredu dogu.*

Izkuntzearen batasuna ez da guk bakarrik izan dogun eta gaur dogun arazoa. Izkuntza guztiak edo geienak izan dabe olako arazoa eta urtenbide bat emon dautsoe.

Italia'n, idazle batek egin eban batasuna. Orretarako liburu eder bat eta guztientzat onartzeko lakoa idatzi eban; gero "Divina Comedia" izena ezarri eutsoena. Bakarrik ez egoan, baiña izkuntza batu zan.

Alemania'n, Lutero'ren Bibliak izan ebala olako indarra esaten dabe.

Frantzia'n, Paris'aldeko izkerea onartuz, agintariak egin eben batasuna.

Gaztela'n idazle onak eta ugari izan ziralako, Espafia'ko beste izkelkiak galdu ziran, izkelki bat nagusi izanez. Eta olako eredu asko izendatu ledikez.

Gogoratu dagigun Katalunya'tarren arazoa eta aurkitu eben bidea. Gai au Labayen'ek argitu dau AGUR'eko idaz-lanetan, eta "Sasi-Batasuna" liburuan zenbait.

Katalunya'n "La Renaxença" jokera bat egoan eta orrek artu eban batasun-bidea. Baiña ez dagigun uste izan ango ta emengo arazoak bardin-bardiñak diranik.

Lenengo "Jocs Florals" erakundearen bidez, izkelki guztiak indartu ziran.

Gero idazkera edo ortografi batasuna egin zan, Milá i Fontanals indartzaille zala, eta Antonio Borafull aurkalari. Eztabaida aundiak izan ziran eta Akademi bat sortzeko eritxiak ez eban aurrerapenik izan.

Laster urten zan Ponpeu Fabra, Katalunya'ko gizon aundia. Onek alegin aundiak egin zituan ango izkuntzea batzeko eta ez eban lortu 1932'ra arte. "Jocs Florals" 1832'an asi ziran eta gizaldi oso bat bear izan zan batasuna egiteko.

Gure Euskaltzaindiak, gaur be balioko diran idazkera-arauak, 1920'an egin zituan. Azkue'ren iztegia, Alcover i Fabra'rena baiño askoz lenago-koa da.

Gai oneitan areik baiño aurreragokoak izan arren, izkuntzea erabilten gara areik baiño nagiagoak. Or ekin'bear dogu aldizkarietan, irrati-urritikuskifnean, liburuetan, ikastoletan, eta geure izkuntzaz beti itz egi-tan.

3.11. Kardaberaz'tarren bidea ta eginbearra.

Orain ille batzuk dirala, Kardaberaz'tarren bazkun txikian, lan au idaztea ebatzi gendun. Eta nork idatzi billatu gendunean, an ziran idazleak, ni baiño jakitunagoak, sakonagoak, eta euskerea erabilten trebeagoak, oso lanpetuta egozan eta azkenean neuk artu bear izan neban eginbear au, neu be lanpetuta egon arren.

Lan au egitean, arlo zabalegia artu dodala uste dot eta orregaitik lar sakontzeko astirik ez dot euki. Gaiñera, jakingarriak billatzeko liburutegi batzuk ikusi bear nituan, baiña orretarako asti larregirik ez dot izan. Mokoroa'k biladu daust Jesus Solaun (Kamaraka)'ren idaz-lan bat eta Euskaltzaindiaren pentzakerearen kondairea egiteko asko lagundu daust.

Txarto edo ondo, bete dot nire bazkideen agindua eta or dago lantxo ori dan lakoa.

Baiña Kardaberaz'tarrentzat egiña dan ezkeru, eurentzat zerbait esan bearrean nago.

Zer egin bear dogu euskerea batzeko? BATU-BERRI'koakaz alkartu? ERRI-BIDE'koakaz zintzo jarraitu? Gipuzkoera osotua lortzen alegindu?

Nire ustez lenengo egin bear doguna, asko idaztea da: liburuak, liburuxkak, aldizkarietan, laster urteteko dan ERRIA egunkarian, irratian, urrutikuskiñean, t. a.

BATU-BERRI'koai batasunerako dei bat egingo neuskie eta geuk eskatzen doguzan baldintzat agertu: Atxea oso-osoan eta betiko kentzea, erriko izkuntzak kontuan dirala eta Gipuzkoa'koa eredu dala baturantzta jotea, alkarren itzaltasunaz jokatzeta, Euskaltzaindia jatorki barrizatzea, t. a.

Batasun ori oso urrin ikusten dot, eta orregaitik, gaurkoz egin bear doguna, Erribidekoakaz lanean sendo ekitea da. Ez ete dogu lortuko eurakaz gipuzkoera osotua egitea?

Asko gara, idazle jator asko dira gure artean, langille gogotsuak ugari daukaguz, guztiok benetako Euskalerrria maite dogu... Zer geiago bear dogu? Elburu on bat aurkitu eta ara eltzeko bideak ondo aukeratu. Elburu ori, nire ustez, gipuzkera osotua da eta orretarako bideak, batzar ugariak eta lan argiak eta errazoiuak.

Salbatu dagigun gure euskerea eta gure Euskalerrri jatorra, Erriarentzat eta Erriagaz egin dagigun lan ori.

Zeanuri'n, 1975'eko gabonillaren 26'an.

GAMIZ'ek.



ERASKIÑA

EUSKERE A BATZEAR I BURUZ, ERITXI BATZUK

Kondaira guztian, eta batez be Euskaltzaindia sortu zan aldian, gizon ospetsu ta jakintsu askok berba egin eben euskerea batzeari buruz. Irakurleentzat gogangarriak izango diralakooan, lantxu onen eraskin lez agertzen dodaz emen. EUSKO-GOGOA aldizkaritik, bere 1956 urteko, ILBELTZA-OTSAILLA, zenbakitik artu dodaz. Antonio ARRUE da idazlan aren idazle.

RESURRECCION MARIA AZKUE'K: (Neuk euskeratuta)

"Euskalkien batasuna, abostegi aldetik begiratu ezkeru, ez da eguneroko berbetarako, elertian eta batez be idazkietan erabilteko baiño. "Gaur milloerdi euskaldunek iru euskalki nagusi darabilguz. Orre-lan ezin geinkela jarraitu, gauza argia da; une bat etorriko da, eta ainbat lasterren etortea gura neuke, eta orduan berezko indar batek elertirako euskalki bakar bat aukeratzera bultzatuko gaitu; "orrelan izan ezik, gure liburuak argitaratzen doguzenean, iru argi-talpen egitera bearturik gagoz, eta orrelan ezelako elertirik ezin "leike sortu; iru eratako ikastolak sortu bearko doguz eta orrelan "ezelako eziketa-lanik ezin aurrera eroan izango dogu... "Laster etorri leiteken egun baten, edozein euskalkitan, Dante edo "Shakespeare edo Homero bat agertu leiteke. Olako idazle batek, "bat batean, euskalki bat euskera apain bakarra izatea lortu leike; "baiña, gure artean, olako gizon baten zain egotea, arrisku aundi-ko jokoa litzake. Idazle euskaldunak eta gai onetan lan egiteko "gertu dagozanak alkar artu, eta, elerti-izkuntzarako egokiena litzake "ken euskalki bakarra aukeratzeta, bide egokiagoa ta ziurragoa izan- "go litzakela uste dot.

ALTUBE'TAR SEBER'EK:

"Idatz-izkeriak erriko izanez gainera, batetariko izan bear dau. Be-ti bardin ez, baiña aldi baten orontzat bardin bai. "Aintziña izkera asko agertzen ziran orain gure au bezela, ezetariko "batasun barik... gaurko munduko ikaste ta artu-emonak, il edo "bizizko indarrez eskatzen deutse izkerai euron idazkuntza-batasuna;

"ta geu euskaldunok, diñogu barriro ere, aurkitzen gara il edo bizizko
"bide orri jaramonik egin nai ezik, beste izkera oroen azpizan".

KANPION ETA BROUSAIN'EK (Neuk euskeratuta)

"Auxe da aukerea: Edo eskerea batu egingo da eta orrelan gaurko
"eta geroko euskal-jakintzaren buratapenak eta asmapenak, asi Zu-
"beroa eta Bizkaia Euskalerriko seme guztiak errez agertzeko gai
"gingo da, orretarako euskalki apain eta erritar guztien elizti-gaiak
"alkartuaz eta euskalkietako itz eta itz barriak alkarri emonaz, edo,
"nai ta nai ez, *patué* bihurtu ta il egingo da".

ORIXE'K (Neuk euskeratua):

"Euskalki geiegi diralako aieneka ekiteak eta guztiakaz bat egiñazo-
"teko euskalki guztietako izenak artuaz, baiña beti be itz-osotze es-
"tu eta neurtua artuaz, ori izabidearen eta, eder-lanen aurka dagon
"ta ulertu eziña dan bidea da eta euskerearen galbidea, gelditu ba-
"rik, aurreratu egingo leuke".

JULIO URKIJO'K (Neuk euskeratua):

"Arin eta gogorkeriz egindako batasunak, amets utsaren antza
"dauka".

PIERRE LAFITE'K emeki-emeki jokatu bear degula euskalkien batasun arazo
ontan, esaten zigun, bestela, euskera ez jazo, baizik ondatzeko arris-
kuan ipiñiko genduala... Ta iñor minberatu ta ilduratu gabe, gai-
fiera.

AITA KARDABERAZ'EK, guztiok, Bizkaiko, Nafarroa'ko eta Gipuzkoa'ko
euskera ba'geneki, ain ederki batean nola bestean ta iruretan, boz,
itz edo berbaz usatuta jokatuko gendukela, zion.

LARRAMENDI'K: (Neuk euskeratuta):

"Euskalki guztiak alkarren parean ipiñi ezkeru, onena, argitsuena
"ta atsegiñena dan euskalki bat ba dago: gipuzkera. Au baieztatze-
"ko, beste euskalkiak darabiltzen askoren esanak ekarri geinkez.
"Euskalki au bakarrik dago alde guztierako euskaldunez inguratuta,

"Bizkaia, Araba, Nafarroa ta Laburdi bere inguruan dagoz eta. Orre-
"gaitik euskera idatzian Lapurdi'tarra beste guztien gaiñetik izan
"arren be, euskera mintzatuan gipuzkera da garbitasunik geien eta
"argitasunik ederrena daukana".
"Gipuzkera dala esan geinke, edozein euskaldunentzat atsegiñena ta
"ulert-errezena, itzetan ugariena, barrua agertzeko egokiena, esaku-
"nerik eta atzotizik geien daukana".

KARDABERAZ'EK:

"Gure izkera, beste bien erdikoa bezela, Nafarroa'n baita Bizkaia'n
"ere, geien aditzen da. Baiña ez Nafarrak Bizkaia'koa, ta ez Bizkaia'-
"tarrak Nafarroa aditzen dute, ta bata besteagandik urruti ta ba-
"koitza bere bidetik dabil".

MOGEL'EN (Neuk euskeratuta):

"Orrialde baten Peru Bizkaia'tarrak egin dagila itz eta ondokoan
"Peru Gipuzkoarrak... Ori be bururatu jat. Orrelan euskalki bien
"ezbardintasuna argi ikusiko litzake... Lan au egiteko oztopo batzuk
"izan dodaz. Ba leiteke beste lanaldi baten au be egitea.

GERRIKO (Neuk euskeratuta):

"Jesukristo'ren ikasbide guztia azaltzeko, oraindik osotu gabeko saio
"au argitaratzen dogu. Eun eta amalau berbaldi dira eta gipuzkeraz
"idatzi dogu, orrelan Nafarrak, Bizkaia'tarrak eta Arabarrak be geie-
"nak ulertu dagien".

LORENZO HERVAS'EK (Neuk euskeratua):

"Gipuzkera deritzaion euskalkia Gipuzkoa'n erabilten da, eta errial-
"de au euskaldunez inguratuta dagon ezkeru, euskerarik garbienak
"antxe izan bear dauka esan lei" (Catálogo de las lenguas, 1804).

REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA'K: Bizkaia'ko euskalkiari Dialecto Vizca-
"yo o vizcaíno deitzen dió, Lapurdi'koari Labortano eta Gipuzkoa'-
"kari *común*, dialecto común (Manual Histórico Español).

AZKUE'K (Neuk euskeratuta):

"Lurrez eta izkuntzaz erdikoa dan eukalkiari indarra emoteko, eus-
"kal izkuntzalari guztien alegiñak batzeko ordua etorri dala esan
"lei... Ez da euskalki au besteak baiño aberatsagoa ta sakonagoa, bai-
"ña Berau erabilliaz, beste edozeiñegaz baiño errezago alkar ulertzen
"dogu euskaldunok. Berau artu dagigun ba, gure idazkietan eta irasi
"bear doguzan ikastoletan, eta izkuntzea biziko da".

ISAAK LOPEZ MENDIZABAL'EK (Neuk euskeratuta):

"Euskalkirik zabalduena ta geien irakurten dana, gipuzkerea da.
"Beronek dauka idazlerik geien eta beste lurraldeetako batzuk be
"berau artu dabe. Erdikoa izateak eta iztegi ugaria eukiteak, gure
"elertirako egokiena izatea emoten dautsoe euskalki oneri. Beste eus-
"kalkietatik artutako itzakaz aberastuten ba'dogu oraindik asko obetu-
"ko litzake eta zalantza barik, geien erabillia eta errezen ulertzen
"dana izango litzake".

VILLASANTE'K:

"Bai antxiña-aldetik eta bai idazleen kopuru, bikaintasun eta denen
"artean osatzen duten batasun ederragaitik ere, lapurtar klasikoak
"irudi du egikizun unetarako egokienak".

ORIXE'K:

"Izkuntza berriz? Or dago korapilloa! Ez da guzien euskera, guzien
"euskerarik ez baita. Izan ba'litza, ua emanen nizun. Geienik kon-
"preni ditekena artu uste dut, asi Zuberotik eta Bizkai'raño. Gaiñe-
"ra bertsotan ari galararik, obeki elkar aditzen dugu euskaldunck.
"Napar-euskera Lapurdi'n eta Gipuzkoa'n ez da arrotz egiten. Au
"baiño au euskera ohea danik, bearrago danik, ez naiz asiko, baino
"gauza bat gogora zait: euskerarik alkartuena Ameriketara egiten
"dutela nago, ta erriak beure buruz ipintzen dun oiñarri au, ona
"dirudit diteken batasunerako edo diteken alkartasunerako".

(Neuk euskeratuta):

"Eleiz-iztokirako, oraindik, gipuzkera dala uste dot egokiena ta sen-
"doena, baiña eleizako ez diran idazkeretarako, lapurditarra egokie-
"na Demostenes eta Pindaro'k Aitor'en izkuntzaz itz egin bear ba'-
"leukee, bata itzaldietarako eta bestea odetarako artuko lukeez...

"Lisias eta Kikero'k edo Sokrate'k, gipuzkera artuko leukee oiña-
"rritzat; Anakreonte'k, Luzian'en eta Aristofane'n euren barregai
"eta izeketarako, ez dot uste Auñamendi-aldekoa baiño ohea aurki-
"tuko leukeenik".

MENDIBURU'K:

"Nonai adi ditezken itzak billatu ditut alegiñean, bada liburua baz-
"ter guzietako egina da, ta itz guziak ez dituzte era batean bukatzen
"euskaldun guztiak".

ANTONIO ARRUE'K:

"Batasun ortarako, zabu egin gabe, euskalki bi artu bear giñizkela
"oiñarritzat, derizkiogu: Gipuzkoa'koa ta Lapurdi'koa".

GAMIZ.

¿ASKO ETORRI DIRA ala ASKO ETORRI DA?

Bere "Sustrai bila" liburuan Alvarez jaunak au dio:

"1.6.—Mugagabe edo indeterminatua noiz erabil.

Ohar bat aurretik".

(Emen nik bi oarpen egingo nituke:

1) "mugagabe" ez-tut uste "indeterminatu" itzaren itzulpen ona dani-
nik, "mugagabe" itzez-itx "ilimitado" baita; "indeterminado" ZEIÑ adie-
razten ez-tuana danez'kero' "zeingabe" esatea egokiago litzakela esango
nuke;

2) "noiz erabil" dio Alvarez'ek. Itxuraz "noiz erabilli bear dan"
adierazi nai zuan. Altube'k zionez' aditzari -i, -tu muturrak kentzea "ezan"
eta "edin" aditzekin bakarrik egiten da; esate baterako' etor dedin, ekar
dezan, sar dedin, eska dezan. Beraz "inoiz etorri izan da, zerbait ekarri
edun du, noiz erabilli duan, atzo ibilli zan" esan eta idatzi bear dira,
aditzari muturrik moztu gabe).

"Euskeraz, beti ezkerotik, bi taldetan banatu ditu euskaldunak, lu-
meroeri dagokionez, gauzak eta ideiak: hiztunekiko ezagunak eta muga-
tuak batetik (ETXEA/ETXEAK); eta hiztunekiko ez-ezagun odo muga-
beak bostetik (ETXE). Horregatik gure deklinabidea: hirukoitza, eta ez
bikoitza.

"ETXE" hitza aipatu dugun ezker, ekin dizaiogun berari. Lumeroari
gagozkiola beti, españolak eta frantsesak bi talde bereizten ditu:

"Batean: CASA (la, una)=MAISON (la, une).

"Bestean: CASAS (las, dos, tres, cien, pocas, muchas, cuántas?)=MAI-
SONS (les, deus, cent, peu de, beaucoup de, combien de?).

"Horregatik, ERDERAZ ESKOLATUAK GARELAKO, euskeraz ere BIKETA
HORRI EUSKAL BIKETA BAT AURKITU-NAHI IZATEA. (Euskaldunak ez bait
daki artikulua erderaz berex doala; eta euskeraz loturik). Alegia: erdal
estruturari, kopiakeria bat eginez, euskal sasi-estruturara bikoitz bat eran-
tsi nahia. Kalko edo berdinkeria hau, hain zuzen, hizkuntza-estruturara
truke bat den aldetik, zuzenki doa euskal gunaren kontra eta gaitzetsi egin
behar da.

"Euskerazko lumero-estruturara HIRUKOITZA baita. Oraindik ere gure
indeterminatua eta gure plurala bereizten ez dakitenek, ez dute ez euskal-
dun intelektual izenik merezi, eta ez gutxiagorik ere. Zeren-eta gure hiz-
kuntzaz mintzatzen eta idazten egokiro jabetu ez den euskalduna, besterik
izan bait diteke apika; baina ez euskaldun intelektuala eta Euskal Herria-
ren aintzindari kultura-gainean. Hau esan beharrik ba ote dago oraindik?"
(Sustrai bila, 40-11 aa).

Asiera orren ondoren' eziñ ukatuzko egi aundiren batzu espero zitez-
kean. Eta ona zer dion:

"—Andoniri bi LIBURUAK galdu zaizkio.

"Hitzegiten ari direnek badakite zein diren bi liburu horiek; bestela
hau galdetuko lukete: 'zein bi LIBURU?'

"Baina eman dezagun orain beste hau:

—Andoniri bi LIBURU galdu zaizkio. (Bego horretan oraingoz 'zaiz-
kio' hori).

"Hitzegiten ari diranek hau konprenituko dute: *bi* direla galdu di-
ren liburu horiek, baina *zein* liburu ote ditezkean ez dakitela.

"Lehenengo esakuntza, beraz, 'mugatu-anitza' dugu (= plurala); eta
bigarrenean, BI ALE IZANIK ERE, 'mugagabe' (= indeterminatu) bat.

"d) Eman dezagun orain:

—Zenbat ADISKIDE ikusi duzu?

"Ez dakigu ez nor diren adiskide oriek, ez xehetasunik bat ere. 'Adis-
kide' hitzak, beraz, mugagabe izan behar du.

"e) Eman dezagun:

—GUDARI asko hil zen urte hartan.

"Berriz ere: 'asko' izanagatik ere, hizketan ari direnek ez dakite
xuxen nor diren gudari horiek; hitza, hortaz, mugagabe gisa doa: 'guda-
ri', ez 'gudariak'.

"Mugagabe edo indeterminatuak, beraz, ez du ezer ikustekorik BAT /
ASKO erdal zatiketarekin: erdal biketa hori erauzi egin behar dugu eus-
keraz. Mugagabe izatea ala ez izatea, beste honi datzeko: EZAGUNA / EZ-
EZAGUNA izateari datzeko hain zuzen.

"Arreta jarri ezker, bestalde, hau erreparatuko dugu: euskerazko
indeterminatuari *artikulurik eza* dagokiola erderaz". (Sustrai bila, 42-43 aa).

Garbi dago azkenik dion ori orrela ez-tana: gaztelaniz *voy a casa*
esatean guztiek badakie mintzo danaren etxea aipatu dala. Eta euskeraz
ere berdin: *etxera noa* esaten dudanean' jakiña da *nere etxera* noana. Eta
oietan ez-tago gaztelanizko "artikulurik", eta euskerazko "zeindungarririk"
ere ez.

"Andoniri bi liburu galdu zaizkio" eta erderazko "A Antonio se le
han perdido dos libros", "Antoine a perdu deux livres" berdin berdinak
dira auzi oni buruz: zein liburu galdu zaizkion ez-ta adierazten.

"Andoniri bi liburuak galdu zaizkio", "A Antonio se le han perdido
los dos libros", "Antoine a perdu les deux livres" gai oni buruz berdin-
berdinak dira: arako bi liburuak, los dos libros de marras, les deux livres
en question.

Itxuraz Alvarez'ek beste zerbait ez-tu ikusi: euskerazko batzutatuko
zenbait itz erderaz plural-itxuraz naiz singular-itxuraz erabiltzen dirala,
eta euskeraz berriz batzu-itxura naiz bakarr-itxura aditzak ematen diela.
Ona adibide batzu:

"¿Qué amigo has visto?" eta "¿Qué amigos has visto?". "Quel ami
as-tu vu?", "Quels amis as-tu vu?"; oietan *visto* eta *vu* batentzat naiz

batzuentzat berdín da; euskeraz alderantziz da: "¿Zeiñ adiskide ikusi duk?" eta "¿zeiñ adiskide ikusi dituk?"; aditzak adierazten du adiskide bakar bat ala adiskide batzu aipatzen ditugun.

"Ha dicho una palabra" eta "ha dicho muchas palabras"; "il a dit un mot" eta "il a dit beaucoup de mots"; "itz bat esan du" eta "itz asko esan ditu".

Gaztelaniz batzuetan "muchos" ordez "mucho" esaten da; prantzesez "beaucoup" bietara erabiltzen da, eta euskeraz "asko" ere bai. Erderaz ize-nari -s gibel-letra erantsiz bereizten ditude, guk aditzaren bidez:

"Ha comido mucho pan" eta "ha comido muchos panes"; "il a mangé beaucoup de pain" eta "il a mangé beaucoup de pains" (emen belarriak ezin bereizi dezake); "ogi asko jan du" eta "ogi asko jan ditu".

"Ardo asko edan du" eta "ardo asko edan ditu" bi gauza dirana ikusten eztauanak' euskeraz eztaki ongi.

Aipa dezagun Alvarez beraren adibidea: "gudari asko hil zen urte hartan". Au gaztelaniz bitara esan ditekete: "aquel año murió mucho combatiente", naiz "aquel año murieron muchos combatientes". Prantzesez ere berdintsu joka liteke: "Ce matin il est mort beaucoup de combatants" naiz "Beaucoup de combattants sont morts ce matin". Euskeraz ere bai: "Urte artan gudari asko il zan", naiz "gudari asko il ziran". Euskeraz ezin duguna *asko* itzari batzu-itxura ematea da: *gudari askok il zan* ezta euskeraz, eta *gudari askok il ziran* ere ez.

Alvarez'ek diona, alegia "biketa hori erauzi egin behar dugu" eta beti *asko da* idatzi' idazle orrek "intelektual" izena sekula-santarako ukatuko baldin badit ere' ezin onets nezake. Arau ori beti erabilliko bagenu' sekulako astakeriak idatzi bearko genituke. Esate baterako:

"Atzoko biltzarrera euskaltzaiñ asko etorri zan". Eztago gaizki, baiña "euskaltzaiñ asko etorri ziran" ere ongi dago, nere ustez obeki. Baiña itz egiten duana ere euskaltzaiña eta biltzarrera etorria baldin bada, eta Alvarez'ek nai duan bezala mintzo bada' onako aldrebeskeria esan bearko du: "atzo euskaltzaiñ asko etorri nintzan". Eta ori ontzat emango duan euskaldunik eztago. Ori ontzat emango lukenak' besterik gabe' euskaldun ezta adieraziko bailuke.

Itxuraz' gure zeintze-atizkiak eta erderazko artikulua jatorriz zer diran eztu ikusi Alvarez jaunak. "Este hombre", "ese hombre", "(aqu)el hombre" = "ille homo" = "il uomo" euskerazko *gizon au*, *gizon ori*, *gizon a* dira, loturik *gizonau*, *gizonoi*, *gizona*; prantzesez eta bizkaieraz berdiñ: "onako gizon au" = "cet homme-ci", "orako gizon ori" (prantzesez *ori*'ren ordekorik ezta, eta beste izkuntza askotan ere ez), "arako gizon a" = "cet homme-là".

Alvarez'ek au dio: "euskerazko indeterminatuari *artikularik eza* da-gokio erderaz". ¡Noski!: artikulua ortarakoxe baitude, zeinduntzeko. *

(*) Ageri, danez zeinduna eta zeingaben erderaz ere badira, euskeraz bezalaxe. Ikus Real Academia'ren iztegia: *Artículo: 12*. Parte de la oración, que sirve principalmente para

Alvarez'ek aipatzen duan bat ikus dezagun: *Nere etxean izan zen*, gaztelaniz eta prantzesez *estuvo en mi casa* eta *il fût a ma maison* beraz artikulurik gabe, baiña beste erdera batzuetan artikularekin da: "fu stato nella mia casa", "ele foi na minha casa". Ona olerkari portugaldar batek idatzia:

Ai! astros da minha terra

Quem me dera o vosso alvor! (Francisco Gomes d'Amorim, O desterrado) eta italiar batek:

Questa barca rattoppata
É il mio trono imperial,
La mia culla, la mia bara
Il mio talamo nuzial. (G. Pennacchi, Il marinaio).

Katalaneraz ere berdín: la mea xiqueta, el teu novio, lo seu amor.

Obe dugu, beraz, erderak utzi eta euskaldun jatorren euskera ikastea. Alvarez'ek beste liburu batean onako au dio:

"Erderakada" esan ohi duguna, estructures-aldaketa da: geure estructures alde bat uzten dugu, bitxikeritzat jorik, eta atzerritar estructures "logikoa" onartzen, bai fonetikan, bai semantikan. Hau guztia, jakina, oharkabean gertatzen da: hizkuntzaren erroa Inkontzientean dago, aurre-rago erakutsiko dugunez. Baina oharkabean gertatuagatik eta gertatzeagatik, pentsakera-aldaketa sakon baten zantzua dira. Alegia: atzerritarrek berezten dutena, berezkuntza logiko eta egokitza hartzen dugu, eta eutsi egiten diogu; atzerritarrek berezten ez dutena, aldiz, bai fonetikan eta bai semantikan (eta honi buruz ari naiz bereziki liburu honetan), "beharrik gabeko berezkeriatzat" hartu eta bazterrera. Hau gertatzean, beraz, geure etnia-pentsakera berezia galdu, eta hizkuntza berriari lotzen gatzazkiola esan daiteke". (Hizkuntza eta pentsakera, 25a).

Ontan Alvarez'ekin zearo batera natorr, eta adibide nabarmen bat aipatu nai dut emen. Idazle zaarrek orrelakoak idatzi zitudela eta besterik gabe' idazle batzu onelakoak idazten asi zaizkigu:

"Peru etor dedin nahi dut, eta etor dedin etor dedila esango diot".

Au erderaz bezalaxe pentsatu eta idatzia da: "Quiero que venga Pedro, y para que venga le diré que venga". Que venga, que venga, que venga: iru aldiz aditz-joko berbera. Prantzesez ere berdintsu: "Je veux

denotar la extensión en que ha de tomarse el nombre al cual se antepone. || *definido* o *determinado*: El que principalmente sirve para limitar la extensión del nombre a un objeto ya consabido del que habla y de aquél a quien se dirige la palabra. Tiene en singular las formas *el, la, lo*, según el género, y en plural *los, las*. || *genérico, indefinido* e *indeterminado*. El que se antepone al nombre para indicar que éste se refiere a un objeto no consabido del que habla ni del que escucha. Es en singular *un, una*, y en plural, *unos, unas*.

que Pierre vienne, et pour qu'il vienne, je lui dirai de venir"; vienne, vienne bi aldiz berdiñ. Euskeraz iru aditz-joko erabiltzen ditugu: "Peru etortzea nai dut, eta etor dediñ' etortzeko esango diot". Etortzea nai dut, etor dediñ, etortzeko esan: iru jokaera. **

Alvarez'ek diona garbi-garbi dago emen: erderatikako itzulpen kaxkar bat euskera "klasiko" eta bikaintzat sartu nai digude. Eta orrelako erderakadak idazlerik onenek ere egiten ditude; ona bi ale:

"Ezpatatik hilarazi zuen" (Duvoisin). "Il fit mourir par la glaive" Crampon). "Il fit périr par la glaive" (Bible de Jérusalem). ["Y mató a cuchilla" (Cantera-Pabón). "Y mató a espada" (Straubinger). "Hizo morir a espada" (Martín Nieto)]. "Occidit autem Jacobum fratrem Joannis gladio" (Vulgata). Olabide'k jatorr euskeraztu zuan: "Bizia ere Yakob'i, Yon'en anayari, ezpatatz kendu zion" (Act. Ap. 12,2).

"Eta... deilberatu nuen... liburutto baten... egitera". "Et je me décidai à faire un petit livre". "Y me decidí a hacer un librito". (Axularr, 6) *Egitea* bear zuan.

"Ordea gero eskatu zeikanean Iondone Ioannes Baptistaren buruaren, galdu zuen iuramentuak indarra, etzen konplitu behar". "Quand on lui fit la demande de la tête de S. Jean Baptiste...". "Cuando se le hizo petición de la cabeza de S. Juan Bautista...". Emen *burua* bear zuan. (Axularr, 172).

"...hala balira nahi zendukeien gauza batzuk". "...algunas cosas que quisierais que fuesen así". Emen *hala izatea nahi zenukeien gauza batzu* bear zuan. (Axularr, 108).

Berriz diot: idazle bakar batekiñ ere ezin piatu gindezke. Alvarez'ek berak uste duan baiño ere arrazoi aundiagoa du.

ZATARAIN'DARR ANBROSI.

(**) ...hil zedin galdatu zaroen bere biziari... (Duvoisin III Reg. XIX, 4) *petivit animæ suæ ut moreretur.*

REFLEXIVUM - RECIPROCUM

"Reflexivum" erderaz, 3'gn pertsonan, "se" batekin egiten da: "Se mira en el espejo". Bañan 1go, 2'gn pertsona danean, *me, te, nos, os'*ekin: "Meo veo, te ves (se ve); nos vemos, os veis (se ven)".

"Se" ori, ordea, erderaz beste batzuetan ere erabiltzen da:

1) *pasiva-impersonal* danean: "Esto *se* dice, esto *se* estila, esto *se* lleva";

2) *reciproca* danean: *Se* ven los dos en la calle";

3) zenbait aditz *intransitivotan*: "*Se* murió", "*Se* marchó", "*Se* cayó".

Benetako reflexivoa, beste iru oetatik berezi bearra dago.

Reflexivoa da, "nork bere buruari" esan nai duanean. Eta, esan ere, reflexivoa euskeraz jator ola esan oi da: "Nik nere burua, ikusten det; zuk zeure burua ikusten dezu; ark bere burua ikusten du; guk geure burua ikusten degu; zuek zeuren burua ikusten dezute; aiek beren burua ikusten dute".

Guzti au, ain gauza garbia dan arren, erdal-reflexivoaren indarrez, batzuren batzuek esan oi dute: "Ni ikusten naiz; zu ikusten zera etab". Erdal-reflexivoa ala bait da: "Me veo; te ves, se ve, etc.", intransitivo. "*Se* murió", "*se* marchó" etab. bezela: "Il zan; joan zan etab."; "Yo me vi = Ni ikusi nintzan"...

Euskera jatorrean reflexivoa ez da egiten aditzaren intransitivo-jokoaren bitartez, transitivoaren bitartez baizik: ez "naiz, zera, da"ren bitartez: "det, dezu, du"ren bitartez baizik; bañan ez "Nik *ni* ikusten det" esanaz, "Nik *nere burua* ikusten det" baizik; ikusten dedana *neroni ez* banintz bezela (lenengo persona), irugarren pertsona bat bezela baizik: "nere burua"... Eta berdin, "zuk zurea, eta ark berea"... (1).

* * *

Irugarren pertsona-kontu ortan, gauza bera gertatzen da, *reflexivoan* ezik, baita *reziprokoan* ere.

Reciprocoaren izaera, gauza jakiña da: alkarri zerbait egitea. Eta esan

(1) Olakoetan guk, euskaldunok, «nik neroni» esan bearren, sinekdokez (*pars pro toto*) «nik nere burua» esan oi degu, Bibliak «nere anima, nere biotza, nere espiritua, nere guntzurrunak» esan oi duan bezela.

ere, reziproca euskeraz jator ola esan oi da: "Guk *alkar* egunoro ikusten degu: zuek *alkar* egunoro ikusten dezute; aiek *alkar* egunoro ikusten dute".

Ageri danez, reziprocoak euskeraz, reflexivoaren beraren egitura du. Gauza bat du reflexivoarengandik bestelako: aditz-jokua beti ere *askozkoa* duala, eta ez bakarrezkoa: *gu*, *zuek*, *aiek*. Eta beti ere *transitiboan*, ta ez *intransitiboan*: "*Alkar* ikusi *degu*" eta ez "*Alkar* ikusi *gera*"; ikusi deguna beti ere beste norbait balitz bezela... (2).

* * *

Reciprocum.—"Alkar ikusi degu; alkarren berri ba degu; alkarri esan genion; elkarrentzat ez degu gorrotorik; alkarrekin bizi gera; alkarrengandik partitu giñenean...; elkarrengana bilduko dira; alkarrengan ez dute konpianza audirik".

Reflexivum.—"Nere burua ezagutzen det nik; nere buruaren kaltean nabil; nere buruari esan nion; nere buruarentzat lotsagarri...; nere *baitan* esan nuan; bere baitara onetara) etorri zanean...; nere baitatik (onetatik) atera nintzan; nere buruarekin aserre nago".

M. L.

(2) Reciproca Biblian perifrasis baten bidez egin oi da; adibidez: «Esan genion, batek (gizonak) bere lagunari, bere anaiari». Gnk, edota perifrasis-bidez: «Esan genion *batak besteari*»; edota sintesis-cran; «Esan genion *alkarri*»; beti ere aditza askozko eran ipiñiaz, eta aren zeikia, alkartasun zerbait adierazten duan formula baten bidez, dala *alkar*, dala «batak beste»; Bibliak «lagun» edo «anai» esanaz bezela.

COROMINAS'EN IRITZI BATI BURUZ

Aita Villasante'k, bere "Palabras vascas compuestas y derivadas" liburuan auxe dio:

Sufijo *-ola*. Se emplea aún como palabra suelta, significando "fábrica", "ferrería" (B, G) y también "morada", "tienda de campaña" (L). Véase Azkue, Dic. sub verbo. —Michelena apostilla: "Está claro que *ola* se refiere primero a una construcción pastoril (creo que me lo tradujeron por *la muidera* en Isaba) y secundariamente "ferrería". El carácter pastoril salta a la vista en Artola, Vildosola, Anzuola, etc.". Cf. MICHELINA, Apellidos Vascos.

Como sufijo, es usadísimo en Toponimia, donde a veces tiene el sentido de ferrería: Mirandaola, Goikolea, Bengolea, etc. (Nombres de antiguas ferrerías de Legazpia (Guipúzcoa), pero otras muchas veces parece tener un sentido genérico de lugar: Azaola, Iraola, Elorrola, Sasiola, Loiola, Sarasola, Arriola, Arrola, Urrexola, etc.

Entre los vocablos neológicos formados con este sufijo, son un tanto conocidos Indarrola=central eléctrica (lit. fábrica de fuerza), Margola=tintorería (lit. fábrica de color), Ikastola=escuela vasca (lit. fábrica o lugar de aprender).

Distinto es el caso de *Txabola* y *Etxola*. *Txabola* es claramente un préstamo, que luego se ha extendido al castellano a partir de nuestro país como puede verse en Corominas. *Etxola* puede ser contracción de *etxe-xola*, expresión por otra parte, atestiguada en *Noelak* de Etcheberri (véase edición Akesolo, p. 50). Ahí, en último término *-ola* es el lat. *-ola*. (Debemos estas indicaciones a L. Michelena).

Emen Corominas'ek "itxuraz" ziona gauza zigurtzat jotzen da. Corominas'ek auxe dio:

CHABOLA, 1891 'barraca' 'albergue provisional'. Del vasco *txa(b)ola* 'choza' 'baña' (también *etxola* y *etxabola*), palabra ya algo antigua en vasco, 1630, si bien es probable que este idioma la tomara del fr. antiguo y prov. 'jaole', 'jaula', 'cárcel' (hoy *geôle*, procedente del lat. *CAVBOLA* 'jaulita'), alterándola en su forma y en su sentido por influjo del vasco *etxe* 'casa'.

Beraz Corominas'ek "probablemente" dio, eta probablemente itzak gatzelaniz eztu zigurtasunik adirazten. Real Academia'ren iztegiak dionez: *probablemente*: Con verosimilitud o fundada apariencia de verdad. (Alemaneraz ere *wahrscheinlich*=egi-itxurakoa; *Wahrscheinlichkeit*=probabilidad; euskeraz *agizkotasuna* esan genezake).

Aita Villasante'k Corominas'ek zalantza diona zigurtzat jotzen du:

"claramente". Real Academia'k ere bai: chavola = chabola (Del vasco chabola, y éste del fr. geôle del lat. caveola, jaula).

Onen kontra bi gertaera aipatuko ditut:

1) Latiñezko CAVEOLA'tik euskeraz KAIOLA eratorri da, eta *kaiola*'k eztu *ixaiolarik* sortu;

2) Prantzesezko *geôle*'tik, obeki esateko "geôlier" = *presozañ*'etik euskerak noizpait "jaulierra" atera du: ikus Azkue'ren kantu-liburuan: C. V. 408:

"Jaulierra, othoi, beha,
egidazv plazera:
zv, othoi, goan behar zitzaitzat
ene adiskidetara
ea zergatik ageri naien
ilunpe triste huntara.

Jaulierra es palabra tomada del francés geolier (carcelero)".

Jaulier itza Azkue'ren eta Lhande'ren iztegieta eztago, beraz eztiduri asko zabaldu danik.

Ola ardientzakó-edo aterpea edo etxetxo baldin bada' gauza aski argidago. Salaberri'ren kantu-liburuan onakoau dago:

Olha.—J'ai traduit ce mot par: Châlet, bien que ce dernier mot ne rende pas le sens complexe de la locution basque. Le *olha* est une propriété d'une nature toute particulière: dans la Coutume de Soule, écrite en 1520, on la désigne sous le nom béarnais de *cayaláa*, en français *cayolar*. Le droit de *cayolar* consiste principalement: 1.º dans la propriété d'une cabane pour abriter les pasteurs et fabriquer des fromages justement renommés, d'un parc entouré de clôtures pour les agneaux; 2.º dans le droit de parcours pour les bêtes ovines, sur une étendue très-considérable. Ces *cayolars* sont des propriétés indivises; chaque part ou sápplle *tchotcha*; l'étendue du droit de parcours, pour chaque *cayolar*, est désigné sous le nom de *bullta*. Il y a en Soule plus de 80 *cayolars*: leurs *bullta* son fixées par un usage immémorial.

Salaberri'k Etxahun'en lenengo bertsoa onela idazten du:

Belhaudiko bortian Orgambisk'olha,
Bere deskantsiala han ardiak alha:
Goizan igorten tie olhape behera,
Artzan-hor gaizua emanik gida,
Arratsan ützültzia gomendatürik untsa.
Sur la montagne Belhaudi est le châlet d'Orgambideska:
les brebis y paissent tout à leur aise;
Le matin on les envoie vers le bas de la montagne,
Après leur avoir donné pour guide le chien de berger.
Et leur avoir recommandé de revenir le soir.

Emen *ola* itzaren jatorrizko adirazpena zabaldu egin da. Gaztelanizko *cabaña* itzari ere gauza berbera gertatu zaio: ona Real Academia'k zerdion:

cabaña. (Del lat. *capanna*, choza, de *capere*, caber) f. Casilla tosca hecha en el campo, generalmente de palos entretejidos con cañas y cubiertas de ramas, de paja o de hierbas, para refugio o habitación de pastores, pescadores y gente humilde. / 2. Número considerable de cabezas de ganado. / 3. Recua de caballerías que se emplea en portear granos. / *real*. Conjunto de ganado trashumante propio de los ganaderos que componían el Concejo de la Mesta.

cabañal. adj. Dícese del camino o vereda por donde pasan las cabañas. / 3. Sal(amanca). Cobertizo formado con maderos y escobas para cobijar el ganado.

Onela garbi dago, neretzat beñipeñ, *ola itzak* aterpea adirazten duala, eta beste adirazpen guztiak ortatik sortu dirala. Beraz Azaola, Elorro-la, Sasiola eta gainarakoetan *ola* atzizkiak *ola* esan nai duala, naiz adirazpen jatorrean, naiz adirazpen zabalean.

Indarrola "jakitunen" batek sortua da, itxuraz, euskaldunik geienari "indarr-etxe" entzuten baitzaie. "Margola" ere sasi-jakitunen batek sortua izan bear du, eta gaizki egiña, inñolaz ere. Oñati'n bada "Margola" izeneko toki bat, eta aspaldi eztalarik ladrilluak egiten ziran an; "olak" edo aterpeak neronek ere ikusi edun ditut. Agian *marga + *ola*. Real Academia'k dionez "marga" = karaitza eta buztina erdi-bana naasirik dituan lurra da, beraz ladrillugintzarako egokia gerta liteke. *Margo* kolorea danekoak Herbas'en izena beste indarrik eztu; agian gaizki entzundako edo gaizki aditutako itzen bat. Geroztik ongi sortutako zenbait itzi Aita Villasante'k "terminacho" esaten dielarik nolatan onartzen du errorik gabeko itz ori?

Indarr-etxe aipatu dut, euskaldun askok "central eléctrica" adirazteko baitarabilkie. Beste antzeko bat ere Aya'n bein baiño geiago entzun dut: indar-txabola, caseta de transformador. Orra erriak, Euskaltzaindiaren berririk ere ezta kiden euskaldunek sortutako itz egokia eta jatorra. Gogoratu alemanezko *Kraftwerk* ere, gure *indarretxe*'ren antzera egiña. Oraingo "jakitunek" *Zentral nukleara* sortu digude; agian egokiago zitekean *kizigun-indarretxea*, alemanezko *Kernkraftwerk* (populär und unexakt *Atomkraftwerk* Hans Dieter HECK'en "Lexikon der Technik" liburuak dionez).

Ola itzak beste adirazpen bat ere badu aspalditik; burdiñola, beraz burdiña egiteko aterpea. Alemanez ere gauza berbera gertatu da: Hütte itzak *cabaña* naiz fábrica siderúrgica esan nai du, beraz Hütte = *ola*; Eisenhütte = burdiñola. Prantzesak eta ingelesak lenengo adirazpenaz artu dute: fr. hutte, ing. hut; polskerak berriz (polonierak alegia) bigarren adirazpenaz artu du: huta.

Ola zer dan garbi jarrizkero' txabola itzaren jatorria ikustea errez da. Ardi-saldo edo artaldea etxean sartzen baldin bada' *etxola* itza sortzen da, etxe-*ola*. Eta etxeari azpiko aldetik aterpe bat erasten baldin bazaio' etxa-

be-ola *etxabola*, *txabola*. Etxola itzak asierako *e* letra galtzen duanean *txola* xola ateratzen zaizkigu. Lhande'ren iztegian garbi dagode:

ETXA-bola N hutte

ETXE-(e)ola (H) 1.º chaumière, cabane, tente. Artzainen etxola. 2.º hutte de chasseurs, construite en branchages. ETXE-(e)olatxo. ETXE-(e)oleta, hutte de chasseur. XOLA LN (H) cabane, chaumière. Betleengo xolan sorthua (contr. de etxola); xolatxo L (Hb) petite cabane.

Azkuék Duvoisin aipatzen du; ona latíñezkoa eta Duvoisin'en itzulpena: Cant 1-4: Nigra sum sed formosa, filiae Jerusalem, sicut tabernacula Cedar, sicut pelles Salomonis. Oi Jerusalemeko alabak, beltza naiz, bainan ederra, Zedarreko cholak bezala, Salomonen larru-olhak bezala.

Azkenik aipa dezadan Usurbil'ko Agiñaga'n Lastola izeneko etxe bat badala. Agian jatorriz lastoa gordetzeko aterpe bat zitekean, gazt. pajar, eta ez Lhande'k uste zuan bezela lastoz estalitako aterpea. *Pailler*, eta ez *chaumière*.

Etxeberri'k auxe dio:

Ilkhi direnean dute
bazterrera behatu,
eta apartean etxe
xola bat nabaritu

neretzat garbi dago bertsoaren neurria betetzeko dagodela *etxe* eta *xola* ia adirazpen berberaz. Orr eztago itz-jatorria adirazi nairik.

ERANTZIA

Txosten ori Euskaltzaindi-biltzar batean irakurri eta zenbait illabete geroago' ustekabean onako au aurkitu dut:

Ola est une forge, ou une cabane située dans les montagnes, dans laquelle cinq ou six pasteurs viennent prendre gîte pendant la belle saison, après avoir confondu leurs troupeaux. C'est là qu'ils font le fromage que le bon Henri trouvait si succulent. Tout près de l'*ola*, et dans un espace de forme rectangulaire, entouré de palissades est établie la bergerie. Ce lieu prend le nom de *koralia* qui pourrait bien n'être autre chose que le *cuyalà* ou *cayolar* des Béarnais. (Francisque MICHEL, Proverbes Basques recueillis par Arnaut OIHENART, Bordeaux, 1847, p. 301).

Lhande'k dionez' *korale* 2.º S. N. enclos d'une bergerie. V. *korále*. *Korále* 1.º S. N. (H) bercaïl. Syn.: *barla*, *espilla*, *korte*. 2.º N. (Sal.) basse-cour (Cf. esp *corral*).

Michel'ek dion guztia nere iritziekin bat dator. Eta Estornes'tar Jose jaunak esan didanarekiñ ere bai, alegia Erronkari'n *ola* artzaiek gazta egiten zudeneko aterpeari esaten zitzaiola. Esaera ere ba'omen dude: "—Holla! "esaten duanari" —Ardirik ez eta ola?" erantzuten omen zaio.

ZATARAIN'DARR ANBROSI.

IV

Euskalerría

ARALAR'ko AIZEAK

Orko berrogei ta amairu bat urte izanen da Aralar'ko San Migel'era lenbiziko aldiz itzoro nintzanekoa. Emengo giroak zenbat eta noraiño biotza ikutu zidan adieraztea, ez zait oso erraza, alajainkoa. "ORIXE" aundiaren trebetasuna ba-neuka, edo laurdenaren laurdena bederen!

Beste nunbaitean esana dutanez, mendi tontorrean eliza illun, zaar au ikusi nuelarik, bat-batean burura zitzaizkidan Teodosio Goñi'koa kateak arrastakan; erensubea aotik eta sudurzulotatik sugarra zeriola; Aingerua argi dirdiraz jantzirik, gurutze santua goiburu; onaren eta txarraren izpirituak laiño artean elkarrekin borrokan; Jainkoaren aunditasuna ber-bera! Eta adieraz-ezin alako bildur, edo itzal, edo nik dakita zerk, uzkururik utzi nindun, aundiaren aundiz.

Noizbait artako Maiatza'ren 8gna. zan ain xuxen, Burunda, Ergoien, Sakana ta Arakil'go erriak San Migel'era letari bidean etortzen ziranekoa.

Gaxtea izanik ere, laixter konturatu nintzan nolako fedearrekin etortzen zan gure jendea Aralar'ko Aigeruarengana. Geienak aitortu eta jaunartu egiten zuten gartsuki bai gartsuki, eta emengo eliz-liburu edo "Ritual" bereziari jarraikiz, aldameneko Trintate ermitaraiño letari joan-itzulia egin, elizako zazpi aldareak otoika eta arrenka banaka-banaka ikustatu, eta norbere erriko ildakoen alde "Ne recorderis" ozen bat agoz eta gogoz abestu ondoren, meza nagusia festaburu.

Erri bakoitzak bere ordua izaten zun bere elizkizunak garaiz eta txandaka egin zetzaten, eraz eta urren-urten. Eta zeñien estu artzen zuten apez zorrotz aiek (zorrotzak besteentzat eta berentzat) urrena eta txanda ez galdu bearra! Orrela egiten ziran gauzak kirian-kirian, zuzen-zuzen.

Ikustekoa zan nolako leia jartzen zun jendeak, bere erriko meza denetan ederrena izan zedin. Guk uarterrok (mutiko koxkor zortzikote bat edo) Perossi'ren meza bat abestu genun, egun ortarako aurretik berariz ikasia. Iru abotsetan ordea! Gaiñerako erriak abots bakarrean abestu bait-zuten, gu, Gayarretxo batzuk giñalakoan edo, arro-arro, aundiputz, atera giñan elizatik. Eta norbaitek gure meza atsegin izan zitziola esan zigunean eta zoriona eman, orduan, orduan arrotu zitzaigun bakoitzari oillar-kaldorra. Umekeriak!

Azkeneko meza bukatu orduko, eguerdi aldera, erriko mutil edo almianteak errerik zeukan antxume pilla bat, zortzi-amar bat, erriaren bazkaritarako. Aurrena txitxirioa, gogoia zabaltzeko; gero antxumeen buru-pikatxak, eta azkenik ixtar eta saietskiak, mauka-mauka iretsi ta, ase ta bete gelditzeko. Jakiña, dena ardo gorri nafarrez busti ta bulukaturik.

Izan ere, ez zan batere atsegin Urruzegi'ko aldapan gora, kirieleison-

ka, izerdi patsetan etortzea, ur xortaño bat ere artu eziñik, komekatu bear bait-zan. Gero kontuak! Zatoaren ipurdiari estualdia maiztxo eman bear, nai ta nai ez. Animaren mandamentuak goizean ongi bete baldin ba-zituzten, ez zituzten kolkoan gorde gorputzarenak eguerdian. Zerbait lasapide bear, alajaiña, bear zutenez, jende martzal, xalo, jator, langille porrokatu aiek, aste osoa lurra bere izerdiz bustitzen igaro ondoan.

Bazkalondoan, urdaillak bero-bero, muxuak gorri-gorri, kantuz eta irrintziz emen jauzi, an itzulipurdi, goitik beera abiaduran. Bein Amorleku'ko gurutzera ordea, an itxoin bear, denak bildu artio; eta bein bildurik, atzera berriz goitik beera, txintxo-txintxo arrosario santua esanez, erriko elizaraiño, bitartean ezkillak dinbi-danba errepikatzen zutela. Eta azkenik jai, urrego eguna arte.

Egia esan, aosafai oneko oroitzua utzi zidan gogoan San Migel Aingeruari bere etxean lenbiziko aldiz egin nion ikusaldiak. Bai orixe!

Bi urteen buru meza laguntzailletzat deitu ninduten emengo orduko apezak eta uda bat osoa egin nuen San Migel'en lanbide ortan. Nolako giro atsegiña mendi galdor ontan garai aietakoa! Alde guzietatik jainkozaletasuna ta euskalzaletasuna zerizkion egoitzari. Izan ere, denak elizkoi arrailak giñan eta ez zitzaigun batere zail araudi edo erreglamentuak gai oni buruz agintzen zuna: goizero mezara, arratsaldero arrosariora. Unamuno'ri galdetu bear, nolako estutasunarekin eramán oi zuten gai au orduko apez gotor aiek. Ara zer dion: "No habíamos aún reposado nuestros cuerpos cuando, por la mañana, oímos a las puertas de nuestro cuarto la voz de la criada o diaconisa mayor que nos decía: ¡ Va a salir la misa ! ; y bajamos a ella, ¿ qué remedio ?

Unamuno'k ez zuen begiz ezagutu bere izenkide zan Don Migel ministroa, egun artan etxetik at zalako, berak dionez; baiño artaz mintzatzen da, ez oso kanpoeder. Gizon gogor eta mokertzat jotzen du, San Migel'go goraberak ezpataz ebakitzen zituna. Eta baliteke olako zerbait izatea.

Dom Roulín, frantzitar fraille arkeologo ospetsua, emengo aldareburua ikusteko asmotan itzoro zan mendira bein batez, eta ez zion ortarako biderik eman gure apez murrurutunak, bidejean joan bear zalako aitzakiarekin. Iruña'ko gotzaiarengana jo bear izandu zun, baimena eske. Arekin bai, ikusi eta astiro-astiro ikertu aal izandu zun gure bitxi bikaiñ au. Gero ordea bereak eta ardi beltzarenak bota zizkion, berak gai oni buruz idatzitako liburu batean. "Méfiánt", "peu civilisé" eta olakoak esan zition gizajoari. Etxekoekin ere zorrotz eta estu xamar omen zan, ezagutu zutenak ziotenez.

Bi apez izaten ziran, bat nagusi ta zuzentzaille bezela, bestea onen ordeko ta laguntzaille. Lenbizikoari etxeko guziak euskeraz, begirunerik aundienean, "nagusi jauna" esaten zioten, itz onek berarekin dun adierarik oberenean. Erderaz berriz, bestela ez jakiñean, "el amo" esaten zioten. Eta erderazko itz onek ba du alako ertsipen edo zapalkeri usai bat. Ala artu zion beñikbein Mariano Arijita, Iruña'ko kalonjeak; liburu idazle jakintsu, istorigille edo edeslari ospetsu izanik ere, bere eskuz idatzitako

"CRONICA DE SAN MIGUEL DE EXCELSIS" delakoan onela dio: "Me contestaban con altanería, como si yo no tuviera autoridad alguna, alegando siempre lo que diría *el Amo* (D. Javier)... y tuve que armarme de resolución y decirles que allí no había más amo que yo". Astoa loiean bide zegon, edo ta Arijita'k euskeraz ez jakitean, ez bide zuten elkar aditzen...

Nik zorionez beste giro bat ezagutu nuen nere aurtzaroko urte aietan San Migel'en. Apezai itzala ta begirunea, bai alafede! Baiño gogorkeririk edo jauntxokeririk ez. Beste nunbait idatzirik daukat au ere, ta alaxe zan.

Nola aztu orduko apez ooragarri aiek? Don Jabier, Ministroa, zime-la, zaintsua, adiñekoa izanik ere, erbia bezain ernea, sumandilla baiño biziagoa, ipurterre xamarra baiño biotz aundikoa, On puska bat! Ori bai, iñoiz iñun Jainkoaren legearen kontrako zertxobait sumatzen baldin ba-zuen, antxe zan, odol bizitan, zirt eta zart moztu bearrez. Infernuko auspoa (Kordiona) bide zuen etsairik aundienea.

Oso bestelakoa Don Markos, laguntzaillea. Gizon mardula, patxara aundikoa, argia, atsegiña, dena biotz. Iñoiz ipurterrekeririk sortzen ba-zan, antxe zegon berau ere ezkerrez edo eskubiz mokerkeriak eztitu naiean.

Ta zer esan orduko neskame-morroí aietaz? Ez oso ikasiak, zenbait erderaz tutik ez zekitenak, bai ordea maratzak eta langilleak, apalak eta esanekoak, eta (esan bearrik ez) barne-barnetik Jainkozaleak. Ez zitzaigun noski faltako astean ostirala, baiño geienean elkartasun eta pakezko giro atsegin batean murgildurik bizitzen giñan, zeru txiki batean antzo.

Eta bitartean ni erdaldun uts izanik, an asi nintzan euskal alorrean lendabiziko urratsak egiten.

ESKERRAK, ENE JAINKO, OLAKO ESKAIDA EMAN ZENIDALAKO!!

AYERBE.

JOXE MARI ARIZMENDIARRIETA

Agur!

Gogoratzen?

Gure gerra aurretzora zan.

"Arretxiñaga" izen ordearekin zure jatorra ezkutatuta euskerazko lan sakonak egiten asi ziñan. Markina eta Barinaga ingurutako toponimia aztertzen asi ta saiatu. Geroago zure elburua izango zan. Ikasi ta erakutsi.

Gazteiz'en "Kardaberaz" saillean sartu ziñan. Euskerari zure eskintza beroa emoteko garra zendun. Ango erretore zan Eskarzagaga jaunari omenaldian, zu izan ziñan euskal arduradun.

Ni ere, Ondarroa'ko bazterretan gaixo ta argal, zeregin bardintsutan asia nitzan.

Geroago, Bilbao'n, gerratean, oraindaiñoko euskal egunkari bakarra izan dan "Eguna" egiten asi giñan, erdi mistiku ta erdi soldadu, agindu batzuen menpean.

Bilbo'n igaro genduzan gure 20-22 sasoiko urteak, euskal lanetan baiño bestetan pentsaten ez gendula.

Zuk, goizetan, Begoña'n, apaiz ikastaroak zenduzan ta arratsalde ta gau-lenetan "Eguna"n beste gaiñeko orduak.

Zenbat ule artze ta zirikaldi, ia egunero tabernatxo baten apalondoko "mistela" pixkat artzen batzen giñanean!

Gero... Jaungoikuak argi! Niri Bilbo'tik Karrantza aldera joateko agindu eusten. Ez nekien zuen berririk. Zuek an gelditu. Bilbo'n geratu eta andik Barinaga'ko etxera joan zu, beti euki gendun fede onaren indarrez. An arantzak. Gerrate guztian iñori kalterik ez egiteko arduraz ibilli giñan, ixileko konpromisu bat artu ba'gendun bezela... ta ara andik Bilbo'ra zu biurtu ta eriotzako zigorrez gaiztetsi, "Eguna" zala ta bide.

Baserritar-diplomaziz lortu zendun zigorra arintzea.

Bein, Guadalajara'ko mendietan nebillela, karta bat artu neban. Alako irristada nabaitu nuen zure letra igartean. Zu Burgos'en zenbiltzan eta ez dakit zelan jakin zendun ertzaiñak nire billa ebiltzala. Ori esaten etorran zure karta, edozetara gertu nendin. Nik ere, sekula iñoren kaltetan pentsatu ez neban onek, lenean jarraitu neban ta andik laster Ondarreta'n nire burua ikusi.

Geroago... meza berria. Zure oroitzza berezi bat artu neban "Iturbe"-ko goraintzi ta erregaluz.

Erbesteratu ninduen ni. Zu Arrasate'ra bialdu. Geroago, Gibraltar aurrera eroan ninduenean, zure kartak artzen asi nintzan.

"Eguna"ko aizeak zirikatuta, egunkari barri bat egin naian asi ziñan,

ortarako premiña egoalata. Iritzi eske artu nituzan ainbat karta. Amets zoroak! Fede oneko beti gu!

Gero, Arrasate'n, zenbat buruauste ta zenbat ardura gazteen alde, langilleen alde, gizona argitu naiean. Ikastetxe bat sortu orduko beste andiago bat buruan, ikastola, irrati, agiri eta abarrekin kontzientziak suspertu nairik.

Gogoratzen?

Bein gotzain batek deitu ta demagogi egiten zebiltzala ta ixildu ta baztertu nai izan zinduzan. To! Zure kezka ta naigabeak ezagutu nitun, orduko igandetan eukiten genduzan artu-emonetan.

Baiña beti ere-aurrera jo zendun.

Gero...

Egunen batean Arrasate'k zure oroitzza maitasunez eta kistar indarrez eta gizonen esker onez gogoratuko dau. Zabal da zure lana gizonen mesedean. Ez dagokit ormak ere kantatzen duten zure lanik aizatzerik. Zenbat lan andi eta sakon, zure apaltasunak ezkutatu eta ixildu naikoak!

Zure euskal miña, zure lenengo garra, bear ba da geroko askok ezagutu ez daben jatortasuna benetako adiskide lez bizi izan neban.

Oraintsu, zure etxera joaten nintzanetan egiten zendun bezela, azken liburuak erakutsi eta euretzaz itz egin ondoren, bear ba da zuk barrutik diplomazizko agurtzat artzen zendun azken agurra egin zeustan: Gazteiz'en "Kardaberaz" taldean Bizka'i'ko euskerara biurtu zendun Barbier'en ipuin txorta eskiñi, nik maitetsu gordeko nebala-ta... barriro zugaz batu arterañoiko oroigarri. Prantzesez eta iparraldeko euskeran argitaratua dan "Legendes du Pays Basque, illustrations de P. Tillac, Jean Barbier" liburu eskiñi eta bertatik zuk euskeratutako bilduma. Orra zure azken naia.

Zaartzen natorrela, sikatu bearrean, gero ta errezagato datorkidaz malakoak. Begiak lañoz beteta ezin idatzi. Biotzak daki zegaitik.

Agur Joxe Mari!

Alkarrekin batzeko izan gaitezala zu sartu zarean zeruetan!

A. ZUBIKARAI.

(Donosti'ko egunkarietatik artua).

V

S a s k i - N a s k i

DONOSTIA'KO GOTZAIGOKO

KATEKESI-BATZORDEA

Donosti'n 1976-X-22

Zuzendari Jauna :

Nere au izenpetuaz natorrena, KARDABERAZ BAZKUNAREN izenean nator. Atzo, Urrillak 21, oizko batzarrean agindu zitzaidan :

ZURI ADIERAZTEKO: Parrokietako apaiz jaun batzuk, dotriña emateko arazoari buruz, oso kexu dirala, euskerazko dotriñarik (dotriñ-idazkeraz idatzirik) ez dagolako salgai.

—“Batu” izeneko idazkeran egiñak ez omen dira onartuak izan parrokietan. Ikastoletan, agian.

ETA ZURI GALDE EGITEKO: zergatik ez dagon salgai oizko idazkeraz egiñiko dotriñarik. Agortu diralako? orrelakorik argitaratu nai ez dalako? zergatik?

ETA GOGO BAT AGERTZEKO: oso ongi artua izango litzakela parrokietan, katekesi-ekintzan alegia, “Kristau-Ikasbide” LABURRA, ofizialki *laburtua* eta ofizialki argitaratua. Euskaldunaren gogo biotzari dagokionez, Dotriña LABURRA, ale batean edo bitan sartzen dana, ez bost edo zortzi aletan luze-zabaldua.

—Nork? Noiz? Nola?

Zure erantzunaren zai naukazu.

Zure zure

PEDRO BERRONDO.

«KARDABERAZ BAZKUNA-KO» NERE LAGUNEI

Katekesiari buruz, zenbait gauz eskatuz, idatzi zenidaten eskutitza artu nuen. Oso pozik erantzuten dizuet, nere itzetan zuzen jokatzeko asmo eta itxaropenarekin.

Lenengo, Kristau ikasbiderik bai al dagon galdetzen didazue ("Dotriñarik dotrin-idazkeraz idatzirik"). Ez dakit bear bezala konprenitzen dudan esan nai duzuen. Gipuzkoako euskeran argitaratutako Kristau ikasbiderik bai al dagon galdetzen duzuela uste dut, euskera "errikoian" zuek esango zenuketen bezala. Ez noa orain, batzuek orrela deitzen dioten ori "batua" den edo ez azaltzea... ezta besteak baiño "batuagoa" den edo ez esatea ere... edo zuek "errikoia" deitzen diozuen ori, gaur Ikastola askotan "batua" deituz dabilkien euskera baiño errikoia den edo ez agertzea, ez.

1. Katekesi Idazkaritza, ez dut uste erabaki au artzeko organismoa denik; badaude orretarako gu baiño kapazago direnak.
2. Elizbarrutiaren serbitzuan gauden organismo bat gara, bere beurretan serbitzeko.
3. Pedagogi eta izkuntza aldetik, mailla egoki bat zaindu bear dugula iruditzen zait.

Bigarren puntu au piska bat sakonduz, nik esango nuke, Kristau ikasbide auek eskuetan artzen dituzten geienak, gramatikaren estruktura konkretu bateko euskera itzegiten dutela. Ez dugu aaztu bear Katekesi eta Liturjiko planteamentua, arazo ontan, naiko desberdiña dela; gure liburuak destinatarioen eskuetara bait dijoaz. Nik neure aukera alde batera utziz (pastoral, kultura, politika eta beste era askotako arrazoiagatik) Idazkaritza bateko arduradun bezala, destinatarioaren eskakizunei erantzun bear diet. Gaur gaurkoz, "batua" deritzaion ortatik dijoala dirudi. Ori izan da gure argitalpenak euskera "batuan" ateratzera eragin diguna. Gorako esaten nuen bezala, destinatarioen eskakizunei erantzun bat eman nairik, orain dela urte bete edo geixeago, Gipuzkoako parroki eta ikastola guztiei galdetu nien zenbatak naiko lituzken gure lanak gipuzkoeraz argitaratuak. Irureun eskutitz idatzi eta ogei ta iru erantzun artu nituen. Jakifia, naiz ta gure gogo Erriari erantzutea izan, zoritxarrez ekonomi aldetik ere ez gabiltz geiegi jantziak orrelako eskari txiki bati erantzuteko. Orregatik argitaratu ditugu, gure azken-bolara ontako liburuak euskera "batuan" bakarra. Ala ta guztiz ere, gipuzkoeraz ateratako Kristau ikasbideak, gelditzen dira oraindik.

Bestaldetik eta irugarren puntuari begiratuta, konturatzen gera argi-

talpen batzuk euskera batuan, ez direla bear bezelakoak izkuntza aldetik. Guk aukeratu dugun bidea auxe izan da: euskera aberats eta "errikoi" batean idatzi eta itzuliko duen norbait billatu. Ondoren, lan auek koordinatuz, euskera batura moldatuko dituen beste bat billatu dugu; naiko gizon irikia, "dogmakeri" geiegi gabea eta ematen dizkiogun lanan estruktura errespetatzen duena. Orrela lortu uste izan dugu askotan euskera "errikoia" eta aldi berean "batua".

Bigarren, Kristau ikasbide "laburtua" ofizialki argitaratzea eskatzen didazue, patrikako liburuxka baten antzekoa. Ontan ezin dizueket baiezkorik eman.

Ori izango litzake:

—Elizan, katekesia gaur dagon bidetik ateratzea eta bere aurka joatea.

—"Comisión episcopal de la Enseñanza" deritzaionak onartu duenaren aurka egitea, "Sagrada Congregación del Clero"-ko Katekesiko Direktorioaren aurka eta gure Gotzaiak, Bilbo eta Iruña-koekin batean atera duten azkeneko agiriaren aurka.

—Idazkaritza onen beraren aurka joatea ere izango litzake.

Kristau ikasbidearen egitekoa, pertsona konkretu batzuei, Kristoren Mensajea adierazten saiatzea dela uste dut eta, pertsona auek nola ez diren berdiñak, Kristau ikasbidea ezin izan denentzat berdiña. Ezingentzake pentsatu, beraz, Kristau ikasbide bakar batean. Bestalde, Kristoren Mensajea ezin daiteke adierazi, katekesiko lau izkuntza auek erabilli gabe: bibliakoa, liturjiakoa, dotriñala (maixuzkoa) eta testigantzaarena (sinestun gizonak bere bizitzarekin ematen duena).

Eta, emen agertzen dizueten ikuspen au, ezin dezaiguke eman Kristau ikasbidearen "laburpenak". Orregatik zuen eskariari ezezkoa ematea beartua arkitzen naiz. Onekin, gure Gotzaien pentsamentua ere onartu eta jarraitzen dudala uste dut. Azken batean, berak dira elizbarrutiko katekesiaren lendabiziko arduradun.

Onek ez du esan nai, bidezko ikusten baduzue, zuek atera ezin dezaue nik Kristau ikasbidearen "laburpen" ori. Baiña, arazo au ez da neri dagokidana eta zuzenean Gotzaiekin ikusi bearko duzue.

Bukatzer a noa eta deseo bat agertu nai dizuet: Katekesi Idazkaritza, guztientzat irikia dagon organismo bat bezala artzeko eta, sinisteko al dugu neurrian elizbarrutiko eskakizunei erantzutea dela gure naia.

Besarkada bat.

FELIX GARITANO.

LIBURU-ARGITARATZEAZ...

ELOSEGI'TAR J.

Loyola'ko Batzar Nagusian irakurria (1976-XII-27).

Garmendia'tar Juan Jose jaunaren deiari erantzunaz, eta Kardaberaz Bazkunari nere almen motxa baño gogotsua eskeñiz, or nabil azken bizpauru illabete auetan gure liburu-argitaratzeari buruzko arazoan jo-ta-ke buru-belarri.

Oarra. Gure liburuen irar-sariz, kosta diran gora beraz eta ari ontako zertzeladaz ez dizuet nik ezer adieraziko. Garmendia jaunaren gain dijon arazo ori, gaurko batzarreko iragarki-idazkiak azaltzen digunez.

Ootan gera, gaurko egunean, Kardaberaz'en liburugintzako lanbide ontan:

1) Urrestarazu "Umandi" jaunaren Euskal-Iztia: Gramatica Vasca, bi aletan osatua argitaratu berria degu. Guzira, bi aletan, 792 orrialde trinko ta mardul kopuratzten dute. Bi ale auek Kardaberaz-Bildumaren 16 eta 17'gn aleak osatzen dituzte. Umandi'ren Euskal-Izti onek, irugarren irrarraldia du oraingo gure onekin. 3000 ale egin ditugu. Aurretik, Urrestarazu jaunaren Gramatica onek, 1953 eta 1959 urteetan izan zituan lenen eta bigarren argitarapenak.

Nolanai Umandi'ren lanak, euskera-jakintzan ondotoxo sendotu nairiz dabillarentzat naiko zer ikasi ta ondo ikasteko gai ugari ta ongi tajutuak eta xeetuak dituala ziur gaude. Umandi gramaticalari bikaña degula ezin ukatuzko egia degula ba-dakigu, ta bijoakio emenditxe Kardaberaz'en esker onaren txalo beroa.

2) Loidi'tar Paben gure olerkariaren OLERKI BILDUMA argitaratze-lanetako azken-unetan ari gera oraintsu. Loidi jauna ez degu gaurkoa oler-lanetan. Zoritzarreko azken gudatea asi aurretik, eman zizkigun Loidi olerkariak, izparringi eta ordungo Olerti-egunetako bildumetan —Aitzol aaztueziñaren adiskide begikoak aipatze-bereia ongi irabazia du orain— eman zizkigun bada Loidik bere oler-senaren agerbide ugari ta guztiz aipagarriak.

Bere olerkiak, ordea, or da an sakabanaturik, gaurko irakurleentzako atxiki-zaillak gertatzen dira. Ta irakurgarriak dirala aspalditik oartuak gifiñan, urteetan irurogei goitik gabiltzanok beintzat.

Oraingo gure Ale onek TXIRULIRUKA-OLERKIAK izango du izen. Olerkiok bost zatitan banatuak izango dira: ORIOTARRAK - LIRIKA-ETA - ELIZA -

ERRITARRAK - LAGUNARTEKOAK. Berreunenbat olerki ta olerkitxo. Olerki-sail bikaña benetan. Langille jator baten erakusgarri aberatsa. Ontan On Manuel Lekuona jaunaren aurre-itzan ederki adierazten dira Loidi olerkariaren, doai oparotsuen berri. Nik ezin bada deus oberik zueri geitu. Kardaberaz'entzat abagune ezin ohea izan zaiola TXIRULIRUKA argitaratze au!! Orixo, labur, nere aldetik.

3) On Manuel Lekuona jaunari, gure Lendakari bikain eta bazkunburu maiteari esker-azalpenaz edo nolabait beintzat gure maitasuna agertu bearrez, gogoz eta biotzez ari gera idaz-lan luzea eta irakurgarria biltzen, bizpauru ala iruzpalau aletan argitara bearako dun OMENALDI ederra biritzen. 84 idazleen lanak baditugu iada eskuratuak. Irar-lanean aurrera goaz eten gabe ta leen alea J. 1. negu ontan, noski, eskuetan izango degu Kardaberaz'tarrok. Gu guzian jakin naia beteaz eta lan-egilleen sendotzaz, ona emen etorri-ala bildutako egilleen izen-abizenak lerroz-lerro adierazirik: Akesolo, Jose Miguel Barandiaran..., Ramon Murua. Dozena erditxo bat lan izan ezik —erderaz dijozenak berak— beste guziak euskeraz, eta euskera jatorrez, erri-euskeraz alegia. Nik uste, agindutako lanak bein bildutakoan, ortxe 110/120 idazlan izango dituala On Manuel maiteari Kardaberaz'ek eskeñi al izango dion OMENALDIK.

4) Omenaldi onen ondoren, obe esateko bateratsu, Lekuona jaunaren LAN GUZIEN BILDUMA (Obras Completas) lan gotorrari kopet ematen ari gera jo-ta-ke lanean. Lenbiziko saila. AOZKO LITERATURA buruzkoa, aurrera doa irarketan; eta egilleak egiñak ditu eta bialduak dizkigu, irar-gai (galerada)k, berberak zuzenduak. Eskerrak eman bear dizkiogu ontan ere Lekuona jaunari, jator, arduratsu eta bizkor, ematen diogun lanbide neketsua betezten ari zaigulako. Eskarrikasko On Manuel jauna ta txalo beroa zuri gu Kardaberaz'tarrok...

LAN GUZIEN BILDUMA au zenbat aletan burutuko degun ezin erabaki oraingoz. Egilleagandik gai guziak bilduz-gero eta irarketa aurrera damai-gularik, orduan, oartuko gera, Bildumaren gaiak sailka osaturik, Lan osoaren neurri ta sendotasunez; zenbat aiez alegia, biribildua izango dan jakitea eta jakin-araztea... Bitartean eta J. 1. eta egillearen laguntza bikañez baliatuki aurrera goaz irar-lanean... Ekin eta jarrai, gure lan-buru-ikurra..., ekin eta jarrai!!

5) Urrestarazu jaunaren beste idaz-lan etekintsua esku-artean degu eta irarketan asteko txinta-txintan. Gaurko egunez euskerak eta Euskal-erriak ditun bizibide, estualdi, burruka, etsai, jokabide ta... itxaropenak gai ditularik, mamitsu ta oldozgai ugari ta sakonez osatutako saiaketa-lan garrantzizkoa. Kardaberaz bildumarako beste ale bikaña izango degula ziur gera.

6) Ba'ditugu eskuartean beste zenbait irar-gai aurki argitara bidean ipintzekoak. Leen-leenik Aita Juxto Maria Mokoroa euskal-idazle maisu-

-maisu tolosarrak, oraintsu argitara'eran bukatu berria duan BUSKAL-ESAKERA-BILDUMA. Neke aundiko lana: urte askotako bilketa zeatza bear izan duana; or da an euskaldun jatorrei entzundakoak-eta, txuxen-txuxen ja-soak; Idazle-zaar maisuengandik —eta ez ain zaar diran edo izan diranengandik— idatzirik gelditu zaizkigun idaztietatik —idazti-maisuetatik eta maisu-idaztietatik— arretaz eta itzez-itz artuak... Nori eta nondik bildu izan diran, xeetasunez orniturik jungo dan Bilduma guztiz aberatsa. Gaiez, giroz eta zerez, zerrenda berezietan lerrotuak; ta arkibide zeatzez osaturik argitaratuko degun Bilduma gain-gaiñekoa. Euskal-idazleak, euskalzaleak, euskeraz zerbait sakonki ta, batezere, zerbait jatorki ikasi nai duan orok, eskuarteaz bearko duan Bilduma arrigarria. Euskerak bear-bearrezko zuan alako Iztegi-berri-berezi antzo, ESAKUNDEGI arrigarri bat txalogarria, gaur-eguneko idazle langille erraldoi bateri zor dioguna.

7) Liburu-argitaratzeaz gain, badagi Kardaberaz'ek, aipatu gabe ta txalo beroz aipatu gabe gañera, utzi ez diteken beste irar-lan bikain-bikaña.

Errez esaten da, 1971'ko Jorrallean asi —aurki sei urte aundi, jaunak— ta astero-astero, eten gabe, egiñal iraunkorrean, Donosti'ko El Diario Vasco Egunkarian, euskal-orria ikusten eta irakurtzen aal izaten degula. Adore beroz eta ekintz aspergaitzez egiteko eginkizun txalogarria dala ezin ukatuzko egi biribila degu.

Ortan ari zaigu gure Berrondo jauna, Kardaberaz'tar zenbaiten laguntzaz, buru-belarri... Amaika irakurgai eder, sakon eta arin, oraintsuko, antziñako ta betiko gaiez osatutako euskal-orri-sail ikusgarria eman digu iada..., ta "aurrera segitzeko asmoetan dago" Tolosa'ko Eguberri kantak digun bezela...!!!

Bejondaiela oiartzuar langille gotorrari, asteroko-asteroko irar-lanak, kale-egunerokoan (periodikuan) eska oi duan irarketa bereziak berezko dituan lanbide aspergarri —zintzo burutu bearrezkoak— alperkeriak alde batera saieztuz, txuxen eta bikainki betetzen ari zaigulako.

Txalo beraz, Berrondo jaunari ta bere idazlaguntzalle guzieri.

8) Beste gai bat irar-arlo oneri josia dagona. Ez da naikoa liburu berriak egin-eta-egin jardutea; Liburuak egin, ordaindu, etxeratu ta guziak saltzen ez diranean, Kardaberaz'eri gerta oi zaionez, Liburu-saillak txuxen-txuxen, lerroz-lerro, eta eskutara-era-errezean jaso ta gorde bear izaten dira... Orain arte ta Garmendia Juan Jose jaunaren adorez eta eskeintzaz Tolosako bere lantegian edo idazkitegian gorde aal izan dira... baño gaizki gabiltz an tokiz eta aisatasunez, ta nundik edo andik gordeleku egoki baten billa asi bearrezkoan da Kardaberaz, garrantzi, aundiene-tako bere auzi au bear bezela zuritu ta burutzeko. Albisu jaunak zerbait eskeñia digu an Azkoitin, eta eskerririk beroenak zor dizkiogu Kardaberaz'tarrok... Baño guk uste gure Idazkaritza Tolosa'n jarraitzekotan, Tolosa'n bertan zuritu bear degula korapillo au iñungo albo-errira jo gabe. Auzia ala zuzendurik gañera, ta gure liburu guziak gorde-leku berezi berri batean ipintzerakoan, zenba-txartel berezietan (fichas de inventario perma-

nente) ditugun aleok ipintzea bear bearrezko eginbearra degu; errez egin ditekena, ta gure urteroko artu-emaneko zuritze-garaiean urteko kantauak argitzeko errez-bide jatorra eman aal izango diguna!!

9) Ikusten dezutenez badu Kardaberaz'ek irar-arloan, esku-bete-lan: nere ustez irar-sarizkoari-buruz, nai ta ez, azterketa eta erabaki bikain batzuek artzera beartuko gaituan irar-arlo bete-beteko...

10) Ontaz nere arloa bukatuxea ote dan edo esango nuke, ta orain Garmendia jaunaren txanda baño leen, iñork argibide geiagorik nai balu, emen nagozue zuen esanera erantzuteko prest al dedantxoan beñepein...

Tolosa'n 1976'go Abenduaren 27'an

KARDABERAZ BAZKUNA'ren BATZAR NAGUSIA

KARDABERAZ BAZKUNA gaurko egunez egoera onetan arkitzen da:

SARRERAK

	<i>Peseta</i>
Aurreko urtetikan kontuan zegona	34.328,32
Bazkideak eman dutena	165.000,00
Salmentetatik artu dana	278.039'59
	<hr/>
Sarrera guztiak	477.367,91

IRTEERAK

Albisu'tar Paulitak aurreratua itzuli	60.000,00
Imprentari ordainduak	386.810,00
Opizinarako gastuak	35.003,27
	<hr/>
Danetara Irteerak	481.813'27
	<hr/>
IRTEERAK	481.813,27
SARRERAK	477.367,91
	<hr/>
DAGON ZORRA	4.445,36
	<hr/>
BESTE ZORRA. Idazlantegiko urteko sariak	28.000,00
	<hr/>
ARTZEKOAK. San Migel Liburutegiak ordaintzeko diguna	6.000,00
Etor-engandik artzeko deguna	67.185,00

EBREO IZKUNTZAREN PIZKUNDEA

ELIEZER IGARLEA

Judutar erriaren kondaira, bai antziñakoa eta bai gaur egunekoa, asko edo gutxi guztiok dakigu zerbait.

Judutarrok aspaldidanik munduaren zear sakabanaturik ibilliak dirala eta zer nai zapalketa eta jasarkunde jasan bear izan dutela; eta ea il urren eta xeaturik, suntsitzeko eran zeudela pizkundea etorri zaiela.

Jainkoaren xedeak alakoak izan naski, ta azkanean onek zuzentzen dituala errialdean etorkizunak; eta Israel Jehova'ren erri eta izanik, onek iraun arazi diola esan diteke.

Orain eun urte (1870) TEODOR HERZL abertzale batek "siondarren" asmamena sortu zuanean, au da, judutarrek Palestina'ko lur santuan biltzeko asmoa, ametszekoa zirudian. Orduko judutar buruzagi nagusiei ala zeritzaien beintzat.

Teodor Herzl bere asmoa Vaticano'ra agertzera joan zalarik PIO X garren Aita Santu, ta Merry de Val kardenalak aren xedea eziñezkotzat artu zuten.

Politikazko eragozpenez gañera, Israel'go Estado bat sortu nai izateak beste korapillo asko askatu bearra zekarren berekin. Eta Teodor Herzl'i galdegin ziotelarik juduak, Palestina'ko lur santuan bildu ezkerro, ea elkarren artean nola itzegin eta mintza bear ziran, Herzl ausartak igarle antzo onela erantzun omen zuan: Norberak dakian izkuntzan al bezela itz egin dezala ta elkar adituko dugu. Aterakai sakona, borondatearen almen eta indarra gauza guztien gañetik ipintzen duana.

Europa'n bizi ziran judutar geienak, Polonia eta Errusi aldekoak "yiddisch" izkuntzan mintzatzan ziran: aleman, eslavo, ebreo ta beste izkelgi naspillatuan. Beraz ez zan inolaz ere izkuntzarik egokiena kultura tresna ta Erri aurreratu baten mintza-bidea izateko.

Orregatik eta besterik eziñean "siondarren" buruzagiek erabaki bear izan zuten "EBREOERA" ots! liburu santuen izkuntza bakarrik izan zitekeala Judutarren errialdea goratu lezakeana. Baiñan ontan azaldu zan koska: Ebreo izkuntza zarkitu ta ea illik zegoala. Zer nolako zailtasuna gainditu bearra izkuntza bizi ta giartsu hillaka zedin! Errez da asmatzea! Ezizkkoa zala esan zutenak asko izan ziran. Amets utsa! Ataka! ortatik atera eta nola aurrera joan ez zekitenak.

Gizon adoretzu bat agertu zan, ordea, sinismenez beterik ELIEZER BEN YEHUDA deitua, garai artan Lituani'ko judutarren artean jaioa.

II

Getto errukarri batean sortua izanagatik orduan Errusia'ko agintarien pean ezia, ba-zuan ordea israeldar gazteak barrengo griña ta kezka. Eta "Yiddisch" izkuntza besterik ez zekiela ere, urrutitik zetorren "siondarren" mezua ezagutu zualarik "ebreo izkuntza ikasten leiatu zan. Lituania'ko lurralde otzetan ez zuan bizi-poz aundirik, eta nola edo ala, Paris'a bizi izatera iritxi zan.

An neke ta burruka gogorak bere buruari emanez, kultura lanari ekin zion eta elburu nagusiena ebreo izkuntzaz jabetzea izan zuan.

Ganbetta ta Victor Hugo'ren aldia zan. Prantzia'ko irugarren Errepublikan artan politika saltza aundia zegoan. Dreifuss eta antzeko beste auziak pil-pil zeuden eta barrenak eskatzen zion judutarren alde sar zedilla.

Eliezer Ben Jehuda osasun bera zan gizarajoa, tuberkulosisez kutsutuak ez bada izan orretarako kemen aundirik. Gaxo ta bakarrik arkitzen zala, bere burua obeto zaintzeko ezkontzea bururatu zitzaion. DEBORA izenekoa zan Lituania'n utzi zuan erdi-andregai, etxe oneko alaba, familia ezagunekoa. Ez zitzaion errez izan asmoa aurrera eramatea. Osasun eta ondasun ezak urte batzuetan luzatu zioten aspaldiko ametsa ez egi bihurtzea.

Alabearrez, eta osasuna kariz, Paris'etik Arjelia'ra alda-tu zan. Ez geldirik egoteagatik lanean ziardun beti ebreoera ondo ikasi ta sakontzen.

Etsai ta aurkalaria izan zituan, eragozpenik ere bai ugari baiñan ez zuan beñere etsi, naiz batzuetan, Rochild eta beste judutar aundia-mandien iritziak bestelakoak izan. Auek uste osoan bait zeuden "Ebreoera" izkuntza zarra, gaur egunetako jardunerako piztutzea alperrikako lana zala. Makabeotarren denboratik onuntz bazterturik zegoan. Geroxeago, Tito'k Jerusalem xeatu ondoren, juduak munduaren zear barreatu ziran eta Mediterraneo itsas-inguruan kokatutakoak griego ta latina ikasi zuten; Europa'ko iparraldera igesi egin zutenak "Yiddisch" izkera nastua sortu bearrean arkitu ziran. Arrezkero judutarrok bi zaitaen berezirik ikusten ditugu: *sefarditak* batetik. *azkenazim* diralakoak bestetik.

Eliezer Ben Jehuda'k auzi ta problema auek filolojiaren arauz aztertu bear izan zituan eta Paris'en eta Sorbona'n egon zan denboran ikasten leiatu zan juduen antzianako literaturaren barne muñean sartu nairik.

Au ez zala aski, azkenik. Ben Jehuda'k etsita erabaki zuan Palestina'ra bizitzera joan ezik ez zegoala ebreo izkuntza piztutzerik.

Adiskide ta lagunak par egiten zioten. Diruz ere urri zebillen eta alaz eta guztiaz DEBORA kutunari ots egin zion. Eta onek Lituania utziaz etxeko borondatearen kontra, abiatu zan eta ibillaldi luzea egiteaz elkarrekin bildu ziran Viena'n.

Zer nolako zirrada nabarituko zuten berriz, elkar ikustean, ez dago esan bearrik. Ez zeukaten bertan gelditzerik eta bidaia Jerusalem'untz jarraitu bear izan zuten, Cairo'tik barne joanez. Emen ezkonduko zituan Rabino bat arkitu zuten. 1881 garren urtea zan. Senar-emazte gaiak pran-

tzezez edo rusoz elkarrekin mintza bear ziran, besterik ezitñean. Ori bai "ebreo" elkarri esateko itza ondo zekiten: "HAVIVI"=MAITE. Eta urren-go Rabino apaizak esan zizkienak:

"HAREI AT MEKUDESH". "Ezkondurik gelditzen zerate bata bestea-
rentzat.

III

Onela iritxi ziran Lur Santura, Jafa edo Safo portutik. Itsas-ertzeko errixka auek gaurko Tel-Avi aundiaren ondoan daude. Jaffatik Jerusalem ez da aiek urrun gelditzen baiñan naiko, garai artan automobillik ez bait zenbillen, oraindik. Zaldi-kotxe-zaiekin Eliezer lenengo aldiz ebreoz mintzaten asi zan eta orrela sartu ziran Jerusalem zaarreko kale estu zikiñetan, Jafa deritzan atetik barrena. Jendea ere alakoxe zarpaillu ta gose-itxurakoa arkitu zuten...

Batik bat ain ezaguna dan ORMA ZAR Aundiaren oñetan otoiitz, negar eta eyagora leku doatsu artan.

BEN JEHUDA ebreozale bakanen artean dagoaneko ezaguna zan. Siondar sutsuok irakurriak bait zituzten ark HASHABAR Viena'ko aldizkarian idatziak zituan lanak. Esate baterako, "Franklin zeritzan imprimatzailea, adiskide zuan. Onek Jerusalem'en asteroko orri bat argitaratzen zuan: HOHATZELET" izenez. AZAFRAN esan nai duana, lore moreduna gure belardietan udazkenez ikus dezazutekena.

Franklin'ek bereala eskatu zion Ben Jehuda'ri aren astekarian idazten asi zedilla; eta ordeaz etxea ta mantendua emango zizkiola.

Eskeintza ontzat artu zuan baiñan ez luzaroko. Ben Jehuda'k laister ikusi bait zuan Franklin ura, bai judutar zala baiñan ez "ebrozale"; ta ez zuala "ebreo" itzegin nai izaten. Au eski izan zan Ben Jehuda asarretzeko, naiz etxea ta mantendua galdurik kale gorrian eta premian gelditu ba'zan ere.

Bizi al izateko, DEBORAK'etxetik ekarri zituan urre-pitxi ta puskak saldu bear izan zituzten. Debora gaxoa nola edo ala jantzita judutar andre beartsuen antzera agertzen zan gona luze ta burua estalita.

Eliezer'ek ere, zamar luzea zeraman soñean eta buruan *Hurbusch*, Fez dalako kapelu gorria, "*Kascher*" amorratutakoa bai-litzan.

"Sabbat" larunbateko atsedean aldia ondo begiratzen zuan eta Sinagoga'ra joan oi zan bere barruko asmotako oso elizakoi ez izan arren. Judu zar baten oso adiskide egin zan eta onek etxera zeraman maixko, Moises'en legea bete zezan.

Bizimodu latza nola nai Eliezer eta Debora'rena.

Onela zeudela, egun batean Franklin agertu zitzaion eta elkarrekin izan zuten asarrea azturkik illeroko aldizkari berri bat argitaratzea eskeñi zion: "MEVASSERET ZION" izenez. (Sion'go berriak). Ez zan au Jehuda'rentzat berri txarra, zeuden mixeritik ateratzeko.

Esan bearra da Ben Jehuda senar-emazteak Jerusalem'a iritxitakoa "sefarditen" taldea zala sendo elkartuenik langilleena. "Azkenazim" deitutakoak, aldiz, kanpotik zetozkien emaitza ta eskupekoz bizi ziranak.

Biok ere naiko urri ta exkas, elkar destañez begiratzan zutela elkarrekin aditzeko izkuntza bakarra ez zutelarik. Egoera benetan txar eta errukarria. Ortan zeudelarik, Nissin Behar "Alliance Israelite" deritzan zuzendari jaunari judutar ikastola bat zabaltzea bururatu zitzaion; eta xede ortarako Ben Jehuda'ri laguntza eskatu zion. Onek, jakiña, "ebreoz" erakustekotan bayezkoa eman eta lanean asi zan. Ordurako Debora ere "ebreoz" oso trebetu zan eta poz-pozik zegon pentsatuz laister jaioko zitzaion aurrari ere "ebreoz" itzegingo ziola.

Ez zuan asiera artan beste izkuntzekin naasi nai. Ez erderarik jakintsuenekin, ez "yiddisch" zalakoarekin. Ez da ejemplo ona bezelakorik lagun urkoari bide zuzena erakusteko. Debora'k "ebrea" ikasteko errestasunik ez izan arren beti ari zan eten gabe senarrarekin jardunean.

Ben Jehuda'k "Alliance Israelite" ortan ez zuen besterik erakusten eta au dala-ta judutar zar askorekin asarreak izan zituan. Beñiola ikastolara zijoala arrika eraso zuten eta gero ere aski lan izan zuan etsai zituanak menderatzen. Eskerrak lagun gazte zenbait bere alde zeuzkala. Auen artean ABRAHAM SHALON itzegia osatzen laguntza aundia eman ziona. Daturik adiskide ura 1915 urtean Europa'runtz abiatu zan eta España'n semita ikaskizunetan jakintsu zalako Unibersitate-katedrako arduradun izendatu zuten. An gelditu zan Ben Jehuda bakarrik "Alliance Israelitan" irakasle. Emen irabazten zuan diruz bizi zan, doi-doi ta eragozpenez inguratuturik. Bata zan, agintariek, ez zituztela ikastolan Rusia, Polonia ta Rumania'tik zetozten ikasleak artu nai. Beste orrenbeste gertatu zitzaion YEHIEL MICHAEL PINEZ adiskidearekin *Montefieri Institutoan* buru zegonarekin. Onekin ere asarretu zan au "Yiddisch" izkuntzaren aldekoa zalako. Ben Jehuda ez zegon inñundik ebrea bazterrean uzteko. Alde guztietan ondo etorri ala ez, erabilliko zuan. Alako batean, emaztearekin zijoala Jerusalem'eko kaleetan, ebrea mintzatzen, naski, gizonetako batek geldi arazi zituan galdegiñez: "Zer izketan ari zerate?... Bai bereala Ben Jehuda'k erantzun: "EBREOZ"... Besteak, berriz: "Ez al da ori ildako izkuntza?"... Ez! "Okerr zaude". Ni ta nere emaztea bizirik gaude" esanez jarraitu zuan aurrera".

Eta ortan jokatzan zuan beti Ben Jehuda "ebreozale" purrukatuak eta gero ta geiago bereganatzen zuan gazte jendea, naiz beste askok gizon basati ta trikutat artuarren.

Jerusalem'en gauzak orrela zeudela 1915 urte aldera Europa erdi aldetik estudiante talde bat azaldu zan. Viena'tik zetozen eta Ben Jehuda'ren izena ezagutzen zuten onek ango "HASBAHAR" aldizkarian idatzitako lanak irakurri zituztelako. Ikasle aiek Ben Jehuda'ren antzeko ameslari utsak ziran.

Berak sortutako "BILUIM" itz berria artu zuten izentzat eta ori ezik beste itzik asko "ebroera" izkuntza bizia sendo zedin. Ben Jehuda'ren gogokoak izanagatik ezin ar izan zituan bere etxean. Alaz ta guztiz, nola edo ala koka al izan zituan adiskideen artean. Okerrago gertatu zitzaion Jafo'ra eldu zan beste talde batekin. Erdi goseak eta beartsu, premi gorriean guztiak galdu zirala. Baiñan, alare lur santuari atxi bear! Alajainkoa! Eta Ben Jehuda'k "ebreozaleen" taldea bildu ta alegiñez etsitzen, nekez bederik. Jatena gutxi baiñan ebrea asetuko zituan. Azken gertakariak gogoratuko ditugu.

1882 urtean Debora'k semetxo bat eman zion. Eta oni lenengo esandako itza au izan zan: "YALDE" (Aurra) ebrea ama baten semeari zegokiona.

Ez al zan egia, makabeotarrek ezkerotik Debora izan zala "ebreozale" bakarra?... Eliezer aitak galerazi zuan aurrari beste izkuntzan itzein zezaioten. Ezta "Yiddisch" en ere!

Eskola-maisu saiatuak zorionik asko artu zituan eta semeari "ITAMAR" deitura eman zion. (Palmondoa). Garai artan "zarista" zan agintariak izen ori entzun dakoan arpegi txarra jarri zion baiñan ajola gutxi! aitari. Zirt edo zart! beti bat! Alakoxea gendun Ben Jehuda. Urte batzuek aurretik Franklin imprimatzailearekin asarretu zala ikusia dugu. Eguneroko paper bat argitaretzeko eskatu zion, ebrea utsez... eta ez nola naikoa. Paris'eko "Le Figaro" n añakoa! Ez zuan gutxi nai!

Txikiagoaz asetu bear izan zuan urteen buruan. Eta au izan zan "HATZEVI" (El Ciervo-Oreña) asterokoaren asiera. Laguntzaile ta dirua biltzeak lanak eman zirkion... "HATZVI" 1884 garren urtean lau orri txikitxotan azaltzen zan.

Beraz ez zuan "Le Figaro" ren antzarik.

Judutarrok ez zuten ain gaizki artu "ebreoz" agertuarren. Baiñan aitzeki-maitzeki idazkera ezik mamia ere ez zitzaion oso gogoko. Ostegunetz irtetzen zan osta-osta 300 artzaile izateñ zitala.

Aztu zaigu esatea seme jai berriari gero BEN SION (Sion'go seme) deitzen ziotela. Ben Jehudarrak bere biziari zerraikioten adoretu.

Iñoiz kibutzetara ere joan oi ziran. Onela bein batean RISCHOM EL SION zeritzanan bazkari egiten ari zirala adiskide artean BEN JEHUDA'ren brindis edo topa au izan zan: "LEJALM" = "BIZI GAITEZEN".

Ez zan errez urte latz aietan baiñan beti gizon eta abertzale azaltzen zan

bere bakartasunean. Egun batez, Rusia'k Jerusalem'en zuan konsuladoan agertu ta ez bat eta ez bi Konsulari esan zion: "Ni ez nauzu "moskobia" edo "errusitar", naiz Lituania'n sortua izan... Nere izena ez da ELYANOFF... BEN JEHUDA baizik.

Eta jakin zazu Israel'go lur santuaren seme eta erritar naizela.

VI

"HATZEVI" goraxeago aitaturako asteroko paperan izen eta izana ez zerizkioten egoki batzuen batzuei, eta izenez aldatzea erabaki zuten.

Izen berria "HAUR" (Argia) ustez ohea izango zalakoan. Aldaketa ordu txarrean zetorren. Orduan Palestina'n Turkia zan nagusi ta onen ordezkari jauklaritzak izena ta izana gaizki artuaz ez zuan ateratzeko baimenik eman nai izan.

Oztopo, maxiaketa, diru-urritasuna ta laguntza-ekak buru austerik asko ta aundiak sortu zizkion gure Ben Jehuda'ri. Eta ez gutxiago judutar "ortodoxo itxiak jarri zizkiotenak. Auek "herejetzat", sinesgabekotzat arturik bait zeukaten.

Orratiokan Ben Jehuda ez zan atzeratu kazetaritza egitez. Orrialde ugariak ateratzen ziran bere eskuetatik. Itz berriak sortu bearrean arkitzen zan. Lanez gañezka zenbillenarentzako lan gaitza. Eskola-emaille bezela egu-nero zaspri orduan ziardun, eta gero artikulua idatzi, itz berriak sortu geigizkoa zan. Gizona lertzeko añakoa... Eta zer esan?... Teatro barrutian ere sudurra sartu zuala jakindakoan?... Lan ontan Jaim Calmi izan zuan laguntzaille eta bion artean aurren jolaserako komeritxoak idatzi zituzten eta beste izkuntzetatik itzuli. Aztuna benetan Ben Jehuda'k bizkar gañean zeraman zama...

Bear bada kezkarik aundiena Iztegia biltzeak ematen ziona. Nola ez?... Erderaz "diccionario" esaten dan itza ebreoz nola adierazi ez bait zekian eta zerbait sumatu bearra zegoan. Gizon bakarrarentzat zeregin gaitza, talde batentzat egokiagoa. Era ortan ziardun Eliezerr'ek geienetan soil eta bakarrik eta ori 50 urte buruan. Arritzako al da bere bizia neke pean urtu zuaala esaten ba'dugu?

Buru-auste oien erdian DEBORA'k bigarren seme bat eman zion. Familia erabat bear gorrian eta estu arkitzen zalarik jaiotz orrek ez ziela poz aundirik eman sinistekoa da. Debora' etxeoandreak, zituanak eta ez zituanak saldu bear izan zituan. Besteak beste, etxean zeukan urrezko erlojua Wilhelm Harzberg judutar alemanak, biotz oneko gizonak diruz ordaindu baiñan atzera Debora'ri itzuli ziona, artu nai ezik. Ez ziran erestun guztiak ain esku zabal eta Ben Jehuda lagun izeneko zenbait merkatarí zikotz eta zekenik asarretu zan. Auetako bat, SHALON BLENCHER Palestina'n legorte izugarria izan zan urtean egarri zan jende errukariari ura saltzen aberastua...

Ikusten ari geranez Ben Jehuda'ren estuasunak ezin konta alakoak ziran eta ez zuten amaitzeko itxurik. Zorpetik irtetzeagatik, azkenik, etsi-etsita 1887 urtean Mosku'ra diru billa joatea erabaki zuan.

VII

Bitartean Debora Jerusalem'en gelditu zan etxeoandra ta eskola-emaille...

Eliezerr'ek eman zion agindu bakarra au izan zan: "Ez zezaiela äurrei erakutsi "ebroz baizik". Joera au ez zan Pinez eta beste judutar batzuen iritzia, aiek beste asmoak zituzten, baiñan Debora moldatu zan gauzak okerrera joan ez zitezen. Gure etxeoandrea oso jendeartekoa zan, leun, ondo itzegiña, inguruko sefardita emakumezkoekin ederki zetorrena. Biotzez ezik buruz eta adimenez argia zan. Borondatez ornitua, ebroz gero ta geiago jabeturik zegoan. Senarra etxetik kanpo ibilli zan guztian ez zuan ardurarik galdu, arazo guztiak zuzen eramanez. Ben Jehuda'k alare, zorionez, Rusia'n familiaren laguntza ukan zuan eta bestelagun zar batzuek ere eskua luzatu zioten. Etxeruntz pozik zetorrela Paris'tik barrera, emengo judutar aberatsetara jo zuan eta auek egin zioten arrera, ustez baño ohea Zerbait ameslaritzat zeukaten gure Eliezer baiñan zur jokatzeko aolkua emanez diru pilla polita eskuratu zioten, IZTEGIA argitaratzen asi zedin. Pozkarioz beterik itzuli zan Jerusalem'era etxetik at illabete batzuk ibilli ondoren emaztea eta senide ta etxeoak laztantzera.

Beartsuen etxean pozak iraupen gutxi duala, esan oi da, eta gure Eliezerr'i ere laister gatzitu zitzaion. OREIÑA aldizkarian ordezeko utzi zuan PINEZ'ek ez zituala bete eman zizkion aginduak, judutarren erlijioari buruz.

Txarkeri aundia egin ziola ta PINEZ ori aldizkari ortatik bialdu bear izan zuan. Ez ori bakarrik: HATZEVI zeritzan urrengo zenbakian Eliezerr ausartu zan "SABBAT" dalakoaren aurka zerbait idaztera. Lan au ordea oso gaizki artu zuten "judu-erlijiozale" zarrak, "ortodoxo itxiak. Ben Jehuda "erejetzat" zeukaten eta onen aurka neurri garratzak eskaturik istillu gorria jarri zioten.

Rabino nagusi ta gañerako judutar apaizek anatema agindua zabaldu zuten HATZEVI (Oreiña) aldizkariaren kontra eta "exkomunio" orren bidez judutarrei irakurtzea galerazi. Eliezerr bere onetik atara zuan agindu orrek eta soñean zeraman lebita luzea erantsi ta bizar luzea kenduz HATZEVI ortan izugarritzko artikulua argitaratu zuañ rabino jendea jorratuz.

Irakurle askok utzi zuten HATZEVI irakurtzez baiñan guztiok ez zioten muzin egin. Onela MISSIN BEHAR orduan "Alliance Israelite" elkargoan buruzagi zanek auzia paketu nai izan zuan, Ben Jehuda'ren alde arpegi emanez. Orretarako Rotschild "Andiaren" laguntza sortu zuan. Jaffa'ko adiskideek ere alde jarri zitzaizkion eta Eliezer ez zegoen bakarrik eta ez isillik.

VIII

Ba-zan okerragorik, 1891 urtea benetan mingotzago eta illunago gertatu zan Ben Jehuda'rentzat. Bere emazte kutun ta maite Debora il zitzaion, senarrak kutsutako "tuberculosis" gaitzez! Ustez osasunez ondo zegoalarik eta "ebreo-irakasle" bezela "*Eveline Rotschild*" ikastolan zuzendari.

Naigabe au aski ez zuala sasoi artan Ben Jehuda'ri bost semetatik iru il zitzaizkion! Gertakari aiek jota utzi zuten bai gure gizona. Azer nolako egun negargarriak! Aren etsaiek, batik bat "Azkezanin" deituak uste izan zuten ura zala Ben Jehuda erabat zanpatzeko egokiera. Onek orratiokan burua sutsu altxa zuan Debora'ren korputza lur santuan eortzea galerazi nai izan ziotenean. Sefardita adiskideengana jo bear izan zuan eta auek, gaitz erdi, lortu zuten Debora'ren korputza Olibo-mendiaren gallurrean lurpera zezaten.

Goaxeago esanik utzi dugu judutar ortodoxo estuenzat Ben Jehuda "aingeru gaiztoa" zana... eta grifien itsumena! poza artu zuten arri ta beste ebreozalei Turkia'ko Gobernoa'k ipintzen zizkien eragozpenagatik. Pines ere gaizki ikusia zegon. Au, Ben Jehuda ta Behar, irurok salatuak izan ziran Turkia'ko agintarien aurrean. Onek urduritasun bizia sortu zuan Palestina'ko juduen artean. Ben Jehuda'k bere burua baretzeko onela zion: "ardoa irakin araziz egiten da; ogia legamiz oretuz". Anai-arrebok burruka egiñez". Ori guztia idatzirik dago. Eta era ortan jarraitzen zuan bere lanean. Aurrenekoa "ebreo izkuntza "kibutz" guztietan irakustea zan, baita ere erri-ikastoletan. Azkenik zar "*egoskorren*" kabi ziran Rabino ikastetxean ere sarrera eman zioten. Ez zan makala ortatik zetorkion garaipena, baiñan. esan leike Ben Jehuda'ren ekintzarik aundiena "HATZEVI" (Oreña) aldizkariaren bidez egindakoa izan zala. Neke ta ardurarik zaillena eramane ziona, ordea, IZTEGIA biltzea. Ordu luzeetan "txartelak" bete ta bete egunak zijoazkion. Eta lan au etsai zuan Turkia'ko Jaurlaritzak begitan artua zualarik. Eskerrak, lagun berriak ere ez zutela bakarrik utzi. Bere-ziki bat aitaturko dugu: Jaffo'n bizi zan BARNECHIUS eta Rotschild'en ordeko izanik asko ta asko zezakena.

Bestalde, Polonia ta gañerantzeko tokietatik judutar talde berriak zetozelarik bertakoen indarra geitzen ari zan eta arabetarrei arpegi emateko gai ziran eta kibutzetako lanetan ekiteko bearrezkoak. Arabe jendea noiz nai erasotzera bait zetorren, indarrez menderatzeko asmoz. Kemen eta adoretzu aieci arpegi emateko ISRAELKEINBERG etorri berritako bat buruzagi izendatu zuten eta onek arabetarroi ikara sartzen jakin zuan.

Onenbeste burrukaz asperturik Ben Jehuda'k begi onez zekusan judutarrok bat egitea; danok lur santuan elkartzeta. Bizi al izateko burruka nai ta naiezkoa ba'zan ere, atsegiñago zitzaion kultura lanean leiatzea.

Orregatik egun batean, uste gabeen Judas Grazozki ebreozale ta idaz-

le ospetsua Palestina'ra iritxi zanean berebiziko pozkarioa nabaitu zuan bere barruan. ¡Aren bearrean zegoan!

IX

Judutar talde berriak gero ta geiago etortzen ari zirala esanik daukagu. Nun lanegin erraz arkitzen zuten. An zeuden "kibutzak". Nekaritzamota oni esker jendea bizi zan. Gerorako ez zala aski ikusi zan eta industria ere sortu bearra zegoela; mota guztietako lantegiak etorri berriok nun lan egin izan zezaten. Arazo ontan Rotschild baroi jaunak zer diru laguntza aundia eta nolako itzala ta babes eskefi zien mundu guztiak ba-daki. "Kibutzak" ari zor diote bizia. Zerbait geiago ere bai, ordea. Nekazaritza ezik, abere-zaintzak eta masti ta ardogintzak emandako irabaziekin ontzi ta bonbillak egiteko lantegiak iraike zituan. Onela ardo, ezti, esne ta beste jaingai asko ederki gordetzen ziran. Rotschild berak oial ta seda euntegiak muntatu zituan ta kimika industrigintzari bideak iriki zizkion.

Zenbait "*kibutzar*" ez zeuden "ados" edo konporme Rotschild'en geiegizko babes eta itzal orrekin. "Jauntxokeria" zeritzaie... alegia. "Kapitalismoa"...

Gure Ben Jehuda'k Rotschild aundikiaren alde itza atera zuan.

"Siondar" itsu ta garbietako ez zala jakinarren, ezin ukatu bait zitzaion judu-errialdeari egiten ari zan mesedea. Toki guztietan "mokoerre" ta praka-estuak eta olakoak Ben Jehuda paltso ta saltzaillat salatu zuten. Banko-gizon ospetsu ta aberatsari saldua.

Egia zan onek laguntzen ziona aldizkari ta IZTEGIA ateratzen. Eliezer'ek zer egin zezakean besterik bere asmo aberkoiak aurrera eramane arazteko?... Etsaiez inguratua, bakarrik eta alargun lanean jarrai al izateko, berriz ezkontzea erabaki zuan. Eta ain zuzen bere koñata HEMDA'rekin.

X

Albiste au Jerusalem'en barreatu zanean, ardalla ta zintzarotsa, gerta oi danez sortu zan bere inguruan. Jendeak bazekian Eliezer gaxorik, eri arkitzen zana; ta tuberculosis dalakoa emazte berriari kutsutuko otezkoa. Koñata geia amaalu urtez gazteago zan. Adiskide on batzuek, batez ere BEHAR'ek gogoetak egin zizkion zer pauso ematera zijoan pentsa zezan. Eta onela Eliezer damaturik ezkontzez etsi zuan. Baiñan ara nun Hemda andregaiak maite-mindua zegoanak, berria jakin orduko onoko telegrama bidali zion: "ZUREKIN ELKARTUKO NAIZ BAI URTEBETE, ILLABETE EDO EGUN BATERAKO BEDEREN". Eta Hemda zintzo ta kementsua bere amarekin aguro asko Jerusalemruntz abiatu zan.

Ben Jehuda'k au jakiñik Constantinopla'ra bide erdira irten zitzaion ongi etorria ematera. Eliezer judu zarkitu arropa kenduaz, ingles antzera txukun jantzita, gazteturik andregaiari agertu zitzaion. Onekin prantzesez itzegitea ez zuan gogoko baiñan ebreoz laister ikasiko zula-ta lasatu zan.

Buruan zeraman fez dalako kapelu gorria kendu ta apaindu ziran biak.

Ezkontza ebreoz egin zuten, naski. Hemda'k lenengo ikasi zituan itzak auek izanik: "ZE MAFTTEACH". Esan nai duana: "AU GILTZA BAT DA". Bai biotzak irikitzen dituan giltza. Ondoren bikoteak Jerusalem'en sarrera egin zuan ango senideekin bilduaz.

Ben Jehudatarrok Jerusalem'go kaleetan nabarmendu ziran ebreoz mintzatzen zijoazela. Europa'tik etorritako juduek ez bait ziran ala mintzo.

Ben Jehuda bildur zan bere etxeok ere ebreozaleatasuna galduko ote zuten. Ez emazte berriak eta ez amagiarrebak ez bait zekiten tutik ere.

Eta beti izan oi dira maxiatzeko etsai bekaiztiak.

Zorionez Hemda'k oso gogoz eta egiñalean egunero ziardun ebreoera ikasten. Itzak eta esaerak buruan erraz sartzen zituan eta iru illabete buruan polliki izketan asi zala diote. Seigarren illabeterako, buruz itzaldi bat ikasi zuan eta bai "parra-parra" utsik gabe bota senarrarekin. Jaffo kolonia joan ziralarik. Arriturik utzi omen zituan ango kibutzarrak.

Lorietan ikusi ta aztertu zuan Hemda'k RISCHON LE SION deritzan bazterra. Lenago malkar eta arri uts ziran lurraldeak orain barruti, soro zuaitz eta lorez betetakoak. Eta poz aundiago izan zuan an aurrak ebreoz mintzatzen zirala nabariturik. Gauza mingarri batek naigabetu zuan: Kolonia artan ebreoz itzegiten ez zekian bakarria BARNECHIUS adiskidea zala. Damurik B. Rotschild'en ordezkari ta arduraduna...

XI

Basarri-koloni artan beste zerbait geiago jakin zuan. Alegia, kibutzarrok "HATZEVI" maxiatu ta gaziki esaka artzen zutela. Oien ustez Jerusalem'ego berriak eta gora-berak geiegi aizatu ta gutxiegi kibutzetan gertatutakoak.

Txango ta ibillietan beti ikasten da zerbait, etxera itzulitakoan ausnar ditekena. Ben Jehuda'ren kezka nagusiena ebreo izkuntzarena izanik an egin zizkioten galderak "itz berriei buruz oso gogoan artzen zituan. Iztegiaren arazoa ez bait zuan beñere eskutik uzten. Andrea ere ortara zaletu zuan eta lana egin arazten zion HATZEVI asterokoan emakumeekiko atala aren gain utzirik.

Zenbaterañoiko kezka ta buruaustea ematen zion Eliezer'i ebreozko itz berriak sortzeak onoko gertakai onek erakusten digu: Beñola Debora lenengo emaztea bizi zalarik elkarrekin mendiruntz joanak ziran. Debora aurretik zijoala ikaratu omen zan "arrobio" (escorpión) bat ikusita... ta se-

narrari oi u egin zion: ¡Begira! "AKREB" bat. Bai Eliezerrek lasa erantzun: "Badakizu ebreoz AKRAB dala ta ez "AKREB". Ez zan alde aundia! Hemda'k bere aldetik itz berri bat edo beste sumatu zituan. Bat inglese "fashion" moda dalakoa adierazteko. Ez dakit emakumezkoek ikasaraziko zien, azken moda, *azken moda* baita beti...

Senitar-tean eta eguneroko etxe bizi-mañan gauza latzagoak gertatuko zitzaizkien, naski. Seme nagusi BEN SION zeritzanak, gazte sutsu ta buru beroa zanez, Rotschild'i eskutitz lotsagabezko bat zuzendu zion judutar "gudaroztearentzat" dirua eskatuz. Eskea gogor egiña ez zitzaion Rotschild'i ongi iruditu ta artean ematen zituan laguntzak ukatzen asi zan eta eskupekoak kentzen. Baiñan alare, Ben Jehuda'ren familiari, naiz semearen arrokeria kaltegarri izan betiko sari ta laguntzak eman zizkion, batik bat Eliezer Iztegia osatzen joan zedin. Iztegia ez ezik aurrentzat argitaratzen zituan dei-papertxoak. Ben Sion seme zarrak beti istilluren bat sortzen zion onek gaztetasan bultzadaz ekiñaldiak indarrez ta bortzaz erabakitzeke zale baiz zan. Semeari jaramonik egiteke eta zur jokatu ere Eliezerrek bazuan aski lan. Oso kideko zuan Yehel Pines'ekin asarretu zan au ebreozale sutsua izanagatik. Guztia, Errusitar-juduen "BREI MOSCHE" elkargoaren etsai zalako.

Borruka ta liskar oriek osasuna makaldu zioten ta "mingainluzeak" esamesez omen zioten: "ez zukeala aurrerantzean aita izateko kemenik izango".

XII

Oker zeuden ortan, ez ezen andik illabete gutxira Hemda'ri jaio zitzaion neskatxo bat. Amak 22 urte zituan eta Eliezerrek 35.

Aurrari, lenengo emaztearen oroiz DEBORA izena eman zioten, oituraren aurkakoa izanarren, baiñan gertakizuna beste oztoporik gabe pasa zan. Sortuko ziran laister, buru-auste larriagoak.

Turkia'n agintzen ABDAL HAMID II sultana zegoan. Eta agindu zorrotzak emanak zituan aldizkari ta berri-paperekin kontra. "HATZEVI" astekaria gaizki ikusia zalarik maiz salatua izaten zan. Areago Turkia'n erreboluzioa piztu zanean. Ben Jehuda baitu ta presondegira eramane zuten. Mingarriena salatariak "judutar-zar" "ortodoxoak" izan zirala: bere odolekoak.

Nissin Behar, benetako adiskide zintzoa, bere aldetik Eliezer libratzeko lanean asi zan eta ez zan gelditu ua azke ikusi arte. Orretarako Frantzia'ko Rabino nagusi zan ZADOR KHAM engana jo zuan; ta eskari bera Rotschild Baron jaunari ere egin zion. Dirua biltzea bearrezko izan oi da libertadearen trukez. Eta judutarrok, askok bederen erantzun zuten Ben Jehuda'ren alde eta zortzi egun barru atera zuten kalera. Emen kristautentzat atsegin dan xehetasuna agertu bear da. Alegia, ain ezaguna dan Aita La Grange dominikoak alegiñik aundienak egin zituala Ben Jehuda espetxetik atera zezaten.

Alderantzian Jerusalem'go Rabino nagusiak "HEREM" agiria "exkomunion" antzekoa eman zuan "ortodoxo" estuen izenean.

Bitarte ortan Turkoan auzitegiak epaia azaldu zuan Ben Jehuda urtebeteko kartzelara zigortuaz. Onek ontzat ez arturik Bayreuth'ko auzitegira jo zuan Justizi eske. Epaimaiak erabaki berria artu aurretik Rotschild'-ek bidalitako telegrama jaso zuan: "OTOITZETAN JARRAI ZAZUTE". Ots "Ez zaitzete sar ez dagokizuten arazoan". Azkenik auzitegiak barkamena eman zion Ben Jehuda'ri Rabino jendeari jaramonik egin gabe.

Eliezerr pozik eta lasai irten zan kalera ta aurrena egin zuan lana IZTEGIA osatzen jarraitzea. Pozkarioz gañezka, baldin baite, jakin zualarik Rotschild'ek aren azkatasunaren alde egindakoaz gañera 10,000 franko urretan bidali zizkiona, gastu guztiak ordain zitzaiz. Dirutza ura ba-zan epaikariak erosteko añaakoa. Ez zan beraz arrigarri auzitegiko azken erabakia: ZAKKAI. Au da: ERRUGABE. Alaxe zan: errugabe, baiñan baita ere aldizkaririk gabe utzi zutela. Berriro, astirik galtzeke asi bear. Lenengo, jakifia IZTEGIA'ren lana. Gogor ekin zion, etxeko mai, kajoi ta zokoak itzez betetako papertxo eta "fitxaz" gañezka zeuden. Etxean janariz urri zebiltzan baiñan orde zitez eta paperez mantentzen ziran. Jakiz ezer gutxi: geienez ogi beltza ta olio zuten azkurritzat. Paper pilla aiek galdu ezkerro etxea ondatuko zuan.

Orregatik Schetter ingles jakintsua bixitatzeraz joan zitzaionean ainbeste paper-punta bazter guztietan ikusiaz esan omen zion: "Baiñan Gizona!" zure txarte-lepillá au beste era batera gorde bear zenuke. Kutxatillean sartuta artxibo itxuran. Orrela zure lana errezutuko litzaizuke.

Adiskaren aolkua ontzat artu zuan Ben Jehuda'k eta ez zan asarre, andik aurrera ta egunetik egunera IZTEGIA aunditzen zijoala oartuaz.

XIII

Ben Jehuda egiten ari zan lanaren berri zabaltzen zijoan.

Egun batez Jerusalem'era etorria zan Rotschild'en ordezkari batek bixita egin zion. Ez zan esku utsik etorri. Mai gañean ALBUM eder bat utzi zion larruz estalia. Barruan, eta orrialde bakoitzean "milla frankoko billete bat erantsirik zeukana. Esan bearrrik ez dago Eliezerr'en pozaldia nolakoa izango zan...".

Areago, oraindik jakin zualarik "HATEVIZ" beragertzeko baimena ematen ziotela; eta geiago zana: judutar berriak Palestina'ra etortzeko galerazpena kendu zutela, Bereala HATZEVI piztutzeko gertuerak egiten asi zan eta idazle berriak billatzen.

XIX garren mendearen azken urteak aurrera zijoazen: 1897 garrena iritxi zan. Ain zapalduarik ezagutu ditugun judutarren bizimodua sendotu ta obetzen ari zala esan diteke. Jaffo arabitar erdi judutar egiñik arkitzen dugu.

Berpizte ori Safer'eraño irixten zan, baiñan, gorakada orrek ez zuan Ben Jehuda'ren gogo asebetez. "Hatzevi" astakaria berriro argitaratzen asi ala Ben Jehuda'k 40 orrialdeko liburuxka bat azaldu zuan: iztegitxo bat, alegia. Ain ale txikia ikusirik kontuan erori zan zenbat falta zitzaion bere amets kutuna zan IZTEGI aundia osatzeko. Inork ez zion ukatuto etengabeko lanean ari ez zanik. Geiagoren bearra zegon alabaña! Ori zala-ta berri-paperaren lana andreari egotzi zion eta bera Iztegi aundiari loturik gelditu zan. A zer nolakoa buruaustea! Egun batez "konzierto" itza nola esan sumatzen ari zala, TIZMORET bururatu zitzaion. Gero, ordea itz ori ORKESTA adierazteko ohea zala eta "Konzierto, KONZERT errezagotzat artu zuan. Onela izan oi dira itzberri, "nelojismo" zaleen goraberrak. Atsedean aldi bat bere buruei opaz senar-emazteek Galilea'runtz ibillaldi bat egin zuten, an bizi ziran "Hatzevi'ren" irakurleak ezagutzera.

Txangoa jarraituz EN ROSH PINA koloniaraz eldu ziran. Bertako arduradun nagusiak lur ar-emanak ondo zaintzen zituada egia zan baiñan baita ere "siondarren" asmoetako oso epela zutela. Inguruko "kibutz" eta baserri asko ikertu ondoren aski argi agertu zitzaion Errusia, ta Europa'ko beste lekuetatik etorritako juduentzat an bizitzea gaitz zala, giro bero ta kiskalgarrian zeudelako.

Leku bat bakarraz arkitu zuan atsegiña goa, ipar aldean HERMON mendia inguruan zegoana. Emen ordea, "druso" deitutako arabitarrek ez zion juduei pakean uzten eta latza zan an bizitzea.

XIV

Ori ondotoxo ikusi zuan HEMDA'k ingurumai aietan bizi izan zanean. Arabitarrekin ondo etortzen aleginduaz pakean bizitzen lortu zuan, elkarrekin lanean, ereiten eta uzta biltzen leia ziralarik. Denbora gutxi barruan Galilea iparraldeko "kibutz" ura Palestina guztian onenetakoa bezela oniritzia zegoan.

Txango oietaz kanpo senar-emazteak Jerusalem'go bere etxean zuten bizi-leku paketsua.

Ala zeudela 1897 garren urte artan Londres'tik Zangwill judutar idazle inglesa bixitatzeraz eldu zitzaion. Gizon ospetsu ura ostatutzat etxean artu zuten nola bizi ziran ikus zezan. Lenengo erakutsi zioten bazterra imprenta-makina txikia zeukaten gelatxo. An irartzen bait zuten HATZEVI aldiskaria. Ez zan tresna ura aldeatzerik Zangwill'ek Londres'en lan egiten zuan TIMES egunkariaren Errotatibarekin! Ingles idazleak Jerusalem'go txoko guztiak miatu zituan eta aztertu eta itzaldi batzuek eman zituan "New Gran Hotel" go areto nagusian, judutarrak Lur Santuan nola bizi ziran adieraziz eta bai kristauak ederki jorratuz. Israeldarrok abegi ona egin zioten Zangwill jaunari baiñan ez zuan gelditu nai izan an bizitzen.

Ikusitako gertakari, ta berekiko gorde zituan asmoak, gero argitaratu zuan liburu: GETTO'ko AMESLARIAK deritzanan idatzirik utzi zizkigun.

Atzeruntz begiraturaz, gogoangarri da jakitea, Frantzia'n XIX mendeko urte aietan DREYFUSS'en auzi zaratatsuak ixkanbilla izugarria sortu zuala. Bear bada oraindik juduentzat eta auen etorkizunerako, ajola aundiagokoa izan zan 1896 urtean Teodor Herzl ospetsuak argitaraturiko liburua: DAS JUDEN STAAT. Emen bait dago "Siondasunaren" oñarri ta zutabea. Eta auen gañean 1897 urte artan datza Judutarren Batzarrak Basilea'n eraikitako eralguntza. Ben Jehuda'ri auntzara joan zedin ots egin zioten, baiñan Turko agintarien aldetik zituan eragozpenagatik eta libertade ezagatik etxean gelditu bear izan zuan.

Turkia'ko Jaurlaritza *Siontasuna* zalako asmo orren etsai zan zentzugabekeria zerizkiolako eta otomanuentzat kaltegarri... Ismael Bey gobernariak amorrazita onela ziotan bein ERTZ ISRAEL oiua entzun zualarik (Gora Israel). "Kontuan" ar zazute, au, Palestina dala ta juduek ez duzute aberririk!

XV

Egia esateko, Basilea'n ez zuten ezer erabaki ebreo izkuntzari buruz eta Ben Jehuda jarraitu zuan lanean ezer ez ba'leki antzo... Baiñan, benetan Basilea'ko Batzar nagusi ura isilune ta guzti ajola aundikoa izan zan judutar arazo osorako. Eliezer isilik zegoan baiñan ez geldirik. Ustegabea laguntza oparo bat eskuratu zuan. "Montefiore" deritzan (Jewish Colonisation) elkargoak 5.000 franko bidali zizkion nai bezela txautu zitzan. Aurren-aurren, atzeratutako zorrak ordainduz, imprentarako tresna berri bat erosi ta gero eskuarteau gelditu zitzaizkion txanponak andreari eman zizkion etxea ornitzeko. Hemda leial zintzoa lasaxeago bizi zedin. Ez bait zebillen osasunez oso sendo. Au dala-ta Paris'era joan-etorria egitea ongi letorkiola ta aruntz abiatu ziran, mediku adiskide batengana, aurrak amonaren ardurapean utziaz. Bein Paris'en ezin bada Rotschild bixita gabe egon.

Beste adiskide ta ezagunengana ere azaldu ziran. Auen artean Zola ta Max Nordau juduzale idazle ospetsuak biak. Azken aipatu onek kema asko eman zion ebreo izkuntzaren alde lanean jarrai zezan. Orobat, Hemda'ren osasuna zaintzeko sendabide ta aolkuak jasoaz, ibillaldi ura ez zitzaian alperrikakoa izan.

"Alliance Israelite" ezaguna zaigun elkargoa eta onen buru N. Leven zanarengana ere agertu bat egin zuten. Gauza bitxia! Jaun au judutar izanagatik ez zan *ebreazalea*. Alegia Palestina'n ebreo izkuntza zabaltzeko aldekoa...

Alako begiko zan ordea Eliezer, ezin bada laguntza ukatu bere IZTEGI aundi ura lenbaitlen osatu zezan. Ezer besteren billa al zebillen bada?

Ez zuan astirik galdu, ezen "Bibliothèque Nationale" ta beste liburu-

regietara lan egitera joanez baizik. Eta oraindik ere, beta arkitu zuan otsegin zioten jaialdi ta bazkaritara ez uzku egiteko. Orrela "Opera"n ere izan zan Meyerber judutarren IGARLE (El proeta) entzun eta ikustera. Besteren bizkar, Bazkaldar eta pestazale, diru-kezka ta eskasia aztu zitzaian. Au aski ez zala Rotschild baron jaun aundikiak bere etxean arrerarik onena egiñez gañera, azken diosala egindakoan eskuzabalez eskupeko aundia eman zien. Judutar jatorriko filantropo aberats au ez zan *siondarren* oso aldekoa ta azkenik aolku au eman ez agurtu zituan: "Kontuz, kasu, Turkoekin! Ez itzazutela asasa ta gogait eginaraz".

Iñor ikusteko nagitasunik gabe *Clemenceau* (tigre) sonaundikoa ikustera ere azaldu ziran. Benetan Ben Jehuda ausarta zala aitortu bear, arenztat bai siondar, Palestina judu, arabatitar eta berdin kristauak "atzerakotzat" zeuzkan. Gizon laiko utsa bait zan eta ez batere erlijioaren adiskide.

XVI

Orrenbeste jende motakin itzeginda ezin atxeman izan zuan judutarrentzat izan zan gizonik aundiena: TEODOR HERZL bein ta berritan aipatua. Londres'euruntz abiatzeko garaia eldu zitzaian an-ere lagun batzuek zai zeuzkatelako. Auen artean ezaguna dugun Zangwill jauna. Au ez izan arren "ebreozale" ta "siondar", benetakoa adiskide zuten ta oso umoredun eta atsegiña. Batak beste, adiskide berria sortu zitzaian: "Herbert Bentwich" au bai "ebreozale" purrukaturia. Ain sutua, ezen, andik pizka batera Palestina'ra bizi izatera joan zana. Onen illoba, urteen buruan HERBERT SAMUEL Ingalaterra'ren goi-agintari zegoala (Alto Comisario) izatera iritxi zan. Eliezer Londres'en zegoala nola ez bada "British Museum" arakatzera joan IZTEGIRA'ko itz billa?... Egunak uste gabe zijoazkion. Hemda ere oso pozik zebillen Londres'en, Paris baño atsegiñagoa ote.

Eliezer'ek, aitzikik, naiago zuan Paris. Eta onera itzulitakoan liburutegian ikertzen jarraitu zuan; eta erabat bertako izkuntzalari, ta filologoi galderak egitera joanez.

Max Nordau'ri azken-agurra egitera joandakoan, onek, arren eta arren Teodor Herzl'engana azaltzeko eskatu zion. Iñundik ere ez utsegiteko.

Ustez Basilea'n zegoala eta aruntz abiatu ziran, baiñan ain adur txarrez, ara iritxi ziran egun berean gure HERZL Viena'runtz irtena zala jakin zuten.

Zer egin?... Diruz urri egon arren, jaurrera! Austria'ko iri nagusirako trena artzea besterik ez! Zoritxarrez, berriz ere txoriak aldegin zien.

¡Adurraren okerra! Nekaturik eta txanponik gabe, naigabetuta bidaia alperrik luzatzen ari ziralako, ez zuten beste erremediorik izan Kostantinopla barrendik Jerusalem'untz itzultzea baizik. Turkia'ko iri nagusiti igarotakoan norbaitek esan zien HATZEVI aldizkaria aurrerantzean ezin argitaratuko izango zutela ango agintarien baimen berezi bat lortu ezik.

Ibillaldi neketsu ta erabiltako kezka ta lorrak Eliezer'en osasunari izu-garrizko kalte egin zioten. Estul gaitza sortu zitzaion, "hemotisis" odol galtze ere bai ta eritasunak Kostantinopla'n oearazi zuan eta luzaroko.

Gizarajoa ortan zegoala, paperetatik jakin zuan TEODOR HERZL Alemania'ko Gillermo Kaiser'ak Sultanarentzat emandako mezu batekin. Jerusalem'a zijoala.

Sultana'k Alemania'ri diru laguntza eskatua bait zion; eta ordañez turkoek Palestina'n bizi ziran aleman juduei erreztasunak agindurik...

Bigarren Gillermo Kaiserra laister Jerusalem'era joatekoa zala susmurrak zabaltzen asi ziran; eta baita ere Teodor Herzl txango artan joango ote zan: Palestina'ko juduek "Siontasuna" sortu zuan buruzagiari arreta eta ongi etorri sutua egingo ziotena ez zan duda-mudarik.

XVII

Ala gertatu zan. Kaiser eta Herzl elkar arturik MIKVE ISRAEL deritzan kibutz kolonian bildu ziran. "Siondarren" sortzailleak Prusia'ko errege altsua apalki agurtu zuan. Eta onek besoa luzatuz, adiskidetasun antzo, oso gutxitan egin oi zuan "keñua", amaitu zuten eguna.

Bitartean Eliezer beti eri oean etzanda Costantinopla'n... Semeari eskatu zion Herzl'engana joan zedilla bere mezu bat eman ez. Eta ala egin zuan. Herzl'ek Hemda ikustera joango zala agindu omen zion, baiñan ez zuan bete itza Jerusalem'go "salatari" batzuek esan ziotelarik "bixita" ura juduentzat kaltegarri zitekelako.

Ben Jehuda'k zortzi illabete luze eri ta oiean eraman bear izan zituan, ezin iritxiaz Herzl ikusi ta elkarrekin izketaldi bat zertzera. Ez etsi orratokan gure gizonak eta ez zan gelditu bere burua obetoxeago arkitu orduko Viena'runtz joan eta bertan Herzl aurrez aurre arkitu arte.

"Sionismoa"ren sortzaillea oso lanpeturik ta kezkatua arkitu zuan batik bat politika, diru ta ekonomi arazoaz. Ez zan gutxigorako. Israel Legegria-Estadoa sortzeak berez buruauste aundiak zekarzkian.

Ez zan errez Otomano Imperioa'ri lurra erosi ta eskubideak kentzea. Dirua, dirutza aundia bear zan! Eta indar eta kemena. Herzl'i izkuntza kontuak ez zion ardurarik ematen. Judutarrak joan zitezela, bai Palestina'ra, eta lur santu artara joan ezkerre elkarrekin nola mintzo gero erabakiko zuten.

Ben Jehuda'k eskuak burura zeramazkian ori entzunik! Ez zan bat etortzen Teodor Herzl'ekin. Onak lendabizi Sultana diruz erosi nai zuan.

Eliezer biotza-galduta Paris'era abiatu zan alik eta ariñen. Andik bereñere egin zion eskutizarik goibelena idatzi zion Hemda'ri: "Guztia galdurik dago".

Eta Jerusalem'go bidera lotu zan berrero.

Eskerrak eta gaitzerdi etxeratutakon andreak berri on bat eman ziona. Alegia, agintariok aldizkari bat argitaratzeko baimena eman ziotela.

Aldizkariaren izena HEMSKAFAN izango zan. Eta HATZEVI (Oreña) galerazi zuten ezkerre beronen irakurleak zai zeudena.

XVIII

Garai artan Jerusalem'go juduen artean eztabaida, liskar eta asarreak ugari zenbiltzan. Batzuk RUBI MIER rabinoaren aldekoan ziran; bestetzu aurkakoak. Ortarako aski aitzeki Boers deitutako gerratea, japonese-errusiarrena abar eta abar...

Ben Jehuda'k ez zuan auzi aietan sartu nai izan. Itz zakarren batzuek esan zizkion "Alliance Israelite" bazkuneko buru zan Duc Querci jaunak, baiñan azkenerako arras adiskide gelditu ziran. Beti ebreoan zeukan jarria gogoa. Ez zan oraindik izkuntza ofiziala izatera iritxi ez kalean eta ez eskoletan baiñan bidean zijoan. Ogei urte Jerusalem'era bizi izatera etorria zala, ain zuzen 1881'n ta pozik nabaritzen zuan *ebreoe* egindako aurre-rapena. Teatrolari talde bat ere eratu zuan ez oso yayo ta trebea alaz guztiaz itxaropenez begiratzen zuan etorkizuna. IZTEGIA argitaratutakoan ebreo Literaturari bultzada aundia emango zion uste osoan zegoan. Ebreozaleak ugaritzen eta zaletzen zijoazela ikusirik Ben Jehuda'k itz berriak sortzeko griña ez zeukan azturik. Lenengo IZTEGIA'ri ebreoz zer izen eman erabaki zuan eta gero gañerakoak. Ona emen batzuek:

SEFER MILIM=IZTEGIA (Itzen liburua); HAIHALET=GUDARI AVIRON=EGAZKIÑA; ANOJIUT=BEKAIZKERIA... Eta beste anitz eta anitz aldizkarian ezaguarazten zituanak. Ez zituzten danak ontzat artzen eta ixeka Eliezerr'i izengoitiz ITZ SORTZAILLE esaten zioten. Berak irriz bai erantzun ez zala "nekazari bat besterik bere lana erriari eskeintzen ziona, onestu ala ez. Aldez aurretik itz berriok etxean erabilli oi zituan ea nolako arrera egiten zien jakiteko.

Adibidez, BANDURA itza TOMATEA adierazteko sumatu zuanean, jendeak gaizki artu zuten. Aspaldidanik AGONIA itza ezaguna bait zan. Baiñan Eliezerr'ek bere siman ez zuan gogoko AGANIA itza, TOMATE'z gañera "maitekeri likitsa esan nai bait du".

Beste bein, ingles-judutar batek saria eskeñi zion SPORT itza (kirola) ebreoz asmatzen ba'zuan. Sakonki gogartean arituz MIL-AB asmatu zuan. Eta orixe darabilte gaur egun. Frantzesez LYCEE eta aleman-rusoz GYMNASIUM deitzen dana ebreoz MIDRASHA itzuli zuan.

Ordurako Ben Jehuda'k Unibersitate Ikastola-Nagusi baten ametsa berekin zeraman. Gaur errealidade dizdiragarria dugu, egitazko miraria Jerusalem'en izan geran guztiok ao zabalik ikusia.

XIX

Egun aietan EBREOERAZAINDIA Akademia antzeko zerbait zutik jarri

zuan VAAD-HALASCHON deitua. Laguntzaille gutxi ta traketsak lanari ekiteko. Bata itsua zan; bestea berritsu itzjarioa... eta gañerantzekoak ere alatsu ta bat ez zetoztenak... Eliezerr'ek beltzak eta gorriak jasan bear izan zituan ebreo zale kideak ezin paketurik. TEA EDARIA artu araziaz zerbait ezitzen omen ziran. Etxeko ebreozaleok orrela ba'zenbiltzan kanpokoak ere ez zeuden "ados." aburu bateko. Batez ere Jaffo'n bizi ziran RICHSON LE SION eta RETAJ-TIKON kibutzetako lankideak asarre ziran Jerusalem'ego "kale-umeak ango problemak besterik ez zituztelako gogoan artzen.

Eztabaida artean ta jaramonik egiteke Ben Jehuda asper ezina, zurezko kutxatilletan txartel pillu bildu ta bildu ari zan. Suak egunen batez erreko ote zizkion beldurrez Burdinezko kutxa aundi baten sartu zituan, diru-altxor eta pitxiak gordetzen diran antzera. Aberastasun ura guztia egun batez. D. Leontiz adiskide dirudun bati erakutsi zizkion eta onek, ez bat eta ez bi, orduko milla franko urretan opa zizkion IZTEGIA argitarazten asi zedin.

Zerbait zan naski baiñan ezer gutxi, ezen Ben Jehuda'k dirutza askosaz aundiagoa bearko zuan Lau liburu aundi gotorretan sartuko ez zan IZTEGIA osatzeko. Lau ezik amalau bear izan zituala gero ikusiko dugu.

Nola nai, eskerrak SAMUEL KRAUSS Budapest'eko adiskideak eman zion laguntzari argitaratzen asi zan. Ungria'ko jaun ura oso aberatsa ta Eliezer en laguna onen lana izugarria ezagutuz esku eman zion bere sakela aren mende utzirik. Elkar maite zuten. Baiñola Jerico aldera txangoz zioazelarik Samuel Krauss'ek erdi txantxetan gadegin omen zion:

Adizu Eliezer! : "Ebreoz KAMELUA nola esaten dan badakigu... Baiñan nola esango zenuke BICICLETA itza?... Bai ark aguro erantzu: Oso erreza da: OF NAIM au da KURPIL BIKOA. Ez zuten algara txikia atera bien artean. Ben Jehuda ordea beti aurrera zijoan IZTEGIA osatzen eta aunditzen. Politika arazoak bear bada ez zijoazen ain eroso...

XX

Politika zan bai, Teodor Herzl'en asmo ta ekiñaldien barrutia eta Palestina'ri zegokionez ez zuala aurrerapen aundirik lortu izan esango genuke.

1920 urte inguruan ango lurralde ta eramuak jabeai ezin erosik zenbillen. Chamberlain inglesak ori ikusiaz nai aña dirutza eskeñi zion judutarrok Afrika'ko Uganda'n kokatu zitezen. Ben Jehuda'ri asmoa aztertu bearra zerizkion. Zaarrek Jerusalem'en geldi zitezela Orma doatsuaren aurrean intzirika.

Gazte biurrienak, aitzitik, Afrika'ra joan zitezkean.

Kibutzetako belaunaldiak ez zeuden orretarako. Es naski Eliezer ere. Ez zukean Israel betiko utzi nai baiñan aldi baterako judutarrak Uganda'n sendotzea ez litzake ain gauza okerra. Hemda ta emakumezko geienak, ala-

bañan gaizki artu zuten beltzen artera bizitzera joatea, ta kaltegarritzat odola nastuzea.

T. Herzl, Zangwill ta Max Nordau bera Ben Jehuda'ren iritzikoak ziran: "bein beñeko ostatutzat ortxe nunbait"... Baiñan Errusia, Polonia ta Europa'tik etorritako juduek oso bestela uste zuten. Borruka sortu zan Ben MOSCHE USSIKIN ospetsuak kinka artan Jerusalem'a egin zuan itzulerara. "Sionista" Batzarrerako asmoak biltzera zetorren eta bera Uganda'ra joateko etsai bizia agertu zan. Berebiziko eztabaida ta liskarrak sortu ziran juduen artean eta asarre ta errak luzaroan iraun zuten. Ben Jehuda, senar-emazteak egokiera ortan Berlin'era joan ziran eta andik Filandia'ra, azkenik Paris'etik itzuliaz beren buruen lasatasunerako onuragarri izan zitzairen ibillaldia.

Etxeratutakoan arkitu zuten Palestina "Turko-gazteen" aginte pean bizimoduz biguntzen zijoala. Jaffa'ren ondoan TEL AVI (Udaberri-erria) sortua zan, benetako ebreotar uria! Eliezerr'ek IZTEGIA zuan betiko kekka! Argitaratzen asia zan baiñan gero ta geiago aunditzen zijoala zorrak ordaindu ta ditua bildu bearra zeukan. Hemda Berlin'en utziaz senarra ezin Jerusalem'dik urruti egon. Laguntzaille zituan aleman batzuek uzkur egin zioten "ebreolari" toki geitxo ematen ziolako. Nola edo ala, bere bidetik aurrera, Iztegiaren lenengo ta bigarren liburuak atera zituan, Irugarrena ere bidean zetorren... Masiazaille ta kritikariak arriturik zeuden. Areago txinditurik gelditu ziran gero jakin zutelarik Berlin'go argitaldari etxe altsuak liburuak saldu ala diru aurrerapena egin ziotela Laugarren Liburuaren lenbaitlen agertu zedin.

Aize-bolera txopaz bultzaka errez da aurreruntz abiatzea.

1910 urtean *turkotar-gazteek* agintari Zakki Beig ipiñi zuten, juduentzat oso begiko izan zana. Turkia'n iraulketa zala-ta Europa'ko nazio aundiak begiak Palestina'runtz itzuliak zituzten. Batzuek alde eta beste-zuek kontra.

Teodor Herzl, Max Nordau eta beste zenbaitek agertutako UGANDA'ra juduak bialtzeko asmoa Viena'n bildutako Batzarrak zapaldurik utzi zuan. Ben Jehuda ere lur jota geldiditu zan. Ea ez zan gauza IZTEGIA'ren lanean jarraitzeko.

Herzl il zalarik Eliezer ere erdi illik alatsu, eri ta gogogabetua dana uzteko zorian arkitu zan. Ainstesteraño, Hemda'ri esan ziola: Goazen Europa'ra. Nere paperak salduko ditut eta bizi izateko aña diru emango al digute.

Ni emen gelditzen naizen bitartean gure aurrak eta puskak zaintzen, zoaz zu Berlin'a. Eta ala Hemda'k Berlin'en Langenscheidt etxeari IZTEGIA eskeñi zion. Ango juduek *Hilfsverein der deutsche Juden* elkargoak diru laguntzaz ontzat artu ta erosi zituan argitaratze eskubideak. Pozik itzuli zan etxera andre maratsa. Eliezerr'ek ezin sinetsi zuan berri ona ekarri zionean baiñan ala gertatu zan geroztik ezaguna dan IZTEGI ederr au: "THE-SAURUS TOTIUS HEBRAITATIS ET VETERIS ET RECENTIORIS. AUTORE ELIE-

ZER BEN JEHUDA HIEROSOLYMITANO". Alemanez onela diotsana: "Gesamtwoerterbuch d. alt-u, neuhebraische Sprache, Vollstaendig in 150 Lieferungen od. ge. in 12 Baenden.—Garaipen onek Ben Jedutarrok zorionez bete zituan. Iztegiaren asiera AV (aita) itza zan. Ez zan Iztegi soil bat ebreoz.

Prantzes, ingles eta aleman itzulpenak ere ba-zekarzkien. Gure Azkue aundiak gero Euskeraz egin zuanaren antzekoa. Itzak nundik datozen esanez eta Biblia'tik artutako esaera ta lekukotasunez orniturik.

XXI

Ben Jehudatarren seme nagusi BEN SION (Avi) zeritzana Berlin'era bidali zuten eta an kazetalarari egiñik Jerusalem'era itzuli zan eta emen ateratzen zan HAOR astekaria egunkari biurtzea lortu zuan. Aitaren ezpalekoa bait genuen.

Teodor Herzl ildakoan siondarren buruzagi WOLFSOHN lituanitarra izendatu zuten; eta onen ondoren OTTO WERBURG berlindarra Hemda'ri an egon dakoan asko lagun egin ziona.

Egun aieteko gertakari garrantzitsuena Turkia'ko iraulketa izan bide zan. ABDUL HAMID II sultana 25 urteetan agintzen egon da gero ankaz gorá bota zutena. Turkotar gazteek azkatasun geiago ematen asiko ote ziran uste izateko zan, eta era ortan Jerusalem'en bizitza ta espiritu giroa aldatzen ere bai.

Eliezerr'ek IZTEGIA'ran lenango Tomoa eskuratu zularik Edmond Rotschild bere ongillari eskeñi zion eskerrona agertuaz.

Osorik argitaratzea luze joko zuala ba'zekian baiñan IZTEGIA'k munduko guztiko liburutegien ateak zabalik zeuzkan. 1917 garren urte muga pozgarri izan zitzaion. IZTEGIA aurrera zijoan eta Israel ere bai, batik bat U. S. A. gudartean sartu zan ezker. Andik etorritako judutar gudari asko bildu ziran Jerusalem'en eta onela Abenduaren 11'n Alleby jeneral inglesa iri santuaz jabetu zan ingleskin batera judutar gudari asko laguntzaille zituala.

Aldi gutxi barru Weissmann jakintsuak Scopus Mendian Jerusalem'go Unibersitatearen lenengo oñarria ipiñi zuan eta "ebroz" erakusten asi ziran.

Oiek guztiak ala ziralarik ezin utz dezakegu aitatu gabe alde zurretik Ben Jehudatarrok ezagutu zuten larrialdirik garratzena: 1914 urtean Europa'n gerra sortu zanekoa. Turkoan mendean juduentzat ez zala giro-ta Palestina'tik Libano'ra aldegin zuten, zer nai gerta ere. Emen oporraldia igarota, diru ezak berriz Jerusalem'a biurtzera beartu zituan. Juduen artean asarre ta eztabaida besterik ez zuten arkitu batzuek prantzizale eta besterzuek alemanen aldekoak ziralak.

Borruka orrek Eliezer jota utzi zuan eta erabat gaxorik zegoala Ame-

riketako U. S. A. joateko gogoia sartu zitzaion. Osasun kariatz eta baita ere ea ango judutarrek Frantzia'ren alde berotzearren. Turkoek ez zioten berelakoan Palestina'tik ateratzeko baimenik eman begitan artua bait zeukaten: "kazetalarari makurtzat"... Nola edo ala grezitar ontzi batean Alejandria'ra iges egiteko egokiera ukan zuan. Eta andik Italia'tik barrera U.S.A. zabalera. Amerika'ko anaiek arrera ona egin zioten. Ez zuan jai-omenik artu nai izan Palestina'n ainbat eta ainbat judutar jende larrialdi gorrian zeudelarik. "Sionista" anaioek, ori bai berotu zituan Prantzia ta Erri elkartuen alde ipiñi zitezen eta U.S.A. ere gerrara sartzera bultzaturik. Ala gertatu zala guztiok dakigu. Ben Jehuda New York'en zegoan bitartean Jerusalem'en gelditutako judu guztiak ez zuten onartu ura igesi joanez bearaiek gose, larrialdi ta gerratearen pean egon bearra.

Bai, egia zan, aitortu zuan Eliezerr'ek baiñan ez zuala beste biderik ikusten. Ez zezatela gaizkitzat artu aren jokaera. Gogorik biziena lenbaitlen Jerusalem'a itzultzera bait zuan. Alare 1918'n gerra buka arte gelditu bear izan zuan U.S.A.'n 1919 garren asieran etxeruntz abiatu zan New-York'eko juduek emanak 10.000\$ eskuan zituala Jerusalem'en etxe berria egin zezan... Iztegi'ko puska bat atxikiko zuala sinistekoa da. Palestina'ra iritxi zanean Sir Ronald STORRS gobernariak onela agurtu omen zuan: SHALOM ALEJEM, ingles nagusi ark zekizkian ebreozko itz bakarrak.

Munduko gudate ura bukatutakoan Israel aurrera zijoan. Bere seme judutarrek alde guztietarik zetozkion; eta "ebroz" izkuntza Jerusalem'en Unibersitateari irakita gero ta literatura, teatroa eta beste kultur bidez indartzen asi zan. Politikaz iritxiko ote zan bere buruaren jabe izatera?...

Urrengo atalean zerbait ikustera goaz.

XXII

"Balfour Declaration" arabera *Lur Santua* Ingalaterra'ren agintaritzaren pean geldituko ote zan susmurrak zenbiltzen. Eta ala gertatu zan San Remo'n artutako erabakietan. Au jakindakoan poztasun aundia zabaldu zan Jerusalem guztian. Sir HERBERT SAMUEL izan zuten lenengo komisario. Ortaz gañera ingles, arabe ta ebreo izkuntzak ofizialak izango ziran. Ebreozale, irakasle maisuak mauka ezagutuko zutela zirudian baiñan laister asi ziran arabe ta juduen arteko iskamillak. Naiz Ben Jehuda arabeen adizkide izan ezpa ta gorrotoa artu zioten.

Jakiña, onek, ebreoera toki guztietan sartu nai bait zuan, besteak bigarren mallan utzia. Aleman judutarrek Jaffa'n "Technikum" ikastetxea jarririk zeukaten, baiñan alemanez erakutsiz eta "ebroa" bazterturik... Aldi artan zan ori. Gaur *Tecknion* judutarra deritzana munduko Ingeniero eskoletatik onenetakoa omen da. Ben Jehuda'k Eraim Cohen alemanzalearekin eztabaidak izan zituan, baiñan azkenik alemanak amore

eman zuten eskola itxiaz. Morgenthau amerikarra bitarteko ibilli zan eta aldi baterako baretu ziran izkuntza burrukak.

IZTEGI aundia Berlin'en argitarartzen ziarduten eta 12 Liburu gotor osatuko zituala jakiniñ gaude. Lan gaitza eta neketsua Ben Jehuda'ren osasuna ta bizia makaldu ta akituko zuana. Azken kolpe txarra izan zuan ordea Eliezer'k 1920/1921 Jerusalem'en bertan gudatea piztu zanean. Ango odol isurtze, sarraski ta ondamenak gorputza ezik biotza zauritu ta goibeldu zioten.

Bere barruko abertzale deiaz Inglesen aurka altxa bear izan zuan. Dei sutsu ta larria idatzi zuan eta Weizzmann jakintsuari obeituz azken-itza Iztegian au izan zan: NEFESCH=ANIMA. 1922 urtean il zalarik 30.000 juduek lagundu zuten bere korputza ilobira, Olibet-Mendian eta judu-erlijio otoitzez lur santuan eortzia izan zala. Esan bearra dago, azken urteotan Yabe'ren sinismenara itzulia zala ta Jainkoa aitortuz eman zuala azken asnasa, ta Sinagoga'ko bidetik zenbillen. Gure Kardaberaz'ek *euskarak burua jasotzea Jainkoa'k nai du* esan baldin ba'zuan Ben Jehuda go-raipatu dezakegu asmo berdiñez ekin zualako Ebreoeran alde (1).

Kondaira onen xehetasunik geienak Robert St. John'en *The tongue of the Prophets* liburutik artu ta labur antzean euskeratuak ditut. Euskaldun naizen aldetik ez da alperrikakoa izango zerbait iruskin erantsitzea. Bereziki, ebreo eran pizkundetik zer ikasi eta ea Israel'en egindakoa gure artean zabal al dezakegun. Ezin uka diteke ebreo izkuntza sakonetik landu, itz berriez ornitu ta indartu dutena. Lazokeri ta mordolokeriatik urruti ibilli dirala ere bai. Ez dakit ebreo *basico* murriztu bat oñarriztat artu duten norbaitzuk esan diguten eran.

Ba-degu guk *euskera basico* naiko ederra A. Ibañagabeitia bizkaitar jatorrak egin ziguna. Zergatik ez aintzat artu?... beste bat naastuagoa sumatzeko?... (2).

* * *

Amaitzeko itz bi euskaldun eta juduen arteko ar-emanaz. Neroni ere Jerusalem'en Palestina'n ibillia bait nazute. Ango kaleetatik nenbillelarik ederrenetako batean BEN JEHUDA'ren izena jarria ikusi nuan eta Eliezer'i omenezko agurra egin nion.

Aruntzaxeago arritu ninduana, beste kale bat ERNANDORENA izenezkoa ikustea. Geroztik jakin nuan Ernandorena au Lekeitio'n jaiotako itxas-

(1) Bibliografia: *Analyse d'un Miracle*, Arthur Koester. *Histoire du Judaïsme*, André Chouragui. *Exodo*, Leon Uri. *L'Etat d'Israel*, Chouraki A.

(2) *Orize'k* egindako azken lanean (1961-VI) gai ontaz bere iritzia utzi zigun: «Que digan hoy a los israelitas que las palabras que inventó Benjehuda son muertas. El pueblo les ha dado vida. Si hubieran esperado a una lingüística normal aplicable a lenguas que tienen vida pujante; ilucidos estarían!» (Extractado del folleto *En defensa de la lengua*. Gráficas Ollacuria - Bilbao 1962).

-gizona izan zala, gerratean juduek Palestina'ra eramaten zaildua. Judutar adiskide asko egin zituana errez da asmatzen. Itsas burruka arriskutsua bukatuakoa an gelditu zan bizi izaten. Azkenik Israel'en aldeko jardunagatik bertako erritar agiria amaten ziotela. Ez ori bakarrik, gero, saritzat TEODORO HERZL Israel'ek duan itsasontzirik ederrenakoaren *kapitan* egin zuten; eta kale bati Ernandorena izena jarriaz. Euskaldunontzat ez al dau gogoangarri? Bayetz utse dut eta egoki zan eredutzat jakin araztea...

ANTONIO M.^a LABAYEN.



KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º KARDABERAZ
- 2.º UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
- 3.º EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK
(A. Arrindoa).
- 4.º KARDABERAZ - 2.
- 5.º KARDABERAZ - 3.
- 6.º AMEZKETA KO PERNANDO
(A. Albisu).
- 7.º KARDABERAZ - 4
- 8.º PAKEAREN ERREGIÑA - MEZA
(J. Pildain).
- 9.º 20 IPUI ETA ANTZERKITXO BAT
(A. Albisu Ayerdi).

KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan,
Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean

b) Kristau-pentsakera barruan
(ezi zabala) lan egiteko.

Bazkideak (gizon ala emakume) milla pta.
ordainduko dute sarrerako ta beste mi-
lla urtero. Diru oiekin ateratzen da
KARDABERAZ BILDUMA, bazki-
deentzako ezean.

Arpidedunak (bazkide nai ez dutenak) li-
buruak artzera beartzen dituzte beuren
buruak.

Bazkide naiz arpidedum egiteko nora jo?
Leku auctara :

Kardaberaz Bazkuna :

Tolosa'ra : Juan José Garmendia Arcelus
Técnicas de Difusión.

San Francisco, 1.

Apdo. 83.

